

ttipi-ttapa



ERAIKUNTZA GEHIGARRIA / 34



Donezteben feriak azaroaren 17an, Lesakan 23an eta Goizuetan 25ean / 19

Nafarroako Judo Txapelketa irabazi du Gaxuxa Zelaieta legasarrak / 27

Plazara Dantzara: «Lehenbizikoz herriko bestetan mutil dantza baztertzailerik ez» / 71

Nafarroako sokatirako txapel guztiak Beti Gazterentzat / 78


SINADURAK



HARITZ BEREAU MUTUBERRIA / 3



AITOR AROTZENA ALBIZU / 3



NAHIA SENPER MAZZIAR / 4



XABIER MARITORENA ZUBIETA / 4



ZOKKETA / 88

INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO ALDARRIA

Azaroaren 25a Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna da, eta aurten ere, karrikara aterako dira herritarrak. Gaiaren harira, berdintasun teknikariengana jo du TTIPI-TTAPAK eta indarkeria matxistaren biktima izan diren lau lagunentzako testigantzak ere bildu ditu. Egoeraren larritasuna agerikoa da. / 10



JUAN MARI ONDIKOL

Greba feminista orokorra

Azaroaren 30erako greba feminista orokorra antolatu du mugimendu feministak. / 8



Nafarroako
Bertsolari Txapelketa
2023

Finalaurrekoa
LESAKA
Azaroak 19, igandea
17:30ean, Pilotalekuan



Joanes Illarregi Marzol, Eneko Lazkoz Martinez, Josu Sanjurjo Alzuri,
Eki Mateorena Zozala, Mikel Lasarte Cia eta Beñat Astiz Isasi
Gal-jartzailea: Alaitz Rekondo Ferrero

Antolatzailea Leguntzailea
 

www.bertsozale.eus
Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai



Bortzirietako
Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

JAKINARAZPENA
2023ko bigarren urterdiko hondakinen bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren adierazten den bezalaxe:

ORDAINTZEKO ERA
Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak: Erreziboa eskutitz bidez bidaliko da eta bertan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa.
Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak: Kontutik zuzenean kobratuko da.

ORDAINTZEKO EPEA

- 2023ko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2023ko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion **interesa** aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, **premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekariguarekin** kobratuko da.

Etxalar, 2023ko urriaren 30a
Lehendakaria,
Patxi Castillo Graciana



NIRE TXANDA

HARITZ BERAU MUTUBERRIA

«Ta Malerrekan ze?»

Malerrekako gazte asanblada edo MGA lehen, Lapaitza asanblada orain (ongi etorri Bertizarana). Dozena bat gazte lehen eta bertze dozena bat orain, baina eztabaida berdinak anitzetan. Garai zaharrak, garai berriak, baina gazterien aktibazioa burutan, hamaika buruhauste beti.

Ingurura begiratu eta; Xulufriak, Bor-Bor, Talde ekosoziala, Zapatilera, Baztango gaztetxea... Ze inbidia (sanoa) ematen digun inguruak aipatu izan dugu 11 bileratan. «Ta Malerrekan ze?» galdera geure buruari.

Mugimendua eta gero espazioa? Hala espazioak ekarriko du mugimendua? Eztabaida zaharrak eta soluziorik ez, baina inguruneak eragina duela dudarik ez.

Malerrekan arnasmuneak behar ditugu, bertzelako espazioak behar ditugu. Gaztetxea akaso? Eztabaida hortatik abiatuz irekiko dugu datorren hilaren 17an Doneztebeko herriko ostatua. Eskualdeko gazte sortzaile, euskaltzale, feminista... denon elkargune izan dadin.

Aspaldi hasitako biderei ekarpena egiten diolakoan... Ongi pasa feriak eta bertan ikusiko dugu elkar!

**«ARNASGUNEAK
BEHAR DITUGU,
BERTZELAKO
ESPATIOAK...»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Hitz bat edo mila irudi

Bere herrixka suntsitu zuten napalm bonbez ihesi biluzik ageri zen Phan Thi Kim Phuc neskaren argazkiak Vietnamgo gerra bukatzeko izan zuen eraginari buruzko dokumentala ikusi berri dut. Irudi batek mila hitzek baino balio gehiago zuen garaiak ziren. Orain, Gazako genozidioari buruzko milaka irudi latz ikusi arren ez gara solas bakarria ahoskatzeko gai: Ask!

NABARMENTZEKOAK



**GAXUXA
ZELAIETA**
JUDOKA


Gaxuxa Zelaieta Eulate judokak Nafarroako Judo Txapelketa irabazi du seniorretan 57 kiloz azpiko kategorian. Orain, Espainiako Txapelketa ariko da. Zorionak!



**FRANTXA
ZUBELZU**
ERRETIRATUA

Urriaren 30ean 100 urte bete zituen Frantxa Zubelzu saratarrak. Urteurrena ospatzeko herriko etxeko kideen bisita izan zuen eta loreak hartu zituen opari. Aunitz urtez Frantxa!

GIBELERA BEGIRA



2013-11-14 · TTIPI-TTAPA · 602 zk.

Gai jartzailetzari buruz solasean

Bertsolari Txapelketa Nagusia jokatu zuten duela 10 urte, eta parte hartzaileen artean ziren Alaitz Rekondo eta Fernando Anbustegi gai jartzaileak. Txapelketa gaiak paratzea «ardura handiko lana» dela kontatu zuten biek, baina, «gazitik baino gozotik» gehiago zuela: «Zure lanari esker saioa aitzinera joan dela ikusteak hitzez azaldu ezin den sentazio on bat ematen du», kontatu zuten. Gaiak sortzeko prozesuari buruz ere mintzatu ziren: «Ez dago dekalogo edo urrezko araurik. Batzuetan norberaren gaiarekin ere pasatzen da, gaia momentuan ona iruditu eta biharamunean jada ez duzula berdin ikusten. Bertze batzuetan ezustekoak hartzen dira, norberak aurrekusi ez duen zerbait ateratzen da zuk emandako oinarri horretatik».



erran.
eus



Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantza
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberría, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senperoko
udalak, Malerreko Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2023ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	45€
Leitza	36€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	100€
Amerika eta Australia	152€



KOLABORAZIOAK

NAHIA SENPER MAZIZIOR

Palestina aitzinerat

Joan den asteen nire ikasleek Palestinaren aldeko greba egin zuten. Historiako klasean ginela, zergatia galdetu nien eta Palestinako gatazka musika elektronikoko jaialdi batean hasi zela uste zuten, bertaratutako gazteei gizon armatuek tiro egin eta 300 pertsona inguru hil eta batzuk bahitu zituztela aipatu zidaten.

Palestinar gatazkaren jatorria XIX. mende bukaeran kokatzen da. Theodor Herzl kazetariak Estatu judu bat sortzearen ideia plazaratu zuen, 1947. urtean bete zena Nazio Batuek Palestina bi estatutan, arabiarra eta judutarra, banatzearen alde bozkatu zutenean.

Horrela, Nazio Batuek ez zuten herrialdeko biztanleriaren jatorria kontuan hartu, eta lurraldearen % 55 estatu juduari eman zioten, nahiz eta biztanleriaren gehiengoa arabiarra izan (musulmanak eta kristauak) eta biztanleria judua lurraren % 6 izatera ailegatu ez. Bi taldeek uko egin zioten proposamenari; juduek populazio arabiarrik gabeko lurralde gehiago nahi zutelako eta arabiarrek, berriz, lurra desarabiartu nahi zuen komunitate kolonizatzaile batekin banatzeko prest ez zeudelako.

Azkenik, 1948. urtean Israelgo Estatua sortzeak lurraldearen eraldaketa bortitza eta palestinar

**«PALESTINARREK
BORTIZKERIA
JASATEN URTEAK
DARAMATZATE»**

biztanleriaren erdia baino gehiago kanporatzea ekarri zuen. Azken horren gehiengoa errefuxiatu bihurtu zen.

Ordutik geroztik, gizarte palestinarra hiru taldetan banatuta egon da: herrialde

arabiar mugakideetara edo bertze leku batzuetara kanporatuak izan zirenak; sortu berria zen Israelgo Estatuan gelditu zirenak (errefuxiatutzat hartzen ez zena); eta Palestina historikotik gelditzen zen Zisjordania, Gaza eta Jerusalemara joan zirenak.

Emakume zein gizon palestinarrek hamarkadak daramatzate okupazio sionistak eragindako bortizkeria jasaten; haien etxeetatik indarrez kanporatuak eta lekualdatzera behartuak, haien hiri zein herriak suntsituak; espetxeratuak, torturatuak, bortxatuak, erailak... izanez.

Azken aste hauetan, Euskal Herrian, Palestinar herriaren aldeko hainbat elkartasun adierazpen egin dira; Donostian, Baionan, Iruñean, Bilbon manifestazioak, Euskal presoan baraualdia, hainbat herritan elkarretaratzeak...

Idatzi honen bidez, Palestinar herriari elkartasuna adierazi eta jendartea mobilizazioetan parte hartzera animatu nahiko nuke. Gelditu dezagun Gazako sarraskia! Palestina aitzinerat!



XABIER MARITORENA ZUBIETA

Eutsi

Duela 75 urte hasi ziren zure buruhausteak. Zureak ziren seme-alabak, herritar natiboak, alegia, desagerrarazten hasi baitziren.

Hasierako urteetan zure lurretan arrotzak sartu eta beraiek erabakitzen zituzten lurralde zatiak okupatzen hasi ziren, bertakoak erbesteratuz. Herritar natiboei lurrak eta ur iturriak kentzean, beren bizitza jasanezina bilakatu zuten eta bertze norabait joan bertze erremediorik ez zuten izan. Zure lurretan zeuden herriak desagertzten hasi ziren inoiz existitu ez bailiran. Baina kanpotarrak ez ziren asetzen, boterea zuten, eta ematen zieten, eta pixkanaka-pixkanaka dena bereganatuz joan ziren.

Nola ez dira ba bertakoak ziren (edo diren, hobeki erranda) herritarrak erresistentziarako antolatuko? «Nire amaren lurra defendatuko dut», aunitzetan aditu dugu eta antolatzea, etsaiari aurre egiteko, zilegi da.

Ez etorri niregana bai okupatzaileek bai okupatutakoek bortizkeria maila bera erabiltzen dutela erranez. Okupatzaileak eraso egiten du eta okupatutakoek, berriz, defenditu.

Palestina, zureak ziren seme-alaben artean 10.000 pertsona baino gehiago hil dituzte dagoeneko, horietatik % 40 haurrak. Palestina, zureak ziren ospitaleak eta errefuxiatu kanpamenduak bonbardatu dituzte.

**«ZER GERTATZEN
ARI DEN EZ DUGU
INOIZ ATZENDUKO
HERRI ZAPALDUOK»**

Aunitzetan lidergoan dauden inguruan gaizki erranka ibiltzen gara, baina lidergoan dagoena pertsona

bat bertzerik ez da, bere gibelean dauden eta bere alde botoa eman duten pertsona orok erantzukizun maila bera du. Arrazakerian erortzeko beldur ez dut erranen Israelgo herri osoa dugula hemen erruduna, baina ez pentsa gogorik ez duenik pizten. Haien artean ere izanen da hilketa horiek ezin direla onartu erranen duenik, baina gaur-gaurkoz Israelekin zerikusia duen edozeri boikota egitea bertzerik ez dut buruan, lau haizetara oihukatu genozidio bat burutzen ari direla.

Guk, herri zapalduok bereziki, ez dugu inoiz atzenduko zer gertatzen ari den eta Palestinaren askatasuna noizbait iristen bada ospatu egingen dugu. Gora herri askeak, gora Palestina!

11 GALDERA LABUR

NAROA ZUGARRAMURDI ZUBIETA GOIZUETAKO GAZTEA

«Aitzakia gutxi behar izaten dugu parrandarako»

Nor da Naroa Zugarramurdi?

Goizuetan bizi den 22 urteko neska bat.

Zergatik erizain?

Txikitatik aiton-amonon zaintza bizi izan dut eta beraiei bezala besteei lagundu nahi niela konturatu nintzen. Erdi mailatik hasi eta unibertsitatean amaitu dut. Prozesu go-gorra, baina oso aberasgarria izan da.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Mendira joatea eta herri-kiroletan parte hartzea. Palan ere entrenatzen dut. Horretaz gain, parranda eta lagunekin eta familiarekin egotea.

Behin eta berriz aipatu duzu eta, zer ematen dizu kirolak?

Ariketa fisikoa egin, burua deskantsatu eta deskonektatzeko aukera.

Gustuko duzun kaxko bat?


Mandoegi eta Mendauro oso bereziak iruditzen zaizkit, bista ikusgarriekin eta oso inguru politekin.

Eta nolatan herri-kiroletan?

16 urterekin herri-tiran ibiltzeko aukera izan nuen eta hor ikusi nuen plazan sortzen zen giroa oso aberasgarria zela. Interesa piztu zitzaidan eta trontzan eta txingekin ibili izan naiz. Aizkora, harria.. ez ditut probatu, baina agian egunen batean animatuko naiz!

Feriak izanen dituzue azaroan Goizuetan...

Bai eta oso bereziak dira niretzat. Antolakuntzan laguntzen saiatzen naiz eta egunean bertan barrutik bizi ditut feriak. Denok baserriarrez janzen



gara, herri bazkaria, postuak, aziendak, musikariak... Baserriarrei bultzada bat eman eta oso egun polita izaten da. **Festarako aitzakia ere badira feriak...**

Herri guztia elkartzen gara: 500 pertsona inguru biltzen gara bazkarian. Goizean goizetik hasi eta ordu tikiak arte luzatzen da festa.

Erraz topatzen duzu aitzakia?

Nahi baino errazago! Goizuetarrok aitzakia gutxi behar izaten dugu parrandarako eta

hori herrian dugun giro onaren seinale da.

Zerekin egiten duzu amets?

Nire ametsa erizain izatea da. Horretaz gain, familia eta lagunek osasuna izatea, lasai bizitzea, bidaiatzea eta Goizuetan bizitzea dira nire ametsak.

Eta zerk kentzen dizu loa?

Batez ere, azterketek eta bizi-tzako ezustekoek, baina orokorrean ere oso urduria naiz eta buruari buelta gehiegi ematen dizkiot.



Denboraldi berria

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Mairidireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Atta

SAIOA IRASTORTZA TELLETXEA

ETXEKOEN IZENEAN

Ez dakizu zenbat kostatu zaidan lerro hauek idaztea. 365 egun hauetan, azken 43 urteak pasa zaizkit bihotzetik, eta gauza asko sentitu ditut; denak ezin adierazi.

Zure ziztua ezin dugu gogotik kendu: egunik txarrenetan ere beti ziztuka sartzen zinen etxean, bazterrak alaituz, laneko aferengatik buruhausteak izan arren. Zure soinu banda zen. Horrek erakutsi digu arazoak erlatibizatzea gauza handia dela eta etxekeen babesarekin dena errazagoa dela.

Ikasi dugu autokritika egiten, eta, akaso, norberak ere baduela zer aldatu inguruan sortutako kaltean. Umiltasunetik begiratzen ikasi dugu, eta beti esker onez erantzuten. Ikasi dugu gure etxea defendatzen, eta gaizki egindakoen aurrean barkamena eskatzen. Eredu izan zara, eta beti izango zara.

Atta, senar, seme, anaia, osaba, lagun bikaina izan zara, ezin ahaztu zuk emandako guztia. Zure eta amaren eskuetatik helduta, bizitza eraikitzen erakutsi diguzue, ongi erakutsi ere! Sortzaile izan zarete, eta Unai eta biok artelanak; gerora ondorengoak ere ekarri ditugu, ezin ataxi hobea izan dutenak.

Zure besarkadak falta ditut, asko, gehiegi; barrutik *txetuta* dauden min guziak lotzeko modukoak ziren. Beti oroituko eta sentituko ditut, estu, luze, sendo eta babesle.

Jaizkibelgo lurrak eta haizeak hartu zaituzte, eta Arrutela gainaldean barrena eraman, golf kuttunaren gainetik. Aiako Harria zeharkatu, eta Larhumeraino, handik hainbeste maite zenituen Bortzirriak, Malerreka eta Baztango lurrak zaintzeko.

Lur honek zure erro sendoak ditu betiko, goxo iltzatuta, zure izatea gure bihotzetan betiko gelditu den modu berean. Eta gu bizi garen artean, zauden tokian zaudela ere, beti sentituko

zaitugu, ziztuka eta bizipoza barreiatzen nonahi.

Ez adiorik, atta. Besarkada estu bat.

Bankuak eta Nafarroako landa ingurunea

GERMAN GORRAIZ

EFE agentziaren arabera, Espainiako Banku Handiak (Santander, BBVA, CaixaBank, Sabadell, Bankinter eta Unicaja) 12.566 milioi euroko mozkin garbia lortu du 2023ko lehen sei hilekoan (2022ko epe berean baino % 22 gehiago), maileguen interesen igoera neurrigabeari eta sukurtsalak ixteari esker.

Horrela, Banku handiak, baliabideak optimizatu nahian, milaka langile aurrez erretiratzea eta sukurtsal kontaezinak ixtea erabaki zuen, eta Espainiako Bankuaren arabera, 2021ean Bankuak 2008an baino % 58 bankubulego gutxiago izango lituzke, eta itxitako bulego gehienak landa inguruneari dagozkio.

Adibide gisa, Nafarroan, 2008. urteaz goerotik, sukurtsalen sarearen % 41 itxi zen, eta, ondorioz, 145 udalerritako 42.000 pertsona inguruk linbo digitala batean biziko ziren. Horrela, bezeroen % 6,3 adinekoak eta analfabeto digitalak izango liriateke, eta 20 km baino gehiago egin beharko lituzkete kudeaketak egiteko eta hirugarren pertsonengana jotzeko kutzazain automatikoak erabiltzeko, bereziki Nafarroako Pirinioetako Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari haranetan, orografia bereziagatik eta neguko bideragarritasunaren arrisku erantsiagatik.

Ondorioz, Eskudirua Eskuratzeko Kalteberatasun Indizearen (IVAE) arabera, 36.300 pertsona pasatxo (Nafarroako biztanleriaren % 5,5 inguru) «egoera ahulean» egongo liriateke eskudirua tradizioz eskuratzeari dagokionez, eta egoera hori landa ingurune osora estrapolatu daiteke.

BOTA BERTSOA



IRAUN ZESTAU-TELLETXEA

BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER LEHIAKETAN B MAILAN IRABAZLEA

Izokinen bidea

Doinua: Maite gaituzten soro zelaiak

*Itsasoz gaindi kilometroak
gure senari segika
kostalderainoko bide hartan
hari batetik eutsita,
bide luzea, nekez betea
gu bizi ginen erdizka
itsaso, ibai ta Bidasoa,
bide hori igerika.
Guk ugalketa ziur genuen
bizitza bateko zita
ni jaino nintzen leku berean
jaioaz hainbat aldika,
nik aldiz aunitz ez dut irauenen
indar guziak utzita.*

*Bolanta poluzio ta bestek
zaitzen digute bizitza
garai batean hainbeste ginen
ta orain ia ez gabiltza
liztor, siluro ta karramarro
bertakoak jaten dabilta
Bidasoan presa hautsi zenetik
korrokoiak badabilta
hona etortzen segi nahi nuke
hau da izokinon hitza
gelditu kutsadura guztiak
hauxe delako baldintza
ingurunea zaindu dezagun
ta sortu elkarbizitza.*



Bortzrietakoa, Malerrekakoa, Baztangoa, Xaretakoa edo Leitzaldekoa zara?

Zatoz Arantza Hotelera eta atzenduko ez duzun esperientzia gastronomikoa biziko duzu

Ez galdu aukera berezi hau!

Arantza Hotelean, gure jantetxean bazkari edo afari gozoa egiteko aukera izanen duzu eta bi lagunentzako spa saio pribatua izanen duzu debalde.

Erreserbak egiteko **+34 654 31 89 49** edo **info@arantzahotela.com**

Baldintzak

Spa-ren iraupena: 45 minutu.

Bi lagunentzat edo gehiagorentzat

menua aukeran (menu

erromantikoa, dastaketa, marroje

dastaketa, Mendaur edo tu)

Kontsultatu menuak gure web

orrian: www.arantzahotela.com

Toki kopuru mugatua, erreserba

eginda.

Eskaintza honek martxo bukaera

arte balio du.

Eskaintza hau Bortziriak, Malerreak,

Baztan, Xareta eta Leitzaldea

eskualdeko herritarientzat da.

Aientsa Auzoa, 10 · 31790 **ARANTZA**





Greba sozializatzeko lan handia egiten ari dira. Irudian, Bortzirietako talde feministetako kideak bileran. UTZITAKOIA

«Denok hartu behar dugu ardura zaintzaren egoera aldatzeko»

GREBA FEMINISTA OROKORREKO BAZTAN-BIDASOKO ANTOLAKETA BATZORDEA

Azaroaren 30erako greba feminista orokorra prestatzeko lanean ari dira eskualdeko talde feministak. Zaintza grebara deitu dute, zaintzari beharrezko garrantzia eman nahi diotelako

A. LARRETXEIA

Azaroaren 30erako greba feminista orokorra deitu du mugimendu feministak ELA, LAB, Steilas, ESK, EHNE, Etxalde eta CGT sindikatuen babesarekin. Greba azaroaren 30ean izanen bada ere, aitzinetik herriz herri eta eskualdez eskualde lan handia egiten ari da mugimendu feminista greba antolatze-ko eta sozializatzeko. Egunean berean herriz herriz eginen dituzte ekintzak goizean eta Baztan-Bidasoko manifestazioa arratsaldean eginen dute Elizondon. Leitzaldekoek, arratsaldean Iruñeko manifestazio nagusian parte hartuko dute. **Azaroaren 30erako greba feminista orokorra deitu du mugimen-**

du feministak eta sindikatuek lehenengoz. Zer da greba feminista orokorra?

Greba lanuztea da, baina, azaroaren 30a ez da hori soilik izanen. Greba honetan saretzea, antolakuntza, politizazioa, interpelazioa eta harremanak jarri nahi ditugu erdigunean. Beraz, helburua ez da greba eguna bera, honen aitzinetik eta ondotik eginen dugun lana baizik. Greba feminista erradikala da. Sistema kapitalista, heteropatriarkal, kolonialista eta arrazista salatuko dugu eta pribatizazioaren arduradunak seinatu behar ditugu. Orokorra izanen da, zaintza eskubidearen aldeko borroka jendarte osoarena delako; denok

hartu behar dugu ardura zaintzaren egoera aldatzeko.

Zein dira grebara deitzeko arrazoiak?

Zaintza lanak emakumeek egiten ditugunez, gutxietsiak daude eta ikusezinak dira. Alde batetik, emakumeek dohainik egiten ditugun lanak daude, eta bertzetik, zaintza lanak soldatapeko lan bihurtzen direnean, prekarizatuak daude. Enpresari batzuk, sakelak eduki betetzen dituzten bitartean, langileek lan baldintza eta zainduak izan behar diren pertsonak ez daude beti egoera duinetan. Zaintza ezin da negoziarazko tresna izan! Gainera, arraza eta jatorriaren ardatzek

ere erabat zeharkatzen dute zaintzaren gaia. Geroz eta zaintza langile gehiago ditugu etxeetan; migranteak dira gehienak eta bertakoek onartuko ez genituzkeen baldintza erabat prekarioetan ari dira.

Zein da zaintzaren egoera?

Egoera sostengaezina da. Zaintza beharrezkoa da. Bizitzan hainbat momentutan zaintzak beharko ditugu guziok, salbuespenik gabe. Baina nork zainduko gaitu inork ez badu zaindu nahi? Zaintza duinak jasotzeko eskubidea aldarrikatzeaz gain, guztiok zaintzeko dugun ardura mahai gainean jarri nahi dugu. Gainera, administrazio publikoek aunitz daukate egiteko. Administrazioa da zaintza eskubidea bermatzeko arduradun nagusia eta zaintza sistema publiko indartsu bat behar dugu zainduak izan behar direnen bizitzak eta zainzaileen baldintzak duinak izan daitezkeen. Greba prozesuan zaintzaren egoera ikusarazi, eta zaintza lanei balioa eman nahi diegu. Aldi berean, egoera aldatzeko boterea daukatenak interpelatuko ditugu.

Zer erran nahi du zaintza greba izateak?

Normalean zaintza lanak egiten dituztenek egun horretan ez zaintzea da zaintza greba. Hala ere, horrela egitea idealena izanen litzatekeen arren, ez da hagitz errealista. Zaintza ezin da momentu batean ere alde batera utzi eta, beraz, hagitz zaila izanen da zaintza lan guziak egitetik uztea. Horregatik, garrantzitsua da zaintzen beharra agerian jarri eta nork eta zein baldintzatan zaintzen duen azaleratzea eta ardura hori banatu dadin eragitea.

Nola parte hartuko dute zainzaileek?

Zaintzaile batzuek ezinen dute lanuzterik egin. Zahar etxeetan adibidez, zerbitzu minimoak izugarri handiak izaten dira. Etxeatiko langileek bertzelde, lan erregimen orokorrean ez daudenez, izugarriko zailtasunak dituzte greba egiteko. Bertze adibide bat orduka la-

nean aritzen direnak izanen dira. Duten soldatarekin doi-doi bizi direnei greba egitea eskatzen ahal zaie? Hori guzia dela eta, arlo bakoitzean zaintza greba modu diferentean egikarrituko da. Zaintza lanak egiten ez dituztenek, gizonak adibidez, greba egunean zaintzeko ardurua hartzea modu bat da, normalean zaintzaz arduratzen direnek greba egin dezaten. Greba batzordeetan, zaintza lanetan jarraitu behar-ko dutenen aldarrikapenak agerian uzteko moduak bilatuko ditugu eta egun horretan aldarrikapen horiek karrakara aterako ditugu

Aitzinetik 2018an eta 2019an ere antolatu ziren greba feministak. Zer da diferentea oraingoan?

Aurten zaintzaren gaian jarri da fokua, hau da, denon bizitzak erdigunean egon behar dutela aldarrikatuko dugu. Gainera, orokorra da, jendarte osoa dagoelako grebara deituta. Orain arteko greba feministak bezala, gai feministen bueltan eginen da, baina, aitzinekoetan ez bezala, gizonezkoek lan egiten duten eremuetan ere deituta dago. Industrian aritzen diren gizonezkoak zaintza eremuan aritzen diren emakumeekiko elkartasuna adieraztea da greba honen berrikuntzarik handiena. Gainera ezin dugu ahantzi, sistema ekonomiko osoa dohainik egiten diren zaintza lanetan oinarrituta dagoela.

Nolatan sortu da aurten greba deitzeko asmoa?

Prozesu luze baten ondorioa da greba. 2020an zaintza sistemaren krisia agerian gelditu zen pandemiarekin. Horren ondotik, mugimendu feministak zaintzaren gaia erdigunera ekarri du, *Denon Bizitzak Erdigunean* dinamikaren bitartez. Honen harira, hainbat topaketa egin dira 2022ko otsailean eta 2023ko apirilean.

Zein daude grebara deituak?

Greba orokorra da, beraz, jendarte osoa.

Zer parte hartzen izanen dute gizonak?



Azaroaren 30eko greba egunaren aitzinetik, bilera mistoak egiten ari dira herriz herri. UTZITAKOIA

Parte hartze aktibo bat, herri batzarretara deituta daude, eta egunean eginen diren mobilizazioetara ere bai. Hala ere, greba egunean zaintzaileak mobilizazioetara ateratzeko, hutsune hori gizonak bete dezatela eskatzen dugu.

Euskal Herri mailako greba izanen da?

Hego Euskal Herriko greba izanen da, Ipar Euskal Herrian greba egiteko nahikoa baldintza ez daudela baloratu da, baina azaroaren 30a zaintzaren gaia lantzeko erabiliko da eta hainbat ekintza antolatuko dira. Gure eskualdean Xaretaren berezitasuna daukagu. Zugarramurdi eta Urdazubi Nafarroa garaiko herriak dira eta Sara eta Ainhoa berriz, La-

purdikoak. Eskualde mailan antolatzen ari gara, baina Sarako eta Ainhoako kideak ez daude grebara deituak. Gure eskualdearen egoera kontuan hartuta eginen ditugu mobilizazioak eta denak deituko ditugu mobilizazioetara.

Zein da mugimendu feministaren parte hartzea, eta zein sindikatuena?

Mugimendu feministak deitzen eta antolatzen du greba eta euskal sindikatuak mugimendu feministaren aldarrietara atxiki eta antolaketan parte aktibo izaten ari dira.

Eskualdean nolako izan da orain arte antolaketak?

Bailara bakoitzean mugimendu feminista modu autonomoan antolatzen ari da. Aldi

berean, elkarrekin egin beharrekoak adostu eta elkar elikatzeko koordinazio guneak sortu ditugu. Hemendik aitzina ere jendea aktibatzen eta mobilizatzen jarraituko dugu eta adi egon mobilizazioei.

Zein ekintza izanen dira egun horretan?

Goizeko mobilizazioak herri mailakoak izanen dira: bazkariak, asanbladak, manifestazioak, zaintza guneak... antolatuko dira. Arratsaldean, berriz, Baztan-Bidasoan mobilizazio handia eginen dugu. Hagitz garrantzitsua izanen da jendea Elizondon elkartzea.

Zein dira egun horretarako dituzuen asmoak?

Ahalik eta jende gehien mobilizatzea, zaintzaren gaiak erdigunea hartzea, zaintzaileen arteko aliantzak eraikitzea, zaintzaren eskubidea bermatzearen arduraduna den administrazioa interpelatzea eta zaintza sistema publiko komunitario indartsu bat behar dugula aldarrikatzea.

«GREBA OROKORRA DA ETA JENDARTE OSOA DAGO DEITUA EGUN HORRETAN»

«ZAINZAREN GAIA ERDIGUNEAN JARRI NAHI DUGU GREBAN»

Egiturazko indarkeria matxistaren kontra

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren harira, horren kontrako mezuak adituko eta ikusiko ditugu egunotan. Egoeraren larritasunak, ordea, gaia urte osoan lantzeko beharra agerian uzten du. Berdintasun teknikariekin eta indarkeria matxisten biktimekin bildu da TTIPI-TTAPA

G.PIKABEA

Larunbat honetan zortzi azaroaren 25a izanen da, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna. Indarkeria horilehenbizikoa lerrera ekartzeko eguna izaten da, nahiz eta gaia urte osoan mahai gainean mantendu beharrekoa izan. Gero eta gehiago solastatzen da indarkeria matxistaz, baina hor segitzen du, ez da desagertu, eguneroko kontua da.

Genero indarkeria hizpide hartuta eskualdeko hiru berdintasun teknikariengana jo du TTIPI-TTAPA: Ana Albistur Beunza (Bortziriak), Eider Perez de Heredia Goñi (Baztan) eta Amaia Paz Vallejorengana (Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko teknikaria). Eskualdean izan diren salaketak eta indarkeria matxistaren biktime izan diren

lau herritarren testigantzak ere bildu ditu TTIPI-TTAPAK. Indarkeria psikologikoaren biktime batek, ziberindarkeria jasan duen gazte batek, bikotekidea-rengandik indarkeria psikologikoa, fisikoa eta sexuala jasan dituen emakume batek eta sumisio kimiko bidez bortxatu duten berteze batek euren aitorpenak egin dituzte.

Datuen erreposoa

Urteik urtera goiti doa eskualdean salaketa kopurua. Hala diote Nafarroako Berdintasunerako Institutuko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalak emandako datuek. Joan den urtean, adibidez, ilbeltzetik irailera 25 salaketa aurkeztu zituzten. Bada aurten, denbora tarte berean, 34 izan dira. Albisturrek eta Perezek uste dute

«kontzientzia hedatua dagoela iruditu arren, datuek alarma soziala pizteko arrazoi nahiko ematen dutela. Azken urteotan genero indarkeriaren gorakada nabarmen orokortu da».

Zifrak «altuak» direla azaldu dute, baina kontuan hartzeko ohartarazpen bat egin dute: «2022ra arte sexu askatasunaren kontrako delitu ugari ez ziren emakumeen kontrako indarkeriatzat hartzen. Urte horretan, sexu askatasunaren berme integralarik buruzko lege organikoa [Soilik bai da bai deitua] onartuta, indarkeria mota gehiago biltzen ditu emakumeen aurkako indarkeria gisa. Beraz, argi dago indarkeria matxistagatik jarritako salaketen datuak altuagoak izanen lirakeela». Hain zuzen, sexu erasoaren harira, Estatuko Fiskaltza Nagusiak

emandako datuak aipatu nahi izan ditu Leitzaldeko eta Uru-mealdeko teknikariak: «Nafarroan 2022an % 25 gehiago izan ziren sexu askatasunaren aurkako auziak, eta % 94 gehiago sexu erasoak. 16 urtetik beherrakoen aurkako sexu erasoak % 166 igo ziren aurreko urtearekin alderatuta». Perezek eta Albisturrek ere adin ttikiko emakumeen kontrako indarkeria kasuak aipatu dituzte. 18 urtez azpikoen bi salaketa izan ziren 2021ean eskualdean, 2022an lau izan ziren eta, aurten, oraingoz, lau dira. Nafarroan aurten, abuztura arte 96 aurkeztu dituzte, eta 2022an 98 izan ziren: «Agerikoa da datuen larritasuna eta gorakada».

Bai Nafarroan, bai eskualdean, indarkeria fisikoa eta psikikoa dago salaketa gehienengibelean. Eta Baztango eta Bortzirietako teknikarien arabera, «joera horrek baieztatu egiten du indarkeria hori dela gehien identifikatzen eta salatzen dena». Baina arazoa haratago doa: «Horrek fisikoa ez den berteze indarkeria mota bat identifikatzeko eta salatzeke zailtasuna agerian uzten du. Indarkeria bere adierazpen larriekin bakarrik identifikatzen segitzen dugu, alde batera utziz genero

Indarkeria matxistaren salaketak eskualdean

UDALERRIA	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023*	GUZTIRA
BAZTAN	10	1	1	5	4	5	8	6	8	10	3	8	10*	79
BERA	0	1	2	1	1	2	1	0	2	3	8	11	10*	42
LEITZA	2	2	1	2	5	1	2	2	4	4	0	1	2*	28
DONEZTEBE	0	3	0	0	1	0	1	0	3	7	3	2	4*	24
LESAKA	1	5	0	0	2	3	0	1	2	6	1	2	0*	23
BERTIZARANA	0	1	2	1	0	1	0	1	0	1	3	2	4*	16
ETXALAR	0	0	0	0	0	0	0	0	1	2	1	5	1*	10
URDAZUBI	2	0	0	0	1	1	1	1	0	0	1	3	0*	10
GOIZUETA	0	0	0	0	0	1	1	1	0	0	0	0	0*	3
ITUREN	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2	1*	3
ARANO	0	0	1	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0*	2
EZKURRA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1*	1
SUNBILLA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1*	1
GUZTIRA	15	13	7	9	14	15	14	12	20	33	20	36	34*	242

*OHARRA: 2023KO DATUAK IRAILERA BITARTEKOAK DIRA. ITURRIA: NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA / EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ATALA

indarkeria diren bertze indarkeria mota batzuk»

Icebergaren punta baino ez

«Datuak lazgarriak» direlakoan daude Baztango eta Bortzirietako teknikariak, baina ez da hori bakarrik: «genero indarkeriaren larritasuna zifretara mugatzeak arrisku ugari ditu, emakumeok pairatzen ditugun indarkeriak ez dira zifra hutsak, ezin gara hor gelditu».

Bide beretik, «salaketen igorritik indarkeriak gora egin duela baieztatzea zaila da» Pazzen arabera: «Kontzientzia gehiago izateak ere eragina du, indarkeria identifikatzen laguntzen digu, baita salatzen ere». Bere hitzetan, «datuak argi uzten dute arazo sozial bat dela. Indarkeria dagoela argi dago». Horren kontra «neurriak hartzen jarraitzeko beharra» kontatu du, tartean «neurriak diseinatzekoan indarkeriaren forma berriak kontuan hartzea». Gizartea aldatu ahala, «indarkeriaren formak aldatzen» ari dira gaineratu du, eta azken urteotan eremu digitalean gertatzen ari dena paratu du adibidetzat: «Duen forma duela ere, indarkeria guztiak oinarri bera dute».

Gisa berean, «datuak indarkeriaren nondik norakoak eza-gutzeko laguntzen duten arren, salaketenak besterik ez direla» azpimarratu du Pazek: «Bada-kigu indarkeria salaketetatik haratago doala». Uste berekoak dira Bortzirietako eta Baztango teknikariak eta «salatzen dituzten indarkeria kasuak icebergaren punta baino ez direla» erran dute: «Indarkeria kasuak salatzen direnak baino aunitzez gehiago dira». Datuak dira lekuko: «Ikertetek diote salatze-ra ailegaten diren indarkeria kasuak totalaren % 20 bertzerik ez direla, eta aunitz dira salatzea zailtzen duten faktoreak: kulpak, beldurra, dependentsia ekonomiko edo psikologikoa, maitasun erromantikoaren mitoen eragina, herritarren zurrumurruiak eta estigmatizazioak, prozesu judizialaren konple-

Ilbeltzetik irailera 34 salaketa eskualdean

Erasotzaile gehienak 30-49 urte artekoak

- 34 salaketa horietatik hemeretzitan erasotzaileak 30 eta 49 urte bitartekoak izan dira, hau da, kasuen erdia baino gehiagotan. 18 eta 29 urte bitarteko erasotzaileek egindako bederlatzi salaketa aurkeztu dituzte; 50 eta 64 urte bitartekoenak borts izan dira eta 65 urtetik goitikoena bat.

30-49 urte
Erasotzaileen
% 55,9 adin
horretakoa

Batez ere eraso fisikoak eta psikikoak

- Aurkeztutako salaketa gehienetan biktimek eraso fisikoak eta psikikoak salatu dituzte. Hamahiru kasutan biak salatu dituzte. Tratu txar psikikoak jasateagatik bederlatzi salaketa aurkeztu dituzte aurten; urrutze agindua urratzeagatik zortzi izan dira eta sexu erasoak aurten lau lagunek salatu dituzte.

% 38,2
eraso fisikoak
eta psikikoak
jasandakoak

Bikotekideen erasoak

- 34 salaketa horietan, erasoak egungo bikotekideak egindakoak izan direla adierazi dute hamaborts biktimek. Bertze hamabi salaketa bikotekide ohiek egindakoak izan dira; lau bertzelako harremanen bat zutenen aldetik egindakoak eta hiru familiako norbaitek egindakoak.

% 44,1
bikotekidearen-
gandik erasoak
jasan dutenak

30 eta 49 urte bitarteko biktimak

- Salaketen erdia 30 eta 49 urte bitartekoek aurkeztutakoak izan dira, 34tik hamazazpi zehazki. 30 urtez azpiko biktimenak ere ez dira gutti: 18 eta 29 urte bitartekoenak zortzi eta 17 urtez azpikoenak lau. Gainerakoan, 50 eta 64 urte bitarteko biktimen borts salaketa izan dira.

30-49 urte
biktimen erdia
adin tarte
horretakoa

DATUAK BAZTAN, BERTZARANA, BORTZIRIAK, LEITZALDEA, MALERREKA ETA XARETKOAK DIRA. ITURRIA: NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA

xutasunak, informazio gabezia, instituzioen eta jendartearen babes falta...».

Hala, argi utzi nahi izan dute, «emakumeon aurkako indarkeria egiturazko fenomeno dela, eta gizarteko arlo guzietan gertatzen dela: bikote arteko harremanetan, familian, sare sozialetan eta eremu digitalean, besta eremuan, kirolean, komunikabideetan, aisialdian... Egunero elikatzen dugu jarrera matxistak normalizatuz eta diskurtso negazionisten bidez, bakoitzak hartu behar duen ardura hartzen ez dugunean, matxistak ez garelako diogunean».

Kontzientzia goiti, datuak goiti

Leitzaldeko eta Urumealdeko teknikariak Europako iparral-

deko egoera paratu du mahai gainean: «Herrialde horietan berdintasun politiketan oso aurreratuak daude. Hala ere, datuak oso altuak dira». Eta zergatik?: «Alde batetik, aldateten kontrako erresistentziagatik izan daiteke, eta bestetik, zenbat eta kontzientzia maila handiagoa eta berdintasun politika aurreratuagoak izan, errazagoa izan daiteke indarkeria identifikatzea, hortaz hitz egitea eta arreta baliabideetara jotzea».

Hemen ere «berdintasunaren alde azken urteotan aurrerapauso garrantzitsuak» egin direlakoan dago, «baina aldateten aurrean ohikoa izaten dira erresistentziak, are gehiago pribilegioak tartean daude-nean. Diskurtso negazionistak

eta jarrera matxisten normalizazioa, esaterako, gaur egun indar handia hartzen ari dira. Feminismoak lortutako aurrerapenen kontrako erresistentziak dira».

Eskualdean lanean

Arazoa egituraren dagoen arren, Perezen eta Albisturek «instituzioen erantzukizuna ukaezina» dela diote. Eta genero indarkeriaren harira, hutsunea sumatzen dute: «Landa eremu-ko emakumeak hirikoak baino babesgabeago daude, bertzeak bertze, zerbitzuak hiriguneetan zentralizatzen dituztelako». Hortaz, «gure entitate publikoek genero indarkeriaren prebentziorako esfortzu gehigarria egin behar dute». →

«Erasotzaileak kulpa beti zurea dela sentiarazten dizu»

INDARKERIA PSIKOLOGIKOAREN BIKTIMA

Etxean, «ia beti haurren aitzinean» eta «etengabe» tratu txar psikologikoak jasan ditu lekukotasun honetako protagonistak. 40 eta 50 urte bitarteko emakumea da eta «momenturo tentsioan eta bere erreakzioen beldur» ibili izan da. «Jarrera horiek harreman sano batekoak ez zirela» bazezkie arren, hasiera hartan «justifikatzen» zituela onartu du. «Kulpa beti nirea zela» sentitzen zuen, «desastre hutsa» zela pentsatu. Gaur egun, ordea, buelta eman dio eta «barneko lanketa handia» eginda, «ongi» dagoela dio.

Zer eraso jasan dituzu?

Etxean tratu txar psikologikoak jasan ditu, ohikoak izan dira, indarkeria erabiliz, umiliatuz eta mespretxatuz. Berarekin tentsioan bizi nintzen, bere erreakzioen beldur eta beti arretaz jokatu. Gainera, erasotzaileak beti kulpa zurea dela sentiarazten dizu.

Zein egoeratan gertatu dira erasoak?

Ia beti haurren aitzinean. Haurrek inondik inora ikusi behar ez lituzketen egoera hagitz gogorrak normalizatu dituzte.

Noiz konturatu zinen zer ari zen gertatzen?

Beti ohartu naiz jarrera horiek ez zirela harreman sano batekoak, baina neurri batean justifikatu egiten nuen, berak izaera gogorra duelako, erraz lehertzen den horietakoa delako, eta arrazoia izaten ahal zuela pentsatzen nuelako. 'Bai, arrazoi du, desastre hutsa naiz', pentsatzen nuen. Manerak ez zitzaizkidan egokiak iruditzen, baina funtsa bai. Gaur egun, ez bata, ez bertzea ez zaizkit egokiak iruditzen.

Bakarrik sentitu zara edo babesa izan duzu?

Babesa izan dut, bai profesionalena, bai hurbileko jendearena. Baina pausoa norberak eman behar du. Nire ingurukoek ezin zuten ententitu egoera hori alde batera uzteko hainbertze urte behar izatea. Hitzez adieraztea ere aunitz kostatu izan zait, urte aunitzez disimulan ibili naiz.

Kanpoko laguntzaren beharra izan duzu?

Bai, genero indarkeriaren gain espezializatutako psikologo batekin urte aunitzetan ibili naiz.

Gertatutakoa salatu duzu?



FREEPIK

Bai, baina nahiago nuen banantze arrunt bat. Ezinezkoa izan zen. Tratu txarregatik edo emakumeen kontrako indarkeriagatik salaketa prozesua hastea hagitz gogorra da. Presio handia sentitzen duzu, aunitzetan merezi duen edo ez dudatzen duzu. Halako prozesu judizialak izugarri gogorrak dira.

Gaiaz aise solastatzen zara?

Hurbileko eta konfiantza dudan jendearekin arazorik gabe solastatzen naiz, baina niretzat isilpeko gaia da, airatu nahi ez dudana. Uste dut jendeak badakiela edo zer gertatzen den susmatzen duela, baina ez didate galdetzen. Eta ez dut nire bikotekide ohia seinalatu nahi. Neurri batean, gure seme-alabengatik, bere bizitza berregitea gustatuko litzaidake.

Indarkeria matxistaren harira, zer sumatzen duzu inguruan?

Gure inguruko bikoteen artean edo bizilagunen artean zerbait

gertatzen dela susmatzen dugun arren, bertzeen kontu pribatuetan ez dugu sartu nahi izaten. Aditu dudanez, nire egoerari buruz norbaitek 'laguntza eskatzen badit, lagunduko diot, baina bitartean...' erraten zuen. Behar ez den tokian muturra sartzea dela iruditzen zaigu. Gaizki-ulertutako errespētu kontua da.

Zure ustez gizarteak zer daki indarkeria matxistaz?

Muturreko zerbait baillitza ulertzen dute, indarkeria fisikoa dela. Indarkeria psikologikoa sotilagoa da, ikusteko eta ikusarazteko zailagoa. Gainera, aise justifikatzen dugu. Baina ohartu behar dugu norbait jende aitzinean bere bikotekidea umiliatzeko edo mespretxatzeko kapaz baldin bada, zer izanen den atearen bertze aldean.

Gaur egun zer moduz zaudete?

Neure buruarekin barneko lanketa handia egiten ari naiz eta ongi nago, baina salaketa aurkezteagatik errudun sentimenduarekin segitzen dut.

Zer aholku emanen zenuke zure egoera berean dauden emakumeei?

Batez ere, profesional baten laguntza onartzeko. Egoera bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta ez da kasu guztietan berdin jokatzeko. Edozein moduz, bikote harremanean sufritzen ari diren emakume guztiei harreman hori alde batera uzteko erranen nieke.

→ Eta horretan ari dira, «emakumeentzako eta haien senide eta lagunentzako arreta hobetzeko eta profesionalizatze» lanean. Tartean, Baztango, Malerrekako eta Bortzietako profesionalak trebatzeko saioa egin dute bi berdintasun zerbitzuek sustatuta. Eta Baztango Udalak abenduan Baztango Emaztekien Kontrako Indarkeriaren Aitzinean Jarduteko I. Koordinazio Protokoloa sinatuko du.

Kontzientziazio eta sentsibilizazio ekimenekin ere urte osoan ari dira: «lantegiak, preskak, kultur ekintzak, ekimenak institutuaren eta eskoletan, komunikazio kanpainak, mobilizazioak erasoak salatuz, lanketa beste eremuetan neska eta emakumeentzat, LGTBI kolektiboari arreta emateko...». Bide horretan, «mugimendu feministaren eta instituzioen arteko koordinazioa» nabarmendu du: «Beharrezkoa

da emakumeen beharrei erantzun osoa emateko».

Leitzan, Areson, Goizuetan eta Aranoren ere «sentsibilizazio lan handia» egin dute, eta horrez gain, «mugimendu feminista aktibo» izateak «herritarren sentsibilizazioaren eragin duela» esplikatuko du teknikariak.

Gainerakoan, azaroaren 25aren harira, «sentsibilizazio kanpainak eta herrietako eragileekin jarduerak» egiten dituzte, baita indarkeriari ikus-

garritasuna emateko ekimenak ere. «Iaz, adibidez, Leitzako eta Aresoko emakumeei jasan dituzten indarkerien inguruko galdetegia zabaldu genien». Eskolekin, institutuaren eta guraso elkarteekin elkarlanean ere ari dira, baita «emakumeentzako zerbitzuak eta arreta hobetzeko» proiektuekin ere. Helburu horrekin «2020an egoeraren diagnostiko bat egin da, gizarte zerbitzuetan arretarako protokoloa» egin zuten.

«Erasoak ez dira bestan eta ezezagunengandik bakarrik pasatzen»

ZIBERINDARKERIAREN BIKTIMA

«Jasan ditudan eraso matxista guztiak zerrendatzen hasiko banintz, ez nuke inoiz bukatuko». Hala dio 18-25 urte arteko gazte honek, «indarkeria matxista egunero» jasaten duela. Bertzeak bertze, ziberindarkeriaren biktima izan da eta bidean feminismoak eman dion indarra nabarmendu du. Feminismoari esker, «hagitz ahaldunduta eta indarkeria matxista ororen kontra erantzuteko prest» ikusten du bere burua.

Indarkeria matxistari lotuta zer bizipen izan dituzu?

Nire bizitza labur honetan jasan ditudan eraso matxista guztiak zerrendatzen hasiko banintz, badakit ez nukeela inoiz zerrenda idaztetik bukatuko. Feminismoa bizitzeko eta munduan egoteko era bat da niretzat eta orain arte aunitz ikasi eta hartu dudana arren, ziur naiz oraindik identifikatzeko gai ez naizen hainbertze eraso egoera izan ditudala. Indarkeria matxista gure eguneroko ohiko bizipenetan edo bizipen sotilenean pairatzen dugu, nahiz eta identifikatzeko gai ez izan. Emakume izanik karrikan zoazela x eraso izan dezakezula jakinez

bititzea indarkeria da; bestan eskuak ipurdian dituzula ibili behar izatea indarkeria da; bezeroek emakume izateagatik edozein gauza erran diezaketela sentitzea indarkeria da; eta indarkeria da nik eskatu gabe mutil batek bere zakilaren argazkia bidaltzea; azken horretan zentratuko naiz.

Zein egoeratan gertatu zen?

Indarkeria matxista egunero jasaten dut, eta hala izan zen lehenbizikoz zakil baten argazkia hartu nuenean, etxean eta ernatu berritan. Beraz, erasoak ez dira bestan eta ezezagunengandik bakarrik gertatzen.

Momentuan ohartu zinen gertatutakoa zer zen?

Urte parrasta daramatzat feminismoan eta horri esker, bideoa ireki orduko, aski garbi nuen erasoak pairatzen ari nintzela, eta bertze aldean zegoen mutila erasotzaile bat zela. Ez dira ekintza isolatuak, erasotzaileak dira eta kito. Jakin eta onartuko bagenu inguruan zenbat eta zenbat erasotzaile ditugun, desberdin izanen litzateke.

Noiz erran zenuen «aski da»?

Eta erran ez banu?

Babesa sentitu duzu?



FREEPIK

Bai, eta argi dut nire inguruan feminista izan ez balitz, ez nukeela babesa modu eta neurri berean hartuko.

Kanpoko laguntza izan duzu?

Feminismoari esker ezagutu dudana jendea eta eraiki ditudan harremanei esker banekien norbaiti kontaktuta ez nintzela epaitua izanen, eta aunitzez ere lasaiago eta babestuago sentituko nintzela norbaitekin partekatuz gero. Beraz, nire inguruarengana jo nuen.

Salaketarik aurkeztu duzu?

Bai, saiatu nintzen, baina Foruzaingoak aski garbi erran zidan «salaketa bat paratzeko ez zela nahikoa». Beraz, talde feministen teknikiarekin elkartu ondotik, ziberjazarpenaren inguruko lanketa egitea adostu genuen, baita salaketa publiko egitea ere. Ziur nago bertze bidea aukeratu izan banu baino aunitzez erosoago eta babestuago sentitu nintzela horrela.

Gaiaz lasai aritzen zara?

Egunetik egunera gero eta ahaldunduago ikusten dut neure burua feminismoari dagokionez, eta horrek gertatutakoaz solas egitea zein publikoki salatzea ahalbidetzen dit.

Gaiaren inguruan kontzientzia gehiago dagoela iduri du, baina indarkeria matxistak hor segitzen du...

Gero eta kontzientzia gehiago dagoela erraten dugunean, jendeak indarkeria mota nabarmenak detektatzen dituela erran nahi dugu. Guztiok dakigu norbait bortxatzea indarkeria matxista dela edo emakume bat erailtzen dutenean indarkeria matxista dela, baina benetak aldaketa nahi badugu, eraldaketa gauza ttikienetan egin behar da, eta gizartearen hein handi bat ez dago horrek ekarriko lukeen deserosotasuna eta lanketa bere gain hartzeko prest. Gehienek erosotasunaren bidea hartzen dute. Nire inguruan matxismoak lehenbiziko lerroan segitzen du, jendea, orokorrean, hagitz matxista da, baina hori baino adierazgarriagoa iruditzen zait, horren kontra gero eta neska* zein emakume* gehiago ari direla ikustea, horrek indar eta itxaropen handia ematen dit.

Zer aholkatuko zenuke?

Ez zait aholkulari lanetan aritzeko gaia iduri. Bertzerik gabe, feminismoan murgildu eta bizitza duinagoak izateko borrokatzera animatu nahi zaituztet.

«Tokiko koordinazio protokolo bat ere egin genuen, erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko»; Pazten ustez, «birbiktimizazioa saihesteko eta kalitateko arreta eskaintzeko koordinazioa hobetzea eta elkarlana ezinbestekoak baitira». Goizuetan eta Leitzan, festa giroan gertatzen diren erasoen prebentziorako eta horiei erantzuteko protokoloak eta trebakuntzak ere egin dituzte herriko eragileekin eta «oso baliagarriak» izan dira.

Gobernuaren zerbitzuak eskura

Nafarroako Gobernuak ere baditu baliabideak. Batetik, urtarrilean sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei 24 orduz arreta integrala emateko zentroa irekiko du Arrosadian (Iruñea), presentzialki nahiz telematikoki artatzeko. Hama sei urtetik goitiko emakumeentzako izanen da, indarkeria duela gutti edota iraganean jasan dutenentzat, salaketa aurkeztua izan edo ez.

Bertzetik, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei osoko arreta emateko zerbitzua (EAIV-BAIT) martxan du gobernuak. Salaketa aurkeztu edo ez, indarkeria jasaten duen edo jasateko arriskuan dauden emakumeei eta haien inguruko laguntzako zerbitzua da.

Ikusten baduzu, geldiarazi

Egoeraren larritasuna agerikoa da, eta indarkeria matxista desagertzea «guztion ardura»

dela azpimarratu nahi izan du Pazek. Horretarako «guztion inplikazioa eta konpromisoa» eskatu dute hiru teknikariek, eta gaineratu dutenez, baita «gizonen inplikazio aktiboa» ere. «Normalizatuak ditugun begirada eta jokabide matxistak identifikatu eta alde batera utzi behar ditugu, eta inguruan identifikatzen ditugun jarrera matxistak seinatu eta aldarazi: Ikusten duzu? Geldi ezazu!»

«Familiakoek eta lagunek ohartarazi arren, beti aitzakiak paratzen nituen»

BIKOTEKIDEARENGANDIK INDARKERIA PSIKOLOGIKOA, FISIKOA ETA SEXUALA JASAN DUEN EMAKUMEA

«Zulo handi batean, autoestimua lurrazpian, lur jota, umiliatua, babesgabe, gertatutakoaren errudun...». Hala sentitu izan da aitorten gogor honetako protagonista. Bikotekidearengandik indarkeria psikologikoa, fisikoa eta sexuala jasan duen 40 eta 50 urte bitarteko emakumea da eta onartu du halako «pentsamenduak eta sentimenduak alde batera uztea eta bizitza bideratzea gogorra eta zaila» dela. Garbi du: «Estatuaren indarkeria da hau eta sistemak ahotsik gabe nahi gaitu».

Zer indarkeria jasan duzu?

Emozionalki, fisikoki eta sexualki eraso didate. Indarkeria emozionala edota psikologikoa hagitz sotila da: umorearen bidez, zure iritzia balio gabetuz, zeure buruaz duda eginez, hagitz tiki sentiaraziz, zure gustuak edo zure nortasuna gutxietsiz, jende aitzinean eta eremu pribatuan mesprextatuz... Nire kasuan, ondotik, oihuak etorri ziren, barkamen eskeak, 'barkatu, zu gabe ezin dut bizi'. Eta maite duzunaren maitasuna berreskuratzeko eta berriz ere baloratua sentitzeko adikzioa sortzen da, lur jota uzten zaituen menpekotasuna. Indarkeria psikologikoa gurpil moduko bat da, eta hortik ateratzea zaila da. Horixe da nire istorioa, eta autoestimua lur azpian nuenean, emozionalki zutik mantentzeko eta baloratua sentitzeko bere afektuaren menpe nengoenean, nolabait errateko, bere esku nengoenean, utzi egin ninduen, gure artekok ez zuela funtzionatzen erranez, errua nirea zela. Hala, kolpeak etorri ziren, eta berak ni jotzea ere nire errua zela sentitzen nuen... Momentu horietan hagitz ahul sentitzen



FREEPIK

zara, zauritutako animalia bat bezala, noraezean, eta ez duzu aterabiderik ikusten. Izu-atakeak ere izan nituen. Berarengana ere joan nintzen, bere babesa, afektua eta onarpena behar bainituen. Laguntza eskatu nion, baina fisikoki eta emozionalki hain jota nengoe-la probestuz, sexualki eraso zidan. Lasaigarriak hartuak nituen eta ez nintzen neure buruaren jabe. Bere besarkada baino ez nuen behar. Berak, ordea, eraso egiteko eta nire gorputzarekin sexu harremanak izateko probestu zuen. Nire gorputzarekin diot, neure burua ez zegoelako presente.

Noiz ohartu zinen zer egin zizun?

Indarkeriaren prozesua hagitz *kapritxosoa* da. Azken urteotan izan ditudan bikotekideekin hori bizi izan dut. Dagoeneko 20 urte pasatu dira eta ohartzen naiz, baina gure traumak eta zauriak hor ditugu eta ia normalizatua dugu. Gainera, ohartu arren, aldatuko dela, maite zaituela eta bera ere ohartuko dela sinetsarazten diozu zeure buruari. Sinesten ditugun maitasun erromantikoaren mitoak dira. Familiakoek eta lagunek ere ohartarazten dizute, baina beti paratzen dituzu aitzakiak.

Gainera, eraso fisikoekin eta sexuarekin izugarrizko lotsa sentitzen nuen, eta nire kulpa zela sinetsarazten nion neure buruari. Lagunek gertatzen ari zenari izena paratzen zioten, baina nik denbora behar izan nuen onartzeko. Egoera horiek bizitzea hagitz umiliagarria da. Trapu zahar bat bezala sentitzen zara. Gainera, kulpa zurea dela sentiarazten dizu, zuk probokatu duzula. Pentsamendu eta sentimendu horiek alde batera uztea eta bizitza bideratzea hagitz gogorra eta zaila da.

Bakarrik sentitu zara?

Bai, aunitzetan: aterabiderik gabe, seme-alabekin bakarrik nola eginen nuen aitzinera, beldurrak... Blokeatuta gelditzen zara, baina bizitzarekin aitzinera segitu behar duzu: seme-alabak, lana... Aldi berean, hurbileko jendearen babesa sentitu dut, eta lagun du didaten pertsonengana eta tokietara eramanez. Bertzetik, bion lagunak aldetik

«JENDEAK EZ DU IDEIARIK ERE ZER DEN INDARKERIA MATXISTA»

baztertua sentitu naiz, ez dute nire historia sinetsi nahi eta hori hagitz mingarria da. Hurbileko norbait erasotzailea dela onartzea hagitz zaila da, eta aldiz, emakumeak gaiztoak garelako sinestea hagitz erraza. Hori horrela izan dadin antolatua dago dena, estereotipoek kalte handia egiten digute.

Kanpoko laguntza behar zara?

Bai, kanpoko laguntza handia behar izan dut: psikologoena, liburuena, hitzez hitz ohatzetik ateratzera etorri diren eta begiak ireki dizkidaten lagunena, terapeuta, familiarena... Batzuetan lasaigarri bat edo bertze ere hartu izan dut.

Salaketarik aurkeztu duzu? Ez.

Indarkeria matxistari lotuta, zer ikusten duzu inguruan?

Jendeak gaia leundu nahi izaten du, erran bezala, zaila baita inguruko norbait horrelako zerbait egiteko kapaz dela onartzea. Jendeak bikote arteko kontuak direla erraten du, baina gaiak argi eta garbi aritzea, izenak, puntuak, komak, ñabardurak eta egiak mahai ganean paratzea kostatzen da.

Gizarteak badaki zer den indarkeria matxista?

Ez du ideiarik ere zer den. Hau patriarkatuaren prozesu luze bat da, indarkeria patriarkatua da, eta erasotzaileak sistema horren baitan heziak izan dira. Baina horrek ez du gure kontra erabiltzen duten indarkeria justifikatzen. Hau estatuaren indarkeria da, zerbaitetik ez dira ari behar bezala. Gizarte biolentzia eta zigortua izateko interesak daude. Sistemak zaurituak, zaurgarri, menpeko eta ahotsik gabe nahi gaitu, berdintasunaren, konpartitzearen eta maitasunaren bidean borrokarik egin ez dezagun.

Zer aholkatuko zenieke zure egoeran daudenei?

Bakarrik ez egoteko eta egoera latz horretatik ateratzeko gertatu zaiena partekatzeko.

«Haurdunaldiak argitu zidan egun hartan zer pasatu zen»

SUMISIO KIMIKO BIDEZ SEXU INDARKERIAREN BIKTIMA

«Ukituak, begiradak, ahozko komentarioak, bortxaketa...». Indarkiera mota aunitzen biktima izan da 40 eta 50 urte bitarteko bertze emakume aunitz bezala. Egunerokoa «etxean, lanean edota *matxote* kuadrillean elkarriketa higuigarriak aditu eta aguantatu» ditu, eta sumisio kimiko bidezko sexu eraso batetik biziraun du.

Zer eraso jasan dituzu?

Bortxatu ninduten, ttikitatik gurasoen laguna zen gizon batek titi muturrak ukitzen zizkidan, besta guneetan ipurdi ukitzeak eta *babosoak* aguantatu behar izan ditut, baita begirada eta ahozko mespretxuak ere, objektu sexual sentitzeraino. Egunerokotasunean, etxean, lanean edota edozein *matxote* kuadrillean elkarriketa higuigarriak aditu eta aguantatu behar izatea ere tokatu zait.

Zein egoeratan gertatu zen sexu indarkeria?

Mutil ezagunen artean, betiko ostatu batean. Bolada nekagarria neraman eta astegunez lasaitzera ateran nintzen. Ezagun horietako batek bere etxera gonbidatu ninduen ostatua ixtera zihoalakoan, eta onartu nuen. Gurekin bertze mutil bat etorri zen. Bat-batean mutil horren etxean gaizki sentitzen hasi nintzen, inoiz ez bezala. Ezinezkoa zen bi kalimotxoren ondorioa izatea. Ez nuen ulertzen zer gertatzen zitzaidan, ezin zutik egon, goitika egiten... Ez naiz sekula hain gaizki sentitu. Mutil horiek laguntzen ari zirenen itxura egin zuten, baina ezongi eta inkontziente nengoela probestu zuten. Nire subkontzientziak bazekien zerbait txarra gertatu zela, baina zer ez. Denbora pasatu eta haurdunaldiak argitu zidan egun hartan pasatutakoa.



FREEPIK

Beraz, gerora ohartu zinen...

Bai. Inondik inora ez nuen halakorik espero. Ez nintzen deusez ohartu. Nirekin eta nire gorputzarekin nahi zutena egin zuten, arima urratuz, eta nire gorputzaren memorian tatuatuz.

Nola sentitu zinen?

Hasieran ezin sinetsi eta ulertu gelditu nintzen, *shock* egoeran. Ondotik, lotsa, kulpaa, beldurra, nazka... Ez nekien zer egin gertatzen ari zenarekin eta sentitzen ari nintzenarekin. Blokeatuta baina neure buruarekin aitzinera egiteko gai izanzen nintzelakoan, ez nuen deus kontatu, hurbileko pertsona pare bati baino ez, eta horiei ere behartuta, laguntza beharko nuelako EAera joateko haurdunaldia etetera. Nafarroan ez baitzuten egiten. Babesik handiena etxe-koek eta egiazko lagunek eman didate, kontatzen hasi nintzenean. Gaizki pasatu dut, barrenean zama, eta korapilatzen ari zitzaidan emozio eta amorruekin, mozkortzen nintzenean batzuetan ezezagunekin edo 'lagun' ezagunekin negar malcoen artean libratzen nintzen, jakin gabe horrek zer ondorio ekarriko zituen. Eta min handia egin zidaten, jendeak nirekin kontatu gabe gauzak egin eta solas egin zuelako.

Kanpoko laguntza behar izan duzu?

Laguntza osoa aunitzetan gutti da. Egia da lehenbiziko norberak onartu behar duela zer behar duen. Baina pistak kanpotik eman daitezke, eta gehienbat ondotik, beti ere pertsona egokiek topo egiten baduzu. Lagunak eta profesionalak betiko izanzen ditut nirekin, ni zaintzeko eta indartzeko prozesuan nirekin egon direnak. Tresna aunitz eman eta erakutsi dizkirate, eta badakite eurekin beti eskertua egonen naizela.

Salaketarik aurkeztu duzu?

Ez. Halakoetan, ez duzu salaketa paratzeko indarrik. Hautsita zaude eta prozesu mingarria eta gogorra da.

Gertatutakoa lasai kontatzen duzu?

Gaur egun, kontakizun bat bezala kontatzeko gai naiz, emozionalki beti mugiarazten dizu eta aunitzetan ez dakizu kontatu edo ez, bertzeak nola hartuko duen kezkarrekin. Ino-

«BABES ETA KONFIANTZA FALTAK EZ DIGU LAGUNTZEN»

ri ez zaigu epaitua izatea gusatzen.

Indarkeria matxistari lotuta, zer ikusten duzu inguruan?

Oraindik lan aunitz dagoelako egiteko: bai informazioari dagokionez, bai gure testigantzak sinesteari dagokionez... Babes eta konfiantza faltak ez digu laguntzen. Indarkeria matxistaz solastatu naizen hamar emakumetik bederatzik zerbait pasatua du. Oilo larrua jartzen zait isiltasunean hau dena aguantatzea normalizat hartua dugula ikusita. Kasu guztiak desberdinak dira, pertsona bera ez da berdina; eta bakoitzak bere denbora behar du, bere beharrak ditu, eta elkar errespeta dezagun.

Zer gabezia ikusten dituzu?

Nire kasuan, gaiarekin lehenbiziko hurbiltasuna izan nuenean, 20 urte nituen eta garai hartan osasun publikoan izan nuen psikologoak aunitz lagundu zidan nengoen tokitik ateratzen. Gerora, sexu indarkeriaren denboran, ez nuen suerte hori izan eta hagitz galduta ibili nintzen erakundeekin. Beraz, gaia nire kontura landu behar izan nuen eta lantzen segitzen dut egunerokotasunari eusteko. Aipatu nahi dut komunikabideek ez digutela laguntzen, morboa sortzen dutelako. Errespetu falta sentitzen dut, portzentajeak garelako, bertzerik ez.

Orain zer moduz zaude?

Ongi sentitzen naiz, indartua eta bizitzeko gogoz, heldu diren gazi-gozo eta kolore guztiekin.

Zer aholku emanen zenieke zure egoeran daudenei?

Zaila da aholkatzea... Kasu bakoitza bakarra eta norberarena da. Nik ez bezala, etxean edo konfiantzazko norbaiti ahal den agudoen kontatzeko erranen nioke, lehenbailehen libratzeko. Horrela hasten da sendatzen eta norberaren nia birbiltzen.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Denok hurbiltasuna inoiz baino gehiago behar dugula, elkarrekin dena errazagoa delako.

Udalean hartu behar dira aparkatzeko bereizgarriak

Azaroaren 15etik aitzinera herriko etxeko bulegoko ordutegian hartu beharko da aparkatzeko bereizgarri berdea

A. LARRETXEA

2020ko irailetik Kanttonberri karrikan eta Toki Ona institutu parean egoiliarrentzako gordetako aparkalekuak daude berdez pintatuak. Heldu den bi urtetan horietan aparkatu ahal izateko bereizgarri berdeak azaroaren 15etik aitzinera hartu beharko dira Herriko Etxeko bulegoan.

Egoiliarrentzako aparkalekuak herritarrek zein Zalain Zoko eta Alkaiaga auzoetako bizilagunek erabili ditzakete. Udalak auto horiek identifikatzeko bereizgarri berdeak banatzen ditu eta bereizgarria banakakoa eta besterenezina da. Auto bakoitzeko bereizgarri bakarra banatuko dute.

Herriko Etxean hartu beharko dira, 08:30etik 13:30era eta hartzean jasotze agiria sinatu beharko da. Ordutegi horretan bulegora joaterik ez dutenek baimena eman diezaiokete bertze bati jasotzeko. Hirugarren horrek baimen sinatua eman beharko du, eta bertan eskatzailearen izena eta abizenak, NANA eta ibilgailuaren matrikula jaso beharko ditu,

baita jasotzeko baimena duen pertsonaren izena eta abizena eta NANA ere. Gainera, eskatzailearen NANaren kopia aurkeztu beharko du, paperean edo mugikorrean, eta jasotze agiria sinatu beharko du.

Bereizgarriak entregatzen diren unetik aitzinera izanen dira baliozkoak, eta une horretan bertan paratu beharko dira zaharraren orde. 2022-2023 urteetako bereizgarri zaharrek, abenduaren 31n galduko dute balioa.

Zalain Zokokoak eta Alkaiagakoak abenduan

Irailaren 20an egindako plenoan trafikoari eta mugikortasunari buruzko ordenantza aldatu zuen udalak, eta ondorioz, Alkaiagako eta Zalain Zokoko auzotarrek egoiliarren aparkaleku txartela hartzeko eskubidea dute.

Ordenantza oraindik ez dago indarrean, eta abendu erdialdetik aitzinera izanen dute bi auzo horietako bizilagunek itsasgarria hartzeko aukera. Data zehaztean jakinaraziko dute.



Mugara estudioak Legardan egindako Sanz-Serrano etxebizitza. AITOR ORTIZ

Mugara Arkitektura bulegoa saritu dute Peña Ganchegui sarietan

A. LARRETXEA

Ander Rodriguez Korta arkitekto beratarren Mugara Arkitektura bulegoak ohorezko aipamen bat jaso du 2023ko Peña Ganchegui Euskal Arkitektura Gazte Sarietan.

Errealitatea ikusteko duen modu partikularra, soluzioen aniztasun zein berezitasuna

eta bere proposamenen auzardia nabarmendu ditu epaimahaiak.

Mugara Arkitekturaren lana erakusgai egonen da Donostian, Euskadiko Arkitektura Institutuan. Azaroaren 2an paratu zuten ikusgai eta abenduaren 3ra arte ikusten ahalko da.

N-121-A errepideko lanen inguruan bilera egingen dute azaroaren 16an

A. LARRETXEA

N-121-A errepidea 2+1 bihurtzeko lanak egiten ari da azken hilabeteetan Nafarroako Gobernua. Oronoz-Mugairik Sunbillarako IV. zatia bukatuta, Nafarroako Gobernua Sunbillatik Enderlatsarainoko bigarren proiektua idazten hasi

da, eta horren inguruan informazio eman nahi die herritarrei udalak. Bileran, proiektuaren inguruan jasotako informazioa eta udalak egingen dituen alegazioak azalduko dituzte eta herritarren iritzia jaso nahi dute. Azaroaren 16an izanen da 18:30ean Kultur Etxean.



Gure kontsultan honako patologiak aztertuko ditugu:

- Lixeriketa aparatuko patologiak
- Gihar patologiak
- Neurologiak patologiak
- Arnas aparatuko patologiak
- Ginekologia patologiak
- Giltzurrun eta gernu aparatuen patologiak
- Zirkulazio eta endokrino patologiak

Erabiltzen ditugun terapiak:

- Osteopatia
- Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
- Akupuntura
- Fitoterapia Txinatarra
- Reiki...

Salis Hiribidea, 24 - IRUN

639 955 324

www.fernandocelaya.com

Aurkeztu dute BixtuBera herriko energia kooperatiba

Kooperatiba 29 bazkiderekin abiatu da eta urte bukaerarako 100 bazkide lortzeko helburua paratu dute

A. LARRETXEA

BixtuBera energia komunitatea aurkeztu zuten urriaren 26an Kultur Etxean. Sei hilabetez partaidetza prozesua egin dute herritarrek udalak sustatuta, Elhuyarren eta Goienerren laguntzarekin. Kooperatiba forma hartu du Energia Berriztagarrien Komunitateak, eta herritarrek izanen dute gidaritza.

Ekitaldian kooperatibaren parte diren hainbat herritarrek parte hartu zuten. Ainhoa Lanz lehendakariak, Esteban Agirre udaleko zinegotziak, Clara Rouget komunikazio taldeko kideak eta Jokin Iturria proiektu-taldeko kideak. Logo lehiaketa irabazi duen Enara Jorajuriari saria eman zioten ekitaldi berean.

Bazkide izateko 60 euroko ekarpen bakar bat egin behar-



Kooperatibaren sortzaileak. UTZITAKOIA

ko da, aldi bakar batean edo lau alditan ordaintzekoa. Izena emateko eta informazio gehiago biltzeko webgunea ere martxan jarri dute, bixtubera.eus helbidean, eta e-mail bat ere zabaldu dute: info@bixtubera.eus. Herriko dendetan zabalduko dituzten orrietan ere eman ahal izanen da izena.

29 bazkiderekin hasi dute bidea, eta asmoa urte bukaerarako 100 bazkide izatea da.

Maiatzeko uholdeetan kaltetutako pistak moldatzeko lanak esleitu ditu udalak

A. LARRETXEA

Maiatzaren 20an uholde larria izan zen eta uholdeak eragindako kalteak konpontzeko lanean ari da udala. Abendura bitartean, baserri auzoetako pistak moldatuko dituzte, Nafarroako Gobernuak moldaketa horiek larrialdi gisa izendatu baititu. Dirulaguntza bidez finantzatuko dira, eta 191.013,01 euroko kostua izanen dute. Hauek dira moldatuko dituztenak. Suspelttikin; Eguriko bidea, Mitxeoren bordatik goiti doana eta Age-ratik Suspelttikira doana;



Eguriko bidea, Suspelttikin.

Eltzaurdian Larratzen bordarako; Zian Peñabordarako bidea; Kaulerako bidea; Garaitarretan Uxanen Zia erre-karen ondokoa eta Zalainen Mandanikiko bordakoa.

Kinto besta azaroaren 25ean ospatuko dute

Dagoeneko hasiak dira kinto besta antolatzen. Azaroko ortziraletan pintxo pote bereziak eginen dituzte, eltzetsuak paratu dituzte dirua biltzeko eta egunean berean euro bat ordainduko dute bazkaltiarrek. Kinto egunean txaranga ibiliko da karrizak karrizara.

Juan Luis Irazoki entrenatzailea saritu dute

Gure Txokoako jubenilen entrenatzaile Juan Luis Irazoki saritu dute Gipuzkoako Entrenatzaileen galan iazko denboraldiko lanagatik. Gure Txokoako jubenilak Gipuzkoako gorengoen mailako txapelkun izan ziren eta ohorezko mailara igotzea lortu zuten.

JATONE - LOXOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Alizato, 21 • BERA

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Eramateko janaria astelehenetik ortziralerara
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Manterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

SMAZIZIOR
edariak
BERA
SILVIA MAZIZIOR S.L.
Pol. Ind. Alkaiaga, C. Ziobi, 1, LESAKA
Tel: +34 948 63 15 57
+34 676 05 16 60
maziziorsenper@gmail.com

NAHI AL DUZU SORTA BAT EROSI EDO ZURE GUSTURA EGIN?
Enpresendako eta partikularrendako



Eskoletako ikasle, guraso eta irakasleen taldeko argazkia plazan. UTZITAKOA

Bortzirietako herri eskolen besta arrakastatsua

800 bat lagun bildu ziren Irain eskolako Guraso Elkarteak lehen aldiz antolatutako ospakizunean

AITOR AROTZENA

Bortzirietako herri eskola publikoen bestaren lehenbiziko edizioa ospatu zuten urriaren 28an, Irain eskolako Guraso Elkarteak antolatua, Balorazio hagitz ona egin zuten, Bortzirietako 800 bat lagun bildu baitziren bortz herrietako eskola komunitateak elkartuz. Irainekoekin batera, Berako Ricardo Baroja, Etxalarko Landagain eta Arantza eta Igantziko ikasle, irakasle eta gurasoak ere etorri ziren, baita bortz herrietako alkateak ere. Has-teko, Harriondoa atarian bildu ziren eta bertan egin zen

Paola Oskoz Irain eskolako ikasle ohiak gidatutako harre-ra ekitaldia. Herrietako eskola publikoen garrantzia azpimarratu zuen eta, ondotik, Irain eskolako seigarren mailako ikasleek bertsoak kantatu zituzten eta ekitaldira joan ziren alkateekin argazkiak atera zituzten. Handik abiatu eta trikitilarien musikarekin karririkaz karririka ibili ziren, han eta hemen dantza saioak eskainiz. Plazara ailegatutakoan, talde argazkia atera zuten eta bertsoak, tailerrak eta jolasak izan zituzten, baita DJ Xaiboren musika ere.



AITOR AROTZENA

San Fermin elkarteak omenduak

Aurten 90 urte (Modesto Barroso, Elvira Etxarte eta Juan Mikelarena) eta 85 urte bete dituzten bertze dozena bat bazkide omendu zituen San Fermin elkarteak urriaren 28ko ospakizunean. Jaione Telletxeak aureskua dantzatu zien Alondegiko atarian eta alkateak ere solas batzuk egin zituen.



UTZITAKOA

Realzaleen mus txapelketa

Lesakako Realzalik peñaren bigarren urteurreneko mus txapelketan 20 bikotek hartu zuen parte urriaren 31n. Irabazleak Igantziko Unai Telletxea eta Jorge Agirre izan ziren, finalean Beñat Konde eta Mikel Leitzari irabazita. Ekaitz Badiola eta Joseba Etxarte hirugarren izan ziren.

Herencias y Gestión



Zuregandik hurbil gaude



Mugaz gaindiko herentzien onarpena



Gizarte segurantzian pensioen eskaera



Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com

Lesakako Feriak

Azaroak 22-23



Feria eguneko ordutegia
10.00-13.30

T. 948 627 583
Ametxea 20, Behea
LESAKA

Azienda onenak plazana!

Bortzirietako azienarik onenak berriz ere lehian izanen dira Lesakako plazan azaroaren 23an, baina ez da feriak ekarriko duen ekitaldi bakarra. Ohi bezala, bezperan hasiko dira ajoarriero lehiaketa eta trikitixa musika doinuekin. Egun handian, azien den er-

kustaldiaz gain, artisauek eta herri kirolak ikusteko eta Julio Soto eta Uxue Alberdi bertso-lariak aditzeko aukera izanen da plaza inguruan goizean. Lehiaketako sariak banatu eta bazkaldu ondotik, arratsaldean pilota partidak eta dantzaldia ere izanen dute.

LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

GOZATU
LESAKAKO FERIAK!

Iturrumugiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (NA)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklina.es
@liderahortzklina

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
 - Zerbitzu fiskalak
 - Lan-aholkularitza
 - Aholkularitza juridikoa
 - Herentzia eta Testamentuak
 - Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
 - Datuen babesa
 - Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)
- www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Bazanberr plaza, 6 Ertegarra pasealekua, 22-1 Eliza Kalea, 22 Eltzeta, 20
31700 ELIZONDO 31780 BERA 31740 DONEZTEBE 31770 Lesaka
T. 948 581 300 - F. 948 580 648 T. 948 631 108 T. 948 450 395 - F. 948 451 304 T. 948 638 077

kattagorria
EUSKAL JANTZIAK
KOLEKZIO BERRIA

FERIETAN EGUN OSOAN ZABALIK

BEHEKO PLAZA 10, LESAKA - 948 627 614
WWW.KATTAGORRIA.COM



TALLERES FRAIN
LESAKA • Tel.: 948 637 525

Ongi pasa feriak!



KAGU LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBK EGINAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARRIAK, ALDIZKARRIAK



Ongi pasa feriak!

MARKA GUZTIEN KONPONKETA
MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • TXAPA • PINTURA
Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05
e-mail: zoansa@zoansa.com
Banarta, 2 • Alkaiaga Ind. • 31789 LESAKA (Nafarroa)

SAN FERMIN OSTATUA
Ongi pasa feriak!

Plater konbinatuak
Eguneko menua
Asteburuko menua

Asteburuetan
gavetako 12ak arte

Beheko plaza, 9 Lesaka
948 62 75 12



«Herria bizirik mantentzeko beharrezkoak dira zerbitzuak»

GUREKIN Lesakako Zerbitzuen Elkarte

Izen eta irudi berriarekin, indarberriturik ageri da Lesakako Zerbitzuen Elkarte. Gurekin izena paratu diote eta aldaketa hauetaz, gaur egungo egoeraz eta etorkizuneko erronkaz mintzatu zaizkigu elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak. Gaur egun Ainhoa Ordokik (Ordoki altzari denda), Naiara Alberrok (Intzuri optika), Asier Etxepetelekuk (Arrano ostatua), Iñaki Portuk (Iñaki janari denda) eta Maite

Marinek (Amura ileapaindegia) osatzen dute batzordea. Beraien erranetan, «Beharrezkoa ikusten genuen elkarteari identitatea eta izaera emateko izen bat jartzea. Horretarako Maddi Ane Txopere-nari laguntza eskatu genion eta zenbait proposamen egin zizkigun. Gurekin izan da aukeratu dugun izena. Ekin horrek lanari ekin, biderei ekin, Ekintzaitelza adierazten du. Logotipoa ere eguneratu egin dugu, buelta bat eman

E D A R I A K

Ongi pasa feriak!

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
info@tabernaedariak.eus
www.tabernaedariak.eus

Ainhoa Altzuguren Mitxelena Ongi pasa feriak!

Abokatutza orokorrean
Herentziak
Alokalirak
Arazo administratiboak

Zerbitzu euskaraz ematen dit.
Delta hiltzordua hartzeko.

Legia 42, BERA
M. 630 97 21 89
ainhoaltzuguren@gmail.com



eta G batean bihurtuz betiko kiribila».

Malmö ilustrazioa&diseinua izan dira horretan lanean aritu direnak». Plaza ondoko murala ere berritzen ari dira, esaldi biribil batekin: «Komertzio ttikia, zuk egiten duzu haundi». Izan ere, «herria bizirik mantentzeko, beharrezkoak dira zerbitzuak eta komertzioak» diote argi eta garbi. Honekin bertan kontsumitzearen garrantzia goraiatu nahi dugu. Tokiko ekonomia sustatzen dugulako, jasangarriagoa delako

bertan erostea, kalitatea eskaintzen dugulako, tratu pertsonala ematen dugulako eta bizilagunak eta ausartak garelako. Muralaren ideia eta diseinua Malmö ilustrazioa&diseinuaren eskuetan utzi dugu. Logo berria irudikatu dutegure esaldiarekin batera. Eskua eta lorearekin, loraldi bat irudikatuz. Jendearen laguntzarekin lortzen delako haztea». Orokorrean Lesakako zerbitzu eta komertzioak mantentzen direla uste dute, baina beti daude gabeziak eta hoiak betetzeko ekintzailletza bultzatzea garrantzitsua da».

2007an sortu zen elkarte, 40 kiderekin, eta «urte hauetan batzuk sartu eta bertzeak ateri egin diren arren, gaur egun 33 komertzio, zerbitzu eta ostalarirekin mantentzen gara. Hemendik, elkartean ez daudenei gurekin bat egitera gonbitea luzatu nahi

«33 komertzio eta zerbitzu daude elkartean, baina ateak zabalik daude»

genieke, ateak zabalik daude». Aitzinera begira, tarteka egiten dituzten kanpaina eta ekitaldiekin segitzeko asmoa dute: «Fideltasuna saritzeko zozketak antolatzen

ditugu eta bertan erosten jarraitzeko kanpaina ttikiak. Azokak ere antolatzen ditugu elkarteko partaideekin, eguberrietan, udaberrian. Aurten abenduaren 3an ospatuko dugu Eguberrietako azoka».

IÑAKI JANARIDENDA

- ONGI PASA FERIAK -

Arretxea. 12 • LESAKA • 948 638 287

ARRANO
ostatua

Albistur 13, Lesaka. 948 627 597

KROKETAK, PINTXOAK, BOKATAK,
ENTSALADAK, PLATER KONBINATUAK
ta giro bikaina

PRESO TA IHESLARIAK ETXERA!

-Estetika
-Hialuronikoa
-Protesiak
-Endodontziak
-Implanteak
-Hortz zuritzeak
...



Betiko lekuan eta betiko moduan jarraitzen dugu!

948637282/
943623997

Antoiu kalea, 7, Lesaka
Aldapeta kalea, 2, 2.B, Iruñe

txepetxa
ALBAITARITZA KONTSULTA
CONSULTORIO VETERINARIO

Raquel eta Adriana
zuek laguntzeko gogozi!

- ALBAITARITZA ZERBITZUAK:
txertoak, desparasitazioak, kontsultak, kirurgia txikia,
ekografia eta analisisa
- ILEAPAINDEGI ZERBITZUA
- DENDA:
elkadura eta maskotentzako osagarriak

Ongi pasa feriak!



948 631 362 | 688 723 460 | Bera, Leiaia karrika 21



**IZARRA
OKINDEGIA**

ongi pasa feriak!

PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

TRANSPORTES IRIGOYEN

ONGI PASA FERIAK!

629 592 215 - BIURRANA AUZOA, 1 - LESAKA



Izotzaldea auzoa 7,
AGORLEKU Baserria
31770 LESAKA
Tel.: 670 749 549

**Ferietan
otordu goxoak
prestatzeko...**



Plaza Berria, 10 - T. 948 637 335

KASINO

OSTATUA - RESTAURANTE



**feria alai eta
pozgarriak
izan ditzazuela**

Plaza Zaharra • LESAKA • 948 63 72 87



Aizkora kolpeak nagusi

Eskualdeko ferietan azienden marruma eta saltzaileen oihuekin batera, bada nagusitzen den bertze soinu bat: aizkora kolpea. Ezin imajina genezake herri kirol saiorik gabeko feriarik eta erakustaldi horietan izarririk bada hori aizkora da.

Goizean, 11:00etan hasiko da erakustaldia eta ordubete pasatxo iraunen du. Urtero bezalaxe, herri kirol erakustaldiaren baitan hainbat modalitate ikusteko aukera izanen da. Harri-jasotzen eta trontzan ariko dira eskualdeko

kirolariak, baina aizkorak hartuko du erakustaldiaren zatirik handiena. Zutikako enborrak, etzanak, altueran ebakitzen direnak... beraien dohaiak erakutsi beharko dituzte aizkolariek. Larretxea anaiak bueltatuko dira aski ezaguna duten plazara eta eskualdeko neska eta mutil gazteek beraiekin neurtuko dituzte indarrak. Nabarmentzekoa da urtetik urtera gehiago direla plazara ateratzen diren emakumezkoak. Urte osoan egiten duten lanaren erakustokia izanen da aunitzentsat. Kirola eginez gozatuko dute batzuk, ikusiz bertzeek.

Goizeko 7etatik irekia

BAR LEIZA

Espezialitatea: *plater konbinatuak.*
Razioak, bokatak, hanburgesak



Antoia, 17
LESAKA

948 637 393
Erreserbak 631 027 950

erran.
PLUS

Nafarroako errege-erreginek 1499. urtean emandako feria eskumena.

LESAKAKO FERIAK 2023

AZAROAK 22

18:00 LESAKAKO TRIKITIXA KALEJIRA
18:00 AJOARRIERO LEHIAKETA Behoko Plazan

AZAROAK 23
FERIA EGUNA!

GOIZEAN AZIENDA ERAKUSTALDIA eta
ARTISAU ERAKUSKETA Behoko Plazan
11:00 HERRI KIROL ERAKUSTALDIA Plaza Zaharrea
ONDOTIK BERTSOLARIAK Julio Soto eta Uxue Alberdi · Plaza Zaharrea
ONDOTIK AZIENDA LEHIAKETAREN
SARI BANAKETA
17:00 PILOTA PARTIDAK Udaltzaletxean
18:00 DANTZALDIA Plaza Zaharrea



**BORTZIRIETAKO
ABELTZAINAK**



LESAKA
gara



Eskolamendiko 13 hektareatan eginen dituzte oihanberritze lanak. UTZITAKOA

Eskolamendin CO2 emisioak konpentsatu ahal izateko proiektua

Gisa honetako Nafarroa osoko lehen ekimen pribatu-publikoa herrian kokatu dute eta 18.289 zuhaitz landatuko dituzte

AITOR AROTZENA LESAKA
Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak (CPEN) eta Lesakako Udalak basotze proiektu bat jarri dute martxan, 2021eko otsailean izandako suteak suntsitutako baso-masen zati bat berreskuratzeko eta Nafarroako enpresen berrotegi-efektuko gasen isuriak

konpentsatuko dituzten karbono-hustubideak sortzeko helburu bikoitzarekin
Nafarroan karbono-hustubide gisa katalogatuta dagoen eta lankidetzara publiko-privatuaren emaitza den lehen proiektua aurkeztu zuten urriaren 31n Lesakan. Ekimen honek, azken urteetako sutee-

tan kiskalitako lurak oihanberritzeaz gain, Nafarroan enpresen jarduerak sortutako berrotegi-efektuko isuriak borondatez konpentsatzeko lagungarri izanen da.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak CPEN Basoa izenpean bultzatutako epe luzeko proiektu honen testuinguruan, gaur Lesakako lehen oihanberritze eremuan izan dira Jose Mari Aierdi, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria; Ladis Satrustegi, Lesakako alkatea; Francisco Fernández Nistal, CPE-Neko zuzendari nagusia; Javier Martínez, Nafarroako Landa Kutxako Gizarte Ekintza arloko zuzendaria; François Delamarre, ArcelorMittal Lesakako lantegi arduraduna; eta Luis Sanz, GAN-NIK sozietate publikoko zuzendari kudeatzailea. Datozen hilabeteetan Lesakan eginen diren lanak ezagutu zituzten, baita proiektuan parte hartzen duten hiru enpresen berrotegi-efektuko gasen isuriak konpentsatzeko duen funtzioa ere.

Hautatutako parajea, Eskolamendi, 2021eko otsailean kiskali zen, Nafarroako Gipuzkoako eta Lapurdiko hainbat

udalerriri eragin zien sutean. Zehazki, 1.600 hektarea baino gehiago erre zituen eta Lesakan 400 hektarea erre zituen. Proiektu honek 13 hektarea birlandatzea aurreikusten du, 13 futbol-zelairen baliokidea dena. Osotara, 18.289 zuhaitz-landare landatuko dituzte. Lan teknikoa, GAN-NIK sozietate publikoko baso-kudeaketaren arlotik zuzentzen ari da, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuarekin lankidetzan.

«Udalaren diruarekin ez zen posible izanen»

Ladis Satrustegi alkateak horrelako ekimen batek herriarentzat duen garrantzia azpimarratu du: «Proiektu hau hagitz interesgarria da Lesakarentzat, gure diruarekin ez litzateke posible izanen Eskolamendiko zonaldea basoberritzea eta hagitz eskertuta gaude aukeragatik».

Eskolamendira bisita egin aitzinetik, lankidetzara hitzarmen honen sinadura egin zuten. Proiektuaren sustatzaileak, CPEN eta Lesakako Udala, ekimenera batu diren hiru enpresa pribatuekin batera, udaletxean elkartu ziren.

Andra Mari Zahar Etxea 25. urteurrena ospatzen

Andra Mari zahar egoitzak 25 urte beteko ditu abenduaren 8an. Hori dela eta, hainbat aktibitate prestatu dituzte, azaroko azkeneko astean zehar eginen dituztenak: bertso kantua, txokolate jatea, opil jatea trikitixen soinuekin, dantzaldiak eta musika, bingo berezia... Aste horretan egoitza apainduko dute, aspaldiko argazkiak zintzilikatuz eta bertze hainbat dekorazio paratuz. Data hurbiltzen den heinean, informazio gehiago emanen dute, egunak eta ordutegiak zehaztuz.

Goiuri Urria hirugarren EHko cross countryn

Elgoibarren jokatu zen Euskal Herriko cross country txapelketan 18 urtez beheitiko kategorian hirugarren izan zen Goiuri Urria Yecora herriko motor gidaria. 15 urterekin gidaririk gazteena izan arren, parte hartu zuten 127 gidarien artean *scratchean* (orokorrean) 66. izan zen.



UTZITAKOA

Bertso txapelketa eta bertso ibilbidea igandean

Nafarroako bertsolari txapelketako azken finalurrekoa herrian jokatu da azaroren 19an. Hasieran Harriondoan egitekoa baldin bazen ere, oharu orduko sarrerak agortu ziren eta honenbertzez, udal pilotalekuan eginen dute saioa, igandean 17:30ean. Josu Sanjurjo herritarra ariko da kantari eta Alaitz Rekondo gai-jartzaile. Hitzordu handi honekin lotuta, Oinaz Bidean, Lesakako bertsolaritzako ibilbide berria ere eginen dute igandean 11:00etan Harriondotik abiatuta.

20 dozena uso bakarrik harrapatu dituzte urrian

Uso guti pasatu zen joan den hilabetean eta oraindik gehienak iristekoak ziren azaro hasieran

IRUNE ELIZAGOIEN

Martxa onean hasi zuten sasoia Etxalarko usategietan. ТТИ-ПІ-ТТАРЕН 840. zenbakian aipatu bezala, sasoiko lehen egunean, urriaren lehen, bortz dozena uso eta hamaika txoloma harrapatu zituzten. Lehenbiziko astean zazpi dozena txoloma harrapatu zituzten. Baina egunak aitzinera joan ahala, euria eta haizegoa tarteko, uso guti pasatu da. Urriko hilabetea akabatu zenean 20 dozena bertzerik ez zituzten harrapatuak. Usazaleek ziotenez, uso gutti pasatu zen eta azaroko hogeit egunak aitzinetik zituztela, lanerako gogoz eta itxaropentsu zeuden.

2023-2024 larre erreketak

Mendiko oteak eta zikinak erretzea pentsatua duten guz-



Usazaleak lanean sasoi hasieran.

tiak, eskaera egin beharko dute udal idazkaritzan, gero Nafarroako Gobernuaren aitzinean tramitatzeko. Eskaerak aurkezteko epea abenduaren 31 artekoa izanen da eta erreketak egiteko azken eguna apirilaren 30a izanen da. Erabat debekatua egonen da baime-nik gabeko erreketak egitea, hagitz arriskutsuak direlako eta oihaneko suteak eragin ditzaketeelako.



IRUNE ELIZAGOIEN

Hilerria lorez apaindua

Gau beltzaren biharamunean, azaroaren leko ohiko Domisaindu egunean, lorez apaindua ernatu zen hilerria. Urteroko ohiturari eutsiz, jende andana hurbildu zen dagoeneko ondoan ez ditugunei bisita egin eta loreak uztera eta itxura ederra hartu zuen kanposainduak.



Udaletxeko arkupean paratu zuten *photocall*-a. LEIRE OLAGARAI

Indarra hartzen ari den Gau Beltza ospatu dute herrian bigarren urtez

Urte aunitzez Etxalarren ezta Gau Beltzik ospatu eta herritar batzuei esker, indarra hartzen ari den besta da. *Photocall*-era familia eta koadrila dezente hurbildu ziren, aurpegi margoketan gelditu gabe lanean aritu ziren, eta herriari itzulia ematera ere jende ugari animatu zen. Ondoko afari auto-

gestionatuan eta ostatuetaan ere, giroa nahi adina luzatzeko aukera izan zen.

Aurten antolatzaile taldea handitu eta berrikuntza batzuket sartu dira. Hurrengo edizioari begira, proposamen berriak eta lana egiteko prest dagoen edozeinentzat irekia dago lantaldea.

Etxalarko BTT ibilaldia berreskuratzen

Etxalarren BTT ibilaldi bat prestatzeko lanetan ari da honetarako sortu den lantaldea. Antolaketarako dirua biltzeko, saski eder baten zozketa eginen dute abenduaren 30ean, urteko azken larunbatean, plazan. Boletoak 2 eurotan eros daitezke plazako dendan.



Saski ederra prest dute. EDURNE ARTOLA



Paris 365 fundazioarentzat janari bilketa

Azaroaren 20an, goizez eta arratsaldez, jatekoa Erretorebaitan bilduko dute

ANA ETA ITZIAR

Urtero bezala, oraingoan ere Paris 365 fundazioak janari bilketa egingen du. Kanpaina honetan parte hartu nahi duen edozeinek Erretorebaitan azaroaren 20an 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 19:00etara eraman dezake bere ekarpena.

Gogoan izan iraupen haundiko janaria izatea komeni dela, eta norbaitek diruz lagundu nahi badu, herriko banketxean kontu korrontea irekita dago. Azken modu hori erabiliz gero, norbere datuak emanda, hurrengo errenta aitortpenen deskontua egiteko balio dezake.



UTZITAKO ARGAZKIA

Igantzi Bizirik Ezkurran

Malerreka Bizirik-ek gonbidatuta, azaroaren 5ean Igantzi Bizirik-eko kide batzuk Ezkurran antolatua zuten mendi martxara joan ziren. Ibilbide polita antolatu zuten bertako mendietako hondar megalitikoaren inguruan. Makroproiektuen aurka dauden plataformak elkartu eta elkarlanerako momentu egokia izan zen.

Oihan Telletxea Sein Euskal Herriko Selektioarekin

Oihan Telletxea Sein herriko futbolari gaztea bere ibilbidean aitzinera doa. Euskal Herriko Selektioarekin partidak jokatu ditu Asturiasen eta Galizian. Otsailaren 10ean jokatu den urrezko faserako sailkatu dira, 16 urtez azpikoaren mailan. Aipatzekoak dira Oihanek sartutako bi golak! Aupa hi!



Auzolanean ariko dira eskolako haurrak

Eskolako haurrek hurrengo irteera aurreikusita dute. Urtero bezala, auzolana egingen dute herriko karraketan eta Berrizauen Bidasoko bazterretan. Garbiketaren aritzen dira eta zikin pila ederra biltzen dute oraindik ere. Eguraldi lagun duten lehenbiziko ortziralean ariko dira.

Laguntza eskertzeko afaria antolatu du Biltokik

Biltokik antolatzen dituen ekitaldietan lagundu dutenentzat, eskertza moduan, afaria antolatu du azaroaren 25ean. Afaria bazkide nahiz bazkide ez direnentzat irekia da, beti ere lagundu badute. Mus eta partxis tximista txapelketak berriz ere abian dira. Anima zaitezte!

Giltzarri abesbatzakoak abenduan Valentziara joanen dira

ANA ETA ITZIAR

Abenduaren 7tik 10erako egunetan Giltzarri abesbatzako kideek taldearen urtemuga ospatzeko asmoa dute, eta horren harira, Valentziara bidaiatzea erabaki dute.

Duela urte bat Erriberrin egindako abesbatzen topa-

keta batean ezagututako Valentziako abesbatza batekin harremana sakonduz, han kontzertuak emanen dituztela jakinarazi dute. Bueltarakoan eskatuko diegu hango berri eta esperientzia kontatzeko. Seguru zer kontatu izanen dutela.



PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

K-STRETCH

Etorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Centro Prim regina tolosaechebare

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDORAK
24h-ko asistentziak erregidoretan
127 euruko zerbitzu beharrik
Gasolindegik 24h irekita

Zakurazko beharrik ezarritako erregidoretan
Alkalaga Industrialdea
Ziabi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)

Noain-Eskiroz Industrialdea
Y Kalea 10
31118 Noain (Nafarroa)

GASOLIOA ETXERA
eraman dago

Giro ezin hobean joan dira kultur egunak

Laraburuko bordako gaztak irabazi du Baserritarren Eguneko gazta lehiaketa

NEREA ALZURI

Plazan artalde ederra, frontoian bertako produktuen eta eskulanen hamazazpi postu, trikitilariak eta panderojoleak harat-honat... Giro ederra izan zen Ekaitza Elkartek antolatutako 27. Baserritarren Egunean. Gazta lehiaketan sei gazta aurkeztu zituzten eta sariak Laraburuko bordara, Etxeberriko bordara eta Martineko bordara joan ziren, hurrenez hurren. Ahari lehiaketan, Ximoneko Antonio Iturriarenak hartu zuen saria eta zozketako zarea Dabid Iturriari tokatu zitzaion.

Kultur egunetako bertze ekitaldiak ere ederki atera ziren: Elikadurari buruzko Goiuri Arestiren hitzaldiak interes handia piztu zuen, Iñaki Labaka + LBK banden kontzertuan giro polita sortu zen, *Magma Mia* antzerkian jendeak gozatu zuen, baita Ameliren ipuin kontaketa ere. Partxisean txapeldun Alazne Baleztena eta Intza Ugalde eta txapeldunorde Iker Alzuri eta Yuri de Rueda izan ziren; eta musean Josune Otxandorena eta Patxi Iturria irabazle eta Jon Alzuri eta Andoni Mitxelena bigarren.



Jende aunitz bildu zen Baserritarren Egunean frontoian. JOSE RAMON AMOROS



Azaroaren 5eko mus eta partxis txapelketetako sarituak. EKAITZA ELKARTEA

Paris 365 jantoki solidarioarentzat janari bilketa

Bertze urte batez, Paris 365 jantoki solidarioarentzat janari bilketa antolatu dute herrian, beharrean eta eskasian dagoen jende kopurua areagotu egin baita aurten ere.

Kanpaina honetan parte hartu nahi izanez, azaroaren 20an, astelehenean, 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, Bortzak Bat kooperatibara eraman beharko da jatekoa. Epe luzera irauten duen jatekoak eskatu dituzte.

Laguntza emateko bertze aukera herriko bankuetan dauden kontuetan ekarpena egitea izanen da. Diruarekin batera, norbere datuak ematea ere komeni da, errenta aitopenean desgrabatzeko.

Paris 365 jantoki solidarioak eskerrak eman nahi izan dizkie euren laguntza ematen duten guztiei.

Palestinako herriari elkartasuna adierazi dio udalak

Gazako herritarren aurkako krimenak gaitzesteko eta Palestinako herriari elkartasuna adierazteko adierazpena onartu du udalak. Hala, «enbargo militarra, boikota eta Israeliar jarritako zigorrak babesten» dituela erran eta «herritar zibilen eta indarkeriaren biktimen aurkako erasoak gaitzetsi» ditu, «erantzukizun handiena, okupatzaileek, Israeliek, sionismoak eta aliatuek, AEBk eta EBk» dutela salatuz. «Herri palestinarren bakea askatasuna eta justizia lortuta baino ez da etorriko», nabarmendu du udalak.



'Magma mia' antzerkian jendeak aski tarte atsegina pasatu zuen. G. PIKABEA

Arduro
arropa-denda
etxeko osagarriak | lantzeria
Aitzate, 30 BERA T. 948 630 136

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KOMBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak

© 948 630 763 · Aitzate, 17 · BERA



Dani Iparragirre eta Koldo Herrera txapeldun. UTZITAKOIA

Koldo Herrera eta Iparragirre Euskal Herriko txapeldun

Binakako errelebo modalitatean Euskal Herriko mendi duatloi zirkuituan parte hartu duten proba guztiak irabazi dituzte

MAIDER PETRIRENA

Koldo Herrera Urroz herritarra, Arantzako Dani Iparragirrekin batera Euskal Herriko Mendi duatloi txapelketa izugarria egin du. Azken proba Adunan izan zuten eta honetan ere, parte hartu duten guztietan bezala, garaipena eskuratu zuten binakako errelebo modalitatean. Aburuz sagardotegian denboraldi bukaerako bestaz gain, bertan ere maila bakoitzeko sariak eta txapelak banatu zituzten. Aurrekoa ere dantzatu zieten. Zorionak bikote, a ze nolako txapelketa egin duzuen.

Organikopa

Nafarroako Gobernuak, Hondakin Partzuergoaren bidez, materia organikoaren bilketa buruz bultzatzen duen Organikoparen hirugarren edizioari esker, materia organikoaren bilketa % 9,3 handitu da aurten. Organikoparen edizio hau bi hilabetez garatu dute 92 udalerritan eta hondakinak kudeatzeko 10 erakundetan banatuta. Materia organiko gehien eta onena berreskuratzen duten herri sariak eman zaizkie, Malerreka Mankomunitatean, Elgorriaga, Doneztebe eta Sunbilla.



NIEVES BIURRARENA

Bularreko minbiziaren aurka lasterka

Bularreko minbiziaren aurkako XII. lasterketa urriaren 29an Iruñean egin zen, Saray elkarteak antolatua. 5 kilometroko ibilbidea izaten da, abiapuntu eta meta Gazteluko Plazan izanik. Herritarrek egun berezi honi keinua egin diote. DJ J&J-k *speaker* eta musika jartzen parte hartu zuten.



GORETI ANZIZAR

Batukada ikastaroa lehen aldiz

Ikasturte honetan eskolaz kanpoko jardueren artean, berrikuntza bat daukagu. Asteartero, bi orduz, kuadrilla eder bat batukada ikasteko eta giro ederrean pasatzeko elkartzeko da Herriko Etxeko ganbaran, Uxua Etxeberria irakaslearekin. Guztira hogei pertsonak batukadaz gozatzen dute.



Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kantfonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

ORBEA PINARELLO MERIDA
BERGAMONT BH MERIDA



ORBELA
SINORRORRA ALERRETTA
BEINTZAKO OSTATUA

Idola - Mikel
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN



facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa



LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla - Tel: 948 450 862



Azaroaren 26an eginen dute Mendiaren Eguna

Mendi irteera, poteoa, bazkaria, eta Alex Txikonen dokumentalaren emanaldia izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Bertze urte batez Mendiaren Eguna antolatuta du Erreka Kirol Elkartek. Goizean goiz hasiko dute eguna, 07:30ean gelditu baitira autobus geltokian mendira irteera egiteko. Ondotik, itzuleran poteoa eginen dute herriko ostatueta barna eta 14:30ean Casino elkartearen bazkaria izanen dute. Azaroaren 23a baino lehen apuntatu beharko da Casino elkartearen.

Arratsaldean izanen du jarraipena egitarauak, Alex Txikon alpinistaren bisita izanen baitute. 18:00etan *Manaslu*,

historiako lehenbiziko neguko igoera dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia eginen dute Ainara Marizkurrena Sagastaren oroimenez.

Dokumentalean Txikonek Manaslun izandako esperientzia kontatzen du. Azken hiru neguak bertan pasa ditu mendizaleak eta hirugarrenean lortu du lehen aldiz historian Manaslu neguan igotzea.

Emanaldirako sarrerak 5 euroko prezioa du eta aitzinetik Ostizen eta Titin erosten ahalko dira, eta baita egun berean zineman ere.



ERREKA GURASO ELKARTEA

Bigarrenez ospatu dute Gau Beltza

Urriaren 31n Gau Beltza ospatu zuten bigarrenez Erreka Guraso Elkartek antolatuta. Apaindutako kalabazoen erakusketa eta *photocall* egin zituzten, gero kalejiran eskolako aterpera joan ziren eta, azkenik, txokolatea jan zuten eta beldurrak erre zituzten. Giro polita izan zuten Gau Beltza ospatzeko.

Kontzientziario kanpaina hasi du Merkatari eta Zerbitzu elkarteak

TTIPI-TTAPA

Herritarrek erosketak herrian egitea nahi du Merkatari eta Zerbitzu elkarteak, eta kontzientziario kanpaina hasi dute hainbat bideoren bidez. Lehenengoan, herriak komertzio irekiekin eta itxiek duen itxura erakutsi dute. Hurren-

goetan erosleen testigantzak, elkarteak babesten dituen kirol taldeen hitzak eta merkatarien langileen irudiak bilduko dituzte, bertzeak bertze. Kanpainaren bidez herritarrak herrian erostera bultzatu nahi dituzte. «Erosketak egiten hastean herritik hastea nahi dugu».

Gaxuxa Zelaieta Nafarroako txapeldun judoan

Sortzez legasarra den, baina, Errekan aritzen den Gaxuxa Zelaieta Eulate Nafarroako Judo Txapelketa irabazi du 57 kiloz azpikoan. Adinez kadetea bada ere, senior mailan irabazi du domina. Zorionak!



UTZITAKOIA

Feriak, errezitaldia eta rallya heldu den egunetan

Heldu den egunetan ere agenda bete-betea izanen da. Azaroaren 17an feriak izanen dira, azaroaren 24an, aldiz, *Liliak xuri beltzean* errezitaldi musikala izanen da iluntzean liburutegian. Biharamunean, Malerrekako rallya eginen dute Malerrekako Sportek antolatuta.

**PROIEKTUAK
BALORAZIOAK**

Etxeak / Lursailak

Pisuak / Bordak

Pabiloiak / Lokalak

679 - 996055

Higiezinen aholkularia

Etxeen alokairua eta salmenta

Parrokia 9 behea - Doneztebe / zuzen@zuzen.net

Ugaitz Elizalderi urte batez luzatu diote kontratua

Urtez urte palmaresa osatzen ari den herriko pilotariak Garferekin segituko du

ARKAITZ MINDEGIA

Ugaitz Elizalde Bereau pilotaria lan bikaina egiten ari da eta Garfe enpresak bere lanari saria eman dio, bertze urte batez kontratua berri berritu baitio.

Garferekin azken torneoa Bodegas Taronena izan zuen, eta asteburu honetan, azaroa-

ren 19an, lau eta erdiko final laurdenetako partida jokatu du Pradoreen aurka, Errioxako Pradejon herrian. Hala ere, ezin atzendu Gartzarongo txapelketa irabazi duela Alduntzin atzelariarekin eta Oberena klubarekin ere Nafarroako txapelketan ari dela.



Eskolako lagunek ere hasi dituzte irteerak. Irudian Peru Harrira egindakoa ageri da.

Ikasturtea hastearekin batera, Pulunpa eskolako guraso elkartearen lanean

A. MINDEGIA

Ikasturtea hasita, Pulunpa eskolako guraso elkartearen lanean martxan da. Aurtengoan, bi gurasoren txanda akitu da eta bertze bi batu dira elkartera. Iaz bezala, Legasako, Sunbillako eta Iturengo gurasoek elkarrekin antolatuko dituzte hitzaldiak eta dagoeneko lehenbizikoa prest dute. Azaroaren 20an Legasako eskolan izanen da eta Oihana Zabaletak gatazken inguruan emanen du. Hitzaldiak eta bertze ekitaldiak antolatze-ko diru iturria izaten dute gurasoen kuota, baina horrez gain, Eguberrietako jaialdian egingen

den zozketako txartelak laster paratuko dituzte saltzeko.

II. Bideo Sormen Lehiaketa

Arnasetik II. Bideo Sormen Lehiaketan parte hartu dute herriko gazteek. Hiru kategoriatan banatua da, eta guk dakigunez, Pulunpa eskolako 5. eta 6. mailako ikasleek bertan parte hartu dute. Formatu librean euren herria nolako den, zer egin daitekeen eta zergatik den egokia euskararen maila hobetzeko kontatu dute. Pulunparap abestia eresortu dute. www.arnasagara.eusen ikus daiteke, baita botoa eman ere.

Gau Beltza oroitzeko ekitaldiak egin dituzte Iturenen eta Aurtitzen

A. MINDEGIA

Urriko azken egunean, azken urteotan, Gau Beltzean murgitzen dira arratsalde-ilunabar partean herrian. Eta hala izan da aurtengoa ere, Iturenen eta Aurtitzen haurrak mozturroturik hainbat ekintza egin baitzituzten. Alde batetik, Iturenen herrian barna ibili ziren mozturro kalejiran, trikixira eta pandero doinuekin. Hitzorduari borobiltzeko, herriko etxeko ganbaran merienda-afaria egin eta mozturro besta izan zuten. Bertzetik, Aurtitzen, Koianea T'ikia fron-

toian bildu eta, hasteko, margotzen aritu ziren. Sua piztu eta haur bakoitzak bere beldurak sutara bota zituen.

Aurtengoan, berrikuntza bezala, gurasoek ginkana polit bat ere antolatu zieten. Pistakirakurritz, herriko etxeen izenak asmatu eta etxe bakoitzean herriko etxe baten letra bat bilduz ibili ziren, eta gisa horretara, letra guziki bilduz, altxorra zegoen etxearen izena asmatu eta bertara joan ziren saria eske. Akitzeko, ostatuan bokata jatea egin zuten.



Bai Iturenen, bai Aurtitzen ederki ibili ziren urriaren 31n. UTZITAKO ARGAZKIA

Ehiztariak denboraldi bete-betean

Azaro erdian gauden honetan, aurtengo uso ehiza nahiko eskasa izaten ari dela aipatu dute herriko ehiztariak. Nahiz eta batzuek uso batzuk ekarri dituzten etxera, ezta banda aunitzirik pasatu. Hala ere, baturde ehizan dabilzanek batzuk bota dituzte.

Abendu hasieran kultur egunak denon gozamenerako

Aldizkari honetako berriak idazterakoan, oraindik Aurtizko bestak hasi eta akitzekoak ziren, eta hurrengoan emanen dugu horien berri. Bertzetik, abendu hasieran, aurtengoa ere kultur egunak izanen dira, adin guzietako jendearendako ekitaldiak izanen dira.

Mikel Mindegia omendu dute Nafarroa Arenan

Euskal Herriko aizkolari txapelketa nagusiaren atarian, Euskal Herriko Herri Kirol Federazioaren eskutik

FERMIN ETXEKOLONEA

Azaroaren lehen Iruñeko Nafarroa Arenan jokaturako aizkolari txapelketa nagusiaren atarian Euskal Herriko Herri Kirol Federazioak omenaldia eskaini zion hamar aldiz Euskal Herriko txapeldun eta Nafarroakoa hainbatetan izan zen Mikel Mindegia. Bere ibilbideari buruzko bideoa ikusi ondotik, Aurrekoa dantzatu zioten eta Txapeldun handia idatzirik zuen txapela eta bonsai bat eman zioten.



Mikel Mindegia hunkiturik.

Udal hauteskundeak

Aurreko zenbakian agertu zenez, baten faltan bi talde aurkeztuko dira oraingoan azaroaren 26ko udal hauteskundeetara: Ernesto Dominguez gaur egungo alkatea buru duen Herriko Taldea eta erabat herritik kanpoko jendeak osatu-

tako Aulki Zuriak. Hauteskunde-mahaiaren osaketa, berriz, maiatzeko bera izanen da: Joxean Elizalde izanen da presidentea eta Arrate Leizeaga eta Izaskun Zubialde bokalak.



UTZITAKOIA

Joaldunak Irrisarriko txondorra pizten

Joan den urtean bezala, aurten ere herriko joaldunek parte hartu dute Igantziko Irrisarri Land parkeko txondorriaren piztuera ekitaldian. Zaporeak Gobernu Kanpoko Erakundea izan da txondorra piztu duena eta bertze zenbait musikarien doinuekin batera, joare soinuak ere aditu ziren.

Piz&LohiPest musika jaialdia abenduko lehen asteburuan ospatuko dute

F. ETXEKOLONEA

Piz&LohiPest musika jaialdia antolatu dute aurten ere Zubietako gazteek abenduaren lehen astebururako, abenduaren 1 eta 2rako. Beti bezala, eskualdeko musikari eta taldeei beraien lana plazaratzeko aukera emanen die jaialdiak.

Joan den urtean hamar bat talde eta DJak izan zituzten, baina horrekin batera, jan-eda-tekoak eta bestelako ikusgarriak ere izanen dituzte. Oraindik egitaraua eta zein taldek joko duten zehaztu gabe dago, baina hurrengo aldizkarian emanen dugu horren berri.

WIKAI

Konektatzeko lurra

Zure mugikorrerako preziorik onenak ditugu!

12GB+ Dei mugagabeak

6,90€ /HL

40GB+ Dei mugagabeak

10,95€ /HL

150GB+ Dei mugagabeak

19,90€ /HL

info@wikai.es
948 030 500

wikai.es



Aprobetxatu aulki eskailera-igogailuentzako eta etxeko igogailuentzako DIRULAGUNTZAK.

Baldintzak betetzen badituzu, % 100ekoa izan daiteke laguntza. Eskatu informazioa konpromisorik gabe



ETXEKO IGOGAILUAK



GURE IRISGARRITASUN SOLUZIOAK EDOZEIN ESKAILERATARA EGOKITZEN DIRA



Etxeko eskailerak igotzeko eta jaisteko arazoak dituzu?

Hobetu etxe barruko mugikortasuna eta gozatu zure etxeaz oztoporik gabe. Imcalift-en eskailerak seguru eta eroso igotzeko eta jaisteko soluzioak ditugu.

AULKI ESKAILERA IGOGAILUA



PLATAFORMA JASOGAILUAK



KONTSULTATU DIRULAGUNTZAK ETA ORDAINDU MODU EROSOAN

ARRETA PERTSONALIZATUA:

948 235 974

AURREKONTUA
BISITA ETA AZTERKETA
KONPROMISORIK GABE

Mutilva Industrialdea, F kalea, 12. zk. NAFARROA




Amets
MUEBLES | ALTZARIAK

**Neurrira Fabrikatutako
Armairuak eta Sukaldeak**



Alkaiaga Industrialdea Sastrin Kalea 2-4-6
31789 LESAKA (Nafarroa) Tel. 948 639 537
amets@mueblesamets.com
www.mueblesamets.com



AMETSen ere BAINUAK | EGONGELAK | LOGELAK | KOLTXOIAK
TAPIZAK | ALTZARI OSAGARRIAK | ILUMINAZIOA aurkituko dituzu.



CONSTRUCCIONES A. BENGOTXEA

- Etxebizitzak egin
- Zaharberritze lanak
- Saneamentuak
- Obra publikoak
- Zeramika denda

URDAZUBI
Tel. 948599484 - www.carrelagesbengotxea.com

Obra ttikien laguntza-tramiteak arinagoak

Obra 10.000 € baino merkeago denean (BEZa gabe), laguntza eskaera tramitatu eta berehala hasten ahal da obra orain

Berriki arte, etxean egin nahi zen obrarendako dirulaguntza eskatuz gero, obra hasi baino lehen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Zerbitzuko baimena eskuetan izatea beharrezkoa zen, eta tramite horrek 4-5 hilabete irauten zuen normalki. Orain ez da horren zain egon beharrik eta berehala hasten ahal da obrarekin.

aulkia paratu edo instalazioren bat berriki nahi duenak, eta obra 10.000 euro baino merkeago denean, laguntza eskaera tramitatu eta berehala hasten ahal da obrarekin. Hartara, obra txikiendako prozedura administratiboa azkartu egin dute.

10.000 euro baino gehiagoko obren kasuan, aldiz, lehendik zegoen prozedura arruntarekin segituko dute eta laguntza eskaera tramitatzen denetik 4-5 hilabete pasatuko dira Etxebizitza Zerbitzuko baimena eskuratu eta obra hasi ahal izateko.

ORAIN BI ESPEDIENTE MOTA DAUDE:

1. Tramite **AZKARRA 10.000 € BEZa gabe baino gutxiagoko** obrendako.
2. Tramite **ARRUNTA 10.000 € BEZa gabe baino gehiagoko** obrendako.

Zernahi dela, dirulaguntza desberdinen inguruko informazio zehatzago jasotzeko komeni da galdetzea Nasuvinsak Donezteben duen bulegoan edo Sakanako Mankomunitateak Lakuntzan duen bulegoan.

Bainugelan obraren bat egin nahi duenak, leihoak edo berogailuaren galdara aldatu, eskaierak jotzeko



internet mugarik gabe

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 - 31780 BERA
andonimatxako@gmail.com

- ▶ TDT instalazioak
- ▶ TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- ▶ Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- ▶ Satelite bidezko interneta
- ▶ Internet konexio simetriko ultralastera
- ▶ Zuntz optikoa (Fibra optica)



sasoi
eraikuntzak

Leku-eder, 16 - 31791 SUNBILLA (NAFARROA)
T.948 451 596 | info@sasoi.eus | www.sasoi.eus



*Etxeak aldatzen ditugu...
Gauzak aldatzen ditugu*

Nasuvinsa 
Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.

ETXEBIZITZAK ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZAK



*Etxebizitza, hirigintza
eta lurraldeko
garapen jasangarria*

NORI

- > Eskualdeko pertsona fisikoak
- > Bizilagunen komunitateak
- > Alokairuko sustatzaileak

GURE ESKAINTZA

- > Etxebizitza eta eraikuntzen zaharberritzea
- > Inguratzaile termikoen hobekuntza
- > Oztopo arkitektonikoak ezabatzea

NOLA

- > Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak % 50erainokoak
- > Elkarlana eta laguntza egokituta

BAITA...

· Etxebizitza publikoen sustapena

· Alokairu Poltsa

· Hirigintza

· Garapen jasangarria

· Lurzoru industriala

LEITZA / BAZTAN-BIDASOA / ESKUALDE BULEGOA

INFORMAZIO GEHIAGO
www.vivienda.navarra.es



LEITZA
Leitzako Udala - 948.510.009
DONEZTEBE
Merkatarien karrika 6 - 31740 Doneztebe
848.420.140 - baztan-bidasoa@nasuvinsa.es



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

ANZABAL inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baseri, borda, pisu, etab, salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

ukulu inmobiliaria



Lekueder karrika 16, Sunbilla
667 547 445 | xuban@ukulu.es

inelsa ZENER ascensores igogailuak

Igogailuen instalazioak. Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.

T. 948 232 400
www.inelsazener.com

Urte osoan eskatzen ahal dira etxeak berritzeko laguntzak

Etxeak konpondu eta egokitzeko laguntzak oro har: sarbideko oztupoak kendu eta igogailua jarri, inguratzaile termikoa hobetu, berokuntza sistemak egokitu eta desgaitasuna duten pertsonendako egokitzeko.

Familiako kide kopuruaren eta etxe-ko diru-sarrerara ponderatuekin duten taularen arabera (Errenta Aitorpena) finkatzen dute dirulaguntza hartzeko aukerarik baden edo ez.

ESKATZAILE IZATEKO BALDINTZAK

- Etxebizitza ohiko bizitoki iraunkorra izatea, ez bigarren bizitokia.
- Etxeak 20 urte baino gehiago izatea, salbu pertsona desgaituendako egokitu edo derrigorrezko arau teknikoak betetzeko baldin bada.
- Obraren aurrekontu babesgarria etxebizitzako 2.000 eurotik gorakoa izatea.
- Obrak hasi gabe egotea. Behin-behineko kalifikazioa egiten denetik, obra sei hilabeteko epean hasi eta 36 hilabeteko gehienezko epean bukatzea da.
- Etxeak 50 urte baino gehiago duenean, beharrezkoa da EETA izatea (Eraikinak Ebaluatzeko Txostena).
- Dirulaguntza eskatzaileak duen adinaren diru-sarreraren eta etxearen antzinatasunaren arabera emanen da.

DIRULAGUNTZAK ZERTARAKO?

Dirulaguntzak bizitokiaren barneko obrak egiteko eta etxearen elementu komunitarioak (teilatua, eskailera, fatxada...) zaharberritzeko izaten ahal dira:

- Etxearen egitura edo funtzionamendua egokitzeko (teilatua, fatxadak, igogailua, elektrizitatea, iturgintza,...).
- Eraginkortasun energetikoa hobetzeko eraikin osoan (isolamenduak, berokuntza sistema jarri edo aldatu, galdara edo leihoak aldatu...).
- Irisgarritasuna hobetu eta trabak kentzeko (elbarriendako eta adinako oztupoak...).
- Bizigarritasun baldintzak hobetzeko etxe barneko obrak (bainuontzia kendu eta dutxa jartzea, hodiak eta txorrotak aldatzea...).
- Etxeetan bizitzeko egokia den azalera handitzeko (120 m² erabilgarri arte) eta etxebizitzak egiteko, lehendik dauden etxebizitza handiak zaituz.
- Indarrean dauden lege eta araudietara egokitzeko.
- Desgaitasunen bat duten pertsonentzat etxea egokitzeko dirulaguntza bereziak daude.

Laguntza gehienak igogailuak jartzeko edo leihoak aldatzeko eskatzen dira, datuen arabera.

suteia-zaldain instalazioak IGOGAILUAK

PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK

- 1 KANPOKO IGOGAILUAK**
Kanpoko fatxadan guzti integratuak. Portal barutik sarbidea. Inpaktu eta eragotzen minoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.
- 2 BARRUKO IGOGAILUAK**
Eskailero larrian integratuak. Sarbidea portal barutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpi-akilian daudenentzako sarbidea egokitzen dugu.
- 3 IRISGARRITASUNA**
Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpi-akilian daudenentzako portaerako sarbidea egokitzen dugu. Aklara egiten ditugu lanak, eragotzen minoak sortuz.



EZ ZAITEZTE KEZKATU!
gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, dirulaguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 73 | ELIZONDO | M 619 424 999 | suteia@suteiazaldain.com

ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZAK | 2022ko datuak

ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZE ESPEDIENTEAK

HERRIA	Espedient. kop.	Etxebizitz. kop.	Aurrekontua	Dirulaguntza
Arano	1	1	91.819,08 €	7.596,36 €
Arantza	1	1	7.005,00 €	3.375,25 €
Areso	2	2	216.653,34 €	31.873,63 €
Baztan	26	115	1.756.793,06 €	532.647,17 €
Beintza-Labalen	1	1	66.412,25 €	19.923,68 €
Bera	10	36	237.888,94 €	91.458,85 €
Bertizarana	4	4	42.327,17 €	13.780,50 €
Donamaria	1	1	16.892,65 €	7.601,61 €
Doneztebe	11	44	949.258,85 €	402.812,12 €
Elgorriaga	0	0	0,00 €	0,00 €
Eratsun	1	1	27.313,29 €	12.290,98 €
Etxalar	2	2	76.696,96 €	20.454,03 €
Ezkurra	2	2	66.695,54 €	23.129,53 €
Goizueta	3	4	119.358,41 €	17.073,95 €
Igantzi	2	2	25.181,80 €	4.623,68 €
Ituren	0	0	0,00 €	0,00 €
Leitza	12	30	409.109,67 €	153.592,45 €
Lesaka	7	28	397.990,73 €	142.927,93 €
Oiz	1	1	9.836,16 €	4.426,26 €
Saldias	1	1	28.754,72 €	12.939,62 €
Sanbilla	0	0	0,00 €	0,00 €
Urdazubi	0	0	0,00 €	0,00 €
Urroz	1	1	12.825,84 €	5.771,63 €
Zubieta	1	1	2.429,00 €	1.093,05 €
Zugarramurdi	1	1	60.942,52 €	0,00 €
DENETARA	92	277	4.130.982,63 €	1.451.162,84 €

Nasuvinsak eta Sakanako Mankomunitateak emandako datuen arabera, 2022an 277 etxebizitza birgaitzeko 1.454.163 euro hartu ziren. 2021ean, aldiz, 201 etxe birgaitzeko 1.494.937 euro hartu ziren. Dirulaguntza eskaerak tramitatzeko edo informazioa eskatzeko NASUVINSAK Donezteben edo EZABUK Lakuntzan duen telefonoetara deitu eta hitzordua hartu behar da.

NASUVINSAK tramitatzeko dituzten BAZTAN, BERTIZARANA, BORTZIRIAKI eta MALERREKAN ETXEAK zaharberritzeko laguntzak

848 420 140 DONEZTEBE

ARANO, ARESO, GOIZUETA eta LEITZAKO bizilagunek, aldiz, SAKANAKO Mankomunitatera deitu behar dute (EZABU)

948 464 867 LAKUNTZA

EZKAIN eraikuntzak S.L.



Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com

larreta lanak sl



IGELTSU PROIEKTATUA

PLADURRA

ISOLAMENDU TERMIKOA

ISOLAMENDU AKUSTIKOA

Bera - Nafarroa

www.larretalanak.com - larretalageltsua@gmail.com

Gorka Aretxea 627 225 514

Juanen Saralegi 637 921 299

Panelak-Olanak

PANELAK

- Neurria eginak
- Hainbat materialetan
- Formatu handiak
- Izkin borobilduak
- Formekin moztuak
- Iraunkorrak...



ALUMINIOA
Sandwich panelak
Arinak eta iraunkorrak
Lodiera: 3 mm
Koloretan



PVC
Forex panelak
Arinak eta iraunkorrak
Lodiera: 3, 5 eta 10 mm
Koloretan



METAKRILATOA
Gardenak eta opakak
Lodiera: 4 eta 10 mm
Koloretan

OLANAK



- Zuloekin izkinetan
- Errefortzu bikoitza
- Formatu handiak
- Mikroperforatuak



KULTURKARI

Dizitatu grafikoa | Publizitatea

INFORMAZIO GEHIAGO:

Koskontako bidea, 7-1
LESACA - Tel: 948 63 54 58
kulturkari@tpti.eu
www.kulturkari.com

Tel. 948 452 394
 Saikaltz Plaza,
 31700 Elizondo

Maitere Petrirena

Aseguru agentzia - Agencia de seguros



helvetia ASEGURUAK

- Tratu pertsonala
- Zure beharrianak asetzeko
- Kompromisoa eta segurtasuna
- Pertsona erabakigarriak



T. 948 45 25 29 - 628 35 71 38

Santiago, 78 - ELIZONDO - jfagoagaleiza@gmail.com

ASEGURUAK

Letra xehea irakurri, egiaztatu eta zure beharretara egokitu

Aseguruak barne hartzen dituen estaldurak jakintzat jo ordez, egiaztatzea komeni da eta zalantzen aitzinean galdetzea; espero ez diren ezustekoak ekiditeko modu bakarra baita.

Norberaren beharretara egokitzen den etxe aseguru bat kontratatzea ez da ahuntzaren gaurdiko eztaba. Etxe aseguru da berezitasun, estaldura, klausula eta modalitate gehien dituen polizetako bat. Ordaindu behar den garaian poltsikoan eginen duen zuloan jartzen dugu aunitzetan arreta; merkeenaren alde egin eta gero izaten dira ezustekoak.

Argi izan behar da: aseguruik hobereena ez da merkeena, ezta garestiena ere. Benetan aseguratu nahi dugun guztia barne hartzen duen

edo ez erreparatu beharko dugu: letra xehea irakurri. Deus gutxirako balioko du inoiz beteko ez diren haizaleko egoera hipotetikoren kontra babesten gaituen aseguruak. Eta are gutxiago, oinarritzko beharren aurrean babesten ez gaituenak.

Estaldurak

Beraz, funtsezkoa izanen da etxe aseguru baten oinarritzko estaldurak zeintzuk diren jakitea. Edozein gorabehera estaltzen al dute? Zer ondasan babesten dituzte? Eta zer ger-



mañonea

ZURE KOMUNIKATEKO KUDEAKETAK BURUKO MINA SORTZEN DIZU?

- Ez dizu ez denborarik, ez gogorik?
- Ez dakizu ongi egiten ari zaren edo ez?
- Zure erabaki edo ekintzetako batek izan ditzakeen ondorioen edo legearen barnean ez dagoen zerbaiten beldur zara?
- Zure berridari erreklamazio bat egin behar diozu eta gogorra egiten zaizu?
- Konponketa bat egin behar dizue eta aurrekontuak eskatu behar dituzue? Obraren segimendua, etab.

EZ GEHIAGO ARDURATU

Irtenbidea erraza da. Jar zaitze gurekin harremanetan eta zure komunitateaz gu arduratuko gara. Urte luzetako esperientzia dugu komunitateen kudeaketan. Lasai bizi zaitzez. Denbora aurreztuko dizugu, gustakoa duzuna egiteko. Zeren esperian zaude? Jar zaitze gurekin harremanetan.

info@manonea.com



Braulio Iriarte, 9 ELIZONDO



948 58 1132 - 606 89 68 43



www.manonea.com



MAPFRE

Konfiantza osoko aseguru-etxea

IBILGAILUAK | ETXEAK | BIZITZA ETA OSASUNA | PENTSIOAK | INBERTSIO PRODUKTUAK

BERA

Bidasoa, 16 T. 948 63 10 34

DONEZTEBE

Nagusia, 2 T. 948 45 08 80

ELIZONDO

J. Urrutia, 8 T. 948 58 03 76

LEITZA

Elgolen, 6 T. 948 51 04 99

LESAKA

Pl. Zaharra, 28 T. 948 63 72 20



tatzen da hirugarrenei eragiten dizkiegun kalteekin? Aseguru entitateari egin behar zaizkion galderetako batzuk dira horiek.

Estali ohi diren kalteen artean: sutea, leherketa, urak eragindako kalteak, lapurreta, kalteen erreklamazioa eta erantzukizun zibila daude. Garrantzitsua da etxe aseguruak estaldura horiek barnean hartzen dituela ziurtatzea. Izan ere, kontuan hartu behar da etxeko kalterik ohikoena urak eragindakoak eta lapurretak direla.

Konpainia bakoitzak bere kalteordainen baremoa ere izaten du, baita mugak, klausula zehatzak, frankiziak eta salbuespen bereziak ere. Ez da alferrik erraten *begi bat aski duela saldunak eta ehun ez ditu sobera erostunak*. Patxadaz hartu, guztia ongi irakurri eta zalantzen aitzinean galdetu.

Zeren araberakoa izaten da prezioa? Kontuz baloratutako ondasunekin. Jendeak joera izaten du etxean dituzten ondasunetatik balio handiena dutenak bakarrik baloratzeko, lapurtu ezin direnak ahaztuta. Horrek aseguruaren prezioa txikitu baina babestu gabe utziko luke zati bat.

Eskualdean eskaintza zabala

Ezbehar bat gertatzen denean aseguru entitatearen erantzuteko ahalmena eta zerbitzuaren kalitatea funtsezkoak izaten dira. Horri, hurbileko tratua gehitzen bazaio hartu-eman errazten da. Eskualdean aunitz dira aseguruaren sektorean lanean ari diren profesionalak.

Eta aseguruak aldatu nahi baduzu?

Ezinbertzekoa izanen da oraingo polizaren epe muga zein den jakitea. Epe hori bete baino hiru hilabete lehenago gaia esku artean hartzea gomendatzen dute adituek. Kontsultatu eta eskatu aurrekontuak hainbat konpainiei. Eskaintzak bilduta, balorazioa egin eta konpainiaz aldatzeko asmoa dutenek egungo aseguratzaileari hilabete lehenago jakinarazi beharko diote.

Epe muga baino hiru hilabete lehenago eskatu aurrekontuak



IKERKETAK

- Geologikoak
- Geoteknikoak
- Hidrogeologikoak
- Ingurumenekoak

Zimentazioak • Lur azpiko urak
Ezponden egonkortasuna • Zabortegiak

Tel. 620 79 60 05
ph.gamoy@yahoo.com

Azpa kalea 1, 1C • 31016 • Iruñea
444 Zabaloko bidea • 64250 • Itsasu



LABORRA ARKITEKTOAK

- Gabriel & Ines -

Etxebizitza berriak

Zaharberritzeak

Hirigintza

Ziurtagiri energetikoak

Eraikinen Ebaluazio Txostenak (IEE)



www.laborra.com

Santiago 66. 1º ELIZONDO 948.580.122



ARKITEKTURA ZERBITZUAK

www.artekabaztan.com

Balda Medikua Plaza, 1-1A | 31700 ELIZONDO
948 580 610



GENERALI Partikular, autonomo eta enpresendako aseguru eta inbertsioak.
Zatoz eta aholkatuko zaitugul!



Santiago 72 B, ELIZONDO
T. 948 58 05 04 669 32 63 33
generalielizondo@hotmail.com

Maite Iriarte Yanci

OTEIZA 53 urteko esperientzia
Proiektuen kudeaketa urbanistikoa osatu egiten dugu, hasieratik amaierara

ARKITEKTOAK



665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea) 31738 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren R. 7 - 7ºE 20804 - Donostia

oteizaarquitectos

- LOKALEN EGOKITZEAK
- ERAIKUNTZA BERRIAK: PASSIVE HOUSE
- ZAHARBERRITZEAK:
 - TEILATU BERRITZEAK
 - FATXADA BERRITZEAK
 - IGOGAILUAK
- BARNE DISEINUAK
- AHOLKULARITZA
- KALIFIKAZIO ENERGETIKOAK

IRURITA

DOARQ
arkitektura bulegoa
maite & idoiak danborrena olatxoa
T 9 4 8 1 4 0 8 0 6

ARKITEKTOAK

Aldakorra den egunerokoak diseinuan ere badu isla

Arkitektoak garai berrietara egokitu dira eta erabilera bakarreko espazio zurrnak albo batera utzita, moldatu eta egokitzeko aukera ematen duten diseinu jasangarriak proposatzen dituzte orain

Duela berrogei urte herritarrek ziztuzten kezkek ez dira gaur egungo berak. Ezta beharrak ere. Arkitekturaren horrek guztiak du isla eta horregatik, espazio zurrnak albo batera utzi eta funtzio anitzeko espazioak nagusitzen dira orain. Naturak ere geroz eta garrantzia handiagoa du. Arrazoi estetikoak daude apustu horren gibelean, baina ez hori bakarrik. Arkitektoek jasangarritasunaren aldeko apustu garbia egiten dute: eta bezeroen poltsikoari ez ezik, ingurugirori ere mesede egiten diote.



maximizatzeko bidea dira. Gainera, diseinu bioklimatikoak kontuan hartzen du eraikinaren orientazioa eta leihoak jartzerakoan argi naturala ahalik eta gehien aprobetxatzeko modua biltzen da; argiztapen artifizialarekiko mendekotasuna murrizteko.

Leihate handiak: espazioak ireki eta kanpoaldearekin konektatzen
Leihate handien erabilera ohikoa da arkitektura modernoan. Barrualdearen eta kanpoaldearen arteko lotura naturala ahalbidetzen dute, espazio zabalagoak sortu eta ikuspegi panoramikoak eskainiz. Zentzu estetiko hutsetik haratago, leihate handiak erabiltzeak onura praktikoak dakarza: argi natural gehiago sartzen da

Arkitektura bioklimatikoak: natura eraikuntzan integratuz

Arkitektura bioklimatikoak gorakada handia izan du azken urteotan: arkitektoek diseinu iraunkorrak bilatzen dituzte eta eraikinen ingurumen inpaktua ahalik eta gehien murriztea. Eskura dituzten baliabide naturalak aprobetxatzea da giltza: errate baterako eguzki argia eta aireztapen naturala. Horrela energia kontsumoa murrizten da. Horiekin batera, arkitektoek zenbait elementu gehitu dituzte: euri ura hartzeko sistemak, eguzki panelak, lorategi bertikalak... eraikinen eraginkortasun energetikoa

mitxel **etxenike etxandi**
javier **oteiza larretxea**



EFIZIENTZIA HAUNDIKO ERAIKINETAN ADITUAK



Jaime urrutia 36 - 31700 elizondo (nafarroa) | tel. 948 58 18 02 | fax. 948 58 14 12 | e-mail. info@linoplaza.com | web. www.linoplaza.com

ETXEGILEAK



eta aireztapen gurutzatua hobetu. Hori dela eta, geroz eta gehiago erabiltzen dituzte zorutik sabairaino doazen leihate irristakorrak edo kristalezko hormak barnealdearen eta kanpoaldearen arteko trantsizio ahalik eta perfektuena lortzeko.

Espazio malguak

Egun batean erabilgarria dena, ez da erabilgarria hurrengoan. Geroz eta aldakorragoa da bizimodua eta, horregatik, erabilera bakarreko espazio zurrunen ordez, arkitektoek erabilera eta behar desberdinetara erraz egokitzen diren etxebizitzak disei-



natzearen alde egin dute. Altzari modularrek eta trenkada mugikorrek zatiketa iragankorrak sortzen laguntzen digute, espazioak erabiltzen dituztenen beharren arabera moldatu ahal izateko.

Naturaren edertasuna arkitekturan

Eraikuntzan material naturalak erabiltzeko joera aspaldikoa da. Hala ere, azken urtean joera hori are gehiago indartu da. Zura, harria edo butzina bezalako materialak ikus litezke edonon eta naturako elementuek duten indarra agerian gelditzen da.

Terrazak

Geroz eta garrantzia handiagoa ematen zaio etxebizitzaren kanpoko aldeari. Diseinu orokorrean erabat integratuta dauden terrazak sortzen dituzte arkitektoek. Horietan elementu bertikalak, horma berdeak... jartzen dituzte natura eta eraikinaren arteko zubi lana eginaz. Espazio eroso eta funtzionalak eskaintzea da asmoa horregatik, eguraldiaren arabera itxi edo irekitzeko aukera ematen duten itxiturak erabiltzen dira batez ere gurean.



PROMOZIO ETA ERAIKUNTZA

Laster Iruritan industria-nabeak eraikiko ditugu

Baztanberri 2, ELIZONDO
Iharte Monastegia 2, IRUÑEA T. 674 880 306
info@iturriaviviendas.com · www.iturriaviviendas.com



Proiektuak
Karga-jasogailuak,
plataforma hidraulikoak
Plater-igogailuak
MARKA GUZTIEN IGOGILUEN
MANTENTZE LANAK

24 orduko zerbitzua



Arretxe Ugalde Ind. Ezurriki kalea, 29 IRUN
☎ 943 612 821

ascensoresaguirrezabal@hotmail.com
ascensoresaguirrezabal.com



LOHITZYNE
eraikuntzak

ETXEAK, TEILATUAK eta
ERAIKUNTZAK OROKORREAN



Tfnoa: 948 615 110 | Mug: 699 461 386
Eguzkialde etxea 31749 EZKURRA

Carpintería
Lizasoain, S.L.

**ERREFORMAK OROKORREAN
 LEIHOAK · ATEAK · ESKAILERAK
 ARMAIRUAK · SUKALDEAK · PERSIANAK**

948452077 · Zaldubia ind. · 31730 IRURITA
 carpinteria.lizasoain@gmail.com

**cristería
 BIDASOA**

Dutxetako manparak
 Kristalezko barandak
 Ate korrederak
 Sukaldeko aurrealdeak
 Koadroentzako markoak · Ispiluak
 Beira dekoratiboak

Gipuzkoa etorb., 26 - 20302 IRUN
T. 943 61 30 63
 info@cristeriabidasoa.com

**I.M.
 RRIXKO
 IGELTSERITZA**

IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK

ESTRUKTURAK
 TEILATUAK
 FATXADAK
 ZAHAR BERRITZE LANAK

Tel.: 661 735 052 · ARANTZA · SUNBILLA

**GREMIOEN
 KOORDINAZIOA**
 Sunbilla (Nafarroa)

**Etxebizitza berriak · Zaharberritzeak · Erreformak · Konponketak · Teilatuak
 Harri eta hormigoi lanak · Mota guztietako igeltseritza lanak**



JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK

669 122 815
 javieribarra@ibarraeraikuntzak.eus

DEKORAZIOA

Dena sortua dagoen garaian, ezer ez da hutsetik sortzen

Dekorazioan hogeitauroko erregela betetzen dela diote: bi hamarkadatik behin errepikatzen diren zikloak jarraitzen dituzte adituek



Neoklasikoaren itzulera. Elementu garaikide eta klasikoak lotzeko apustua egiten dute hainbat diseinatzailek.

Minimalismoak eragin garrantzitsua izaten segituko du barnealdean diseinuan, baina **kolorearen erabilera** aldatu egingen da. Agur zuria eta tonu neutroei: espazio garbi eta lasaia lortzeko orduan ere koloreak bere tokia aldarrikatuko du. Sabaiak kolorez jantziko dira baita altzariak ere, eta pauso hori ematera ausartzen ez direnak artelanak erabiltzeko aukera izanen dute emaitza hori lortzeko.



Domotika eta teknologia altzarietan eta arkitekturan txertatuko dira. Sektoreko marka nagusien erronka teknologia gure etxeetan modu dotore eta diskretuan integratzea izanen da.



Estanpazioek eta egitura organikoek garrantzia hartuko dute. Diseinu geometrikoak dituzten horma-papereak eta patroiz deigarriak dituzten alfondoak proposatzen dituzte. Estetikarekin jolas egin eta ausartu.

Apezteguia Berria

ferretería – burdindegia

Margoak eta bernizak
 Erreminta elektrikoa - Esku erreminta
 Konpresoreak
 Lanerako arropa
 Baratzea lantzeko tresnak
 Komunerako gaiak
 Estufak - Pelleta



www.apezteguiaberria.com - info@apezteguiaberria.com

- Leitzako Errepidea 33, Doneztebe - T. 948 450 994 - F. 948 450 882 -



Apezteguia Elizalde
 ARKITEKTOAK

OBRA BERRIAK
 LOKALAK - BARNE DISEINUA
 JARDUERA SAILKATUAK
 ZAHAR - BERRITZEAK
 TEILATU BERRITZEAK



Inato Irazoki etorbidea, 2 - DONEZTEBE

T. 626 261 990

info@apezteguiaelizalde.com

MIKEL UBIRIA
 eskabazioak
 garraioak



Biurrana 8 · 31770 Lesaka
 ☎ 948.637.302 ☎ 619.716.322 ☎ 608.779.641
 info@excavacionesubiria.com



MAITE MANGADO
 ARKITEKTURA
 & DISEINUA

T. +34 653 035 091
 www.maitemangado.com
 Doneztebe (Na)



IGELTSERITZA - ERAIKUNTZAK
Javier Zabala

Kale Nagusia, 66 T. 948 51 42 28
 GOIZUETA M. 679 47 98 93

construcciones.javierzabala@gmail.com



Construcciones
URBALLO, S.L.
 hargin lanak orokorrean

Luis Gaztelu, 6
 31730 IRURITA
 T. 610 367 000
 610 367 009
 c.urballo@hotmail.com

- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teilatuetan esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak:
- Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukuiluak...

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!




ELIZAGA MUGIKA SL
conselmu
 CONSTRUCCIONES



Etxebizitzan eraikuntzak
 Teilatu berriztatzeak
 Mota guztietako erreformak

T. 636 815 926 | conselmu@hotmail.com
 www.construccioneselizagamugika.es



BETILAN

Martin Tellechea
 Tel.: 649 403 320
 betilansl@gmail.com
 EZKURRA




ASKAPE
 CONSTRUCCIONES SOBRINO, S.L.

ERAIKUNTZA HONDAKINEN KUDEAKETA ZENTROA
 HARROBIA
 HORMIGOIAK
 KONTENEDORE ZERBITZUA
 GARRAIOK
 ESKOILERAK, ESKABAZIOAK



Ornoz Frantzia errep. N-121-B. 43km Baztan - T. 948 592 111 / 660 501 584 | canterasaskape@gmail.com

ETXEGILEAK

Piezaz pieza osatu behar den katea



Etxebizitza bat eraiki edo zahar bat eraberritzeak, hilabetetako lana izaten du gibeletik. Inurrien antzera, piezaz pieza osatu behar izaten da katea eta, tartean, burukominak ere izaten dira. Badira, ardura guzti horiek bere gain hartu, prozesu guztia gainbegiratu eta obraren xehetasun guztiak hurbiletik jarraitzea erabakitzen dutenak.

Geroz eta gehiago dira, ordea, ardura hori arkitekto edo eraikuntza enpresa baten esku uztea erabakitzen dutenak. Etxea eraiki edo berritzeko erabakia hartzen denetik lana bukatu arte, haiek koordinatuko dute guztia.

Onurak

Gremioen kudeaketa profesionalen esku uzteak hainbat onura ditu. Merkatua ongi ezagutzen dute eta berarekin lan egitera ohituak dauden langile profesionalen sare bat osatua izaten dute. Badakite norengana jo behar duten kasu bakoitzean.

Gainera, erantzukizun zibileko asgurua bermatzen dute, eta hainbat aurrekontu aurkezten dizkiote bezeroari, guztiak idatziz jasoak.

Edozein obretan mailu eta porlanak baino buruhauste gehiago sortzen dituzte gehienetan lortu beharreko baimenek eta sinatu beharreko agiriek. Arkitekto eta eraikuntza enpresa hauek dokumentazio guztiaren kudeaketa egiten dute.

Eraikuntza lanak antolatu eta jarraipena egiten ohituak daudenez, epeak ongi betetzen dituzte eta aurrekontuek BEZa izanzen dutela ziurtatzen dute, horrek bermea ematen duelako.

Gremioen kudeaketaz arduratzen dira profesionalak

607 88 39 68 · lander@okila.eu
Piedadeko auzoa,32 · IGANTZI

Charriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



ANTZUZELAI
S.L.

BERA
T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com



HARGINTZA | FATXADAK | TXIMINIAK
ZOLAK | TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK

Zurekin
DISEINUAK

GAUR EGUNERA
EGOKITUTAKO
ZURGIN-LANAK

ZURGIN-LANAK
OROKORREAN



☎ 636 701 204

☎ 722 521 471

Kanttonberri, 3 BERA

zurekin@zurekindiseinuak.com





MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta
GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491



Ateak
Parketak
Tablerak
Egur mota guztiak
Bigak eta Soliboak
Etab.

Zaldubia Industrialedea - IRURITA
T. 948580645 -
M. 609436686 / 606442143 / 608 744 675
maderaslegate@gmail.com
www.maderaslegate.com



Mendi lanak (Pinuak erosten dira)
Bigak - Montaje obran
Teilaturako egiturak
Izel, haritz eta douglasekoak edo laminatuak
Osagarriak - Autoklabe tratamendua

www.maderasantesteban.com

Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com

carpinteria

EZPELA

zurgindegia

Urruña, 2
31780 BERA
Tel.: 678 350 412 (Eloy)
617 081 335 (Matias)
eloyordoqui@hotmail.com

ZURGINAK

Zurezko zorua, bizitza osorako izanen den apustua

Zurak berotasuna ematen dio espazioari, izaera eta nortasuna. Zorua akeraketa epe luzerako egiten den hautua izanik, hainbat faktore kontuan hartzea komeni izaten da.

Etxebizitza bateko altzariak, paretan koloreak... aldatzeko joera eta gogoia maiz izaten da. Ez da berdina gertatzen zurezko zoruekin. Egunerokoan bere gainetik milaka pauso emana gatik, gutxi izanen dute burutan lurzorua aldatzea. Akeraketa egitean ia bizitza osorako izanen den apustua egiten da eta apustu segurua dela erran liteke, zurezko zorua ez direlako inoliz modatik pasatzen. Zurak berotasuna ematen dio espazioari: izaera eta nortasuna.

Lurzoru bat aukeratzeko orduan bost ezaugarri izan behar ditugu kontuan.

1. Zur mota: Aukeratutako zurak baldintzatuko du lurzoruaren itxura estetikoa. Normalean, haritza izaten da nagusi; baina, neurri tikiagoan, pagoa eta intxaurrondoa ere erabiltzen dira.

2. Formatuak. Formatu setan, hainbat aukera daude. Lama bat, bi edo hiruko oholak erabil litezke, edo diseinu dinamikoagoak sortu nahi badira *Espiga* edo *Hungariako punta* izenez ezagutzen diren motakoak erabili.



3. Zuraren koloreak. Koloretan, kolore argi eta ilunen eta tonu hotz edo beroagoen artean aukeratu behar dugu. Estilo bakoitzarekin zuzenean lotzen da egur kolore eta bukaera jakin bat: nordikoa (zurizta), retroak (tonu ilunak), erromantikoak (zaharkitu itxura)...

4. Akaberak. Akaberetan, bernizak edo olioak erabili nahi diren hauta genezake. Bukaera distiratsua, matea edo satinatua izatea baldintzatuko du horrek.

5. Nerbioa. Gure esku izanen dugu nerbioa gutxiago edo gehiago markatu nahi dugun erabakitzea. Dena den, kontuan izan behar da zura material naturala dela, eta ia ezinezkoa dela ohol guztiek itxura berdina izatea.



URDAZUBI
660 501 584
joxemibengotxea@yahoo.es



TEILATUAK · FATXADAK · ESKAILERAK · ATEAK · LEIHOAK
EGURREZKO ESTRUKTURAK · ZOLAK · ALTZARIAK





Zeintzuk dira zurezko lurzoruetan 2024rako joerak?



Haritzak apustu segurua izaten segitzen du urtez urte: edertasun eta erresistentzia handiko lurzorua sortzen dira eta era guztietako espazioetara egokitzen dira. Oholaren lodierak ere eragina izanen du zuraren iraupenean. Zenbat eta lodiagoa izan, orduan eta gehiago iraunen du.

Azken urteetan, **formatu handiko oholak** erabiltzen dira, batez ere barnealdeko dekorazioan. Lama zabalago eta luzeago bat erabiltzeak edertasun eta dotorezia handiko espazioak sortzen ditu: tamaina estandarreko taulekin lortzea zaila den zabalera lortzen da eta horrek berotasuna ematen du.

Espiga eta *Hungaria punta* itxurako formatuek ere geroz eta jarraitzaile gehiago dituzte. Zurak egiten dituen marrazki horien bidez, espazioari **dinamismoa** ematea lortzen dute.

Argitasuna maite dutenentzat, tonu argiko zurezko zoruak eta eskuilatze leuna dutenak ere boladan daude. Sinpletasunaren eta argitasunaren aldeko apustua da, berniz edo olio mateko egurraren akabera izaten dute: **artifiziorik gabe**, zuraren naturaltasuna indartzen dute.



J.P. AGERREBERE



BANATZALEA

Karrozeria

Aroztegi Metalikoa

Industria-nabeak eta granjak egiten ditugu



Zaldubi ind. IRURITA | T. 948 580 538 | 630 184 847



ITURRIONDO
ZURGINDEGIA

parketak · ateak · leihoak...
teilatuak · estrukturak · tarimak



Tel.: 607 890 923 | Zalain ind. 7 · BERA

PatxiJaurena

ZURGIN LANAK OROKORREAN
MENUISIER - CHARPENTIER

628 550 490 - URDAZUBI(Na)
ursunea@gmail.com



Juanotena Zurgina

639 855 120

Doneztebe

juanotenzurgina@gmail.com

Teilatuak, eskailerak,
lurrak, atek,
leihoak, kontraleihoak,
pertsianak, armairuak,
sarrailak...

LEITZELARREA S.L.

Aroztegi eta Galdereria

Landa Beikoa Industrialdea, 20
T. 948 510 598 M. 669 368 991
LEITZA



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11

Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

Gonzalez anaiak

aroztegi metalikoa

Burdina eta aluminioa

F. Joakin Iriarte, 6 - ELIZONDO
T. 948 580 337

AROTEGIAK

Gehien erabiltzen den atea nola itxi eta ireki

Garajearen formak, tamainak... baldintzatuko dute aukeraketa baita erosotasunak eta segurtasun mailak ere. Ongi aztertu beharko dira garajearen ezaugarriak aukeraketa egin aurretik.

Garajeko atea izaten da etxebizitza aunitzetan gehien erabiltzen den sarbidea. Segurtasuna da hitz gakoa, zenbat eta sendoagoa izan hobe erranen lukete garai batean. Orain berriz, aroztegiak punta puntako teknologia erabiliz material arin bat nahi beste moldatu eta egokitzeke modua aurkitu dute.

Automatizazioa

Egunero hainbat aldiz irekiko dute aunitzek garajeko atea eta hori eskuz egin behar duenak ongi daki zenbat kostatzen den batzuetan autotik sartu-aterean ibiltzea. Errazteko, automatizazioaren aldeko apustua egiten dute gehienek eta batzuetan aski izaten da horretarako ateari motorra gehitzea. Beste batzuetan berriz, osorik aldatu beharko da atea. Hainbat aukera daude merkatuan:

Alboetara irekitzeko edo kulunkariak

Irekiera espazioa ahalik eta gehien aprobetxatzen duen sistema da, baina atearen zabaleraren arabera, ate alboetara irekitzen bada, dezenteko eremua behar izaten du xaflek ezker edo eskuinera egin behar dutelako. Kulunkariak diren kasuetan, xaflek sabairantz igotzen dira. Kasu hone-

tan altuera erreparatu behar da, autoa kabituko ote den edo ez jakiteko.

Ate sekzionalak

Bata besteari lotutako panelen bidez osatzen da atea eta aldamenetan jarrita dauden errailen bidez, gorantz biltzen da atea. Espazio dezenteko irabazten da horrela, atea traba gutxi egiten duelako.

Gidaridun-ateak

Gurpiltxo batzuen gainean ezkerretik eskuinera mugitzen da atea. Espazio dezenteko behar izaten dute instalatu ahal izateko, atea ibilbide osoa egin behar duelako erabat ireki ahal izateko.



Arotxa



Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 - T. 948 58 14 18
31730 IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK | HORMANN banatzaile ofiziala



AROTEGIA:

- Burdina
- Aluminioa
- Inox

BALKOIAK

TOLDOAK

BURDINESIAK

FORJA

AUTOMATIZAZIOAK

...



Itxiturak erabilia, obra handiegirik egin gabe, guztiz alda liteke espazio baten funtzioa. Etxebizitzan metroak edota argitasuna irabazi eta bertzenaz guttitan erabiliko genukeen espazio bat egunerokoan txertatu liteke, eguraldiaren beldurrik izan gabe.

Espazioak mugatzeko

Espazio irekiak sortzeko joera egon da azken urteetan, baina batzuetan espazioak mugatu nahi izaten dira. Hormak erabili ordez beirate bat jarrita, argitasuna galdu gabe espazioa bitan banatzea lortzen da. Gainera, batzuetan sistema horiek ez dira

finkoak izaten eta beharraren arabera bi espazioetako bat ireki edo itxeko aukera eskaintzen dute. Sukaldea eta egongelaren arteko banaketa egiteko adibidez, baliagarria izan daiteke.

Txokoak argitzeko

Berez nahiko iluna den espazio bat argitzeko, hormak bota eta bere ordez kristala eta aluminioa erabilia egitura bat osatzea irtenbidea izan liteke. Erabiltzen den kristalaren arabera, argi kantitate gehiagori edo gutxiagori sartzen utzi eta intimitatea lor daiteke.

APITTU
ALUMINIO LANAK
PVC

Aluminiozko Leihoak, Kontraleihoak, Ateak, Portxeak itxidurak eta barandilak

M. 677 59 48 92
Auzoberri, 1 | 31770 Lesaka
apittulesaka@gmail.com



ARROZTEGI METALIKOA

Elutsa, 1 Alkaiaga Industrialdea 31770 LESAKA
T.F. 948 631 651
info@kortanaiak.com



**ARROZTEGIA
MAKINA ERREMINTA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK**

Barandak, balkoiak, atekak, hesiak, forja artistikoa, ...

T./F. 948 638 150
M. 646 774 117

www.talleresjoisa.com

Otsango Ind. • 31770 LESAKA • talleresjoisa@hotmail.com



Aluminio R.P.T | PVC | Pertsianak | Toldoak
Itxiturak | Barandak | Kontraleihoak

T. 948 630962 M. 626 313162 H. 31780 BERA
info@irekileihoak.com www.irekileihoak.com





ECHEVERRIA
ZURGINDEGIA



ABANTAILAK

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

Egiturak	Eskaleak	Atak	Lurrak
			
Armaruak	Sakaldeak	Eguneko leihoak	Leiho mistoak
			

Leitza errep. - 31745 ITUREN
M. 676 393 996 - T. 948 388 455 - F. 948 456 164
carpinteria@echeverria@yahoo.es

LEIHOAK

Zirrikitua edo oztopoa?

Egoera txarrean dauden leihoak aldatuta kontsumo energetikoa asko murriztea lortzen da

Ez da gutxietsi behar leiho batek etxebizitza batean izan dezakeen eragina. Aire sartzeko zirrikitua edo oztopoa bihur liteke. Egunez egunera, geroz eta hermetikoagoak dira jartzen diren leihoak. Egituraren % 20 perfla da eta % 80 beira, baina lehenengoa bigarrena bezain garrantzitsua da: egoera txarrean dagoen perflak ez duelako airearen sarbidea oztopatuko. Emaitzarik onenak lortzeko beiraren kalitatea (mota, lodiera, aire-kameraren lodiera...), markoaren materialaren kalitatea, leihoa itxi eta irekitzeko sistemak... kontuan hartu behar dira. Horretaz gain, leihoaren instalazioa ongi egin da egotea funtsezkoa da, beira eta markoa ongi lotuak egotea kasu, infiltrazioak ekiditeko.

Erabiltzen den materialak ere badu zeresana:

Garai batean **egurrezko leihoak** ziren ohikoenak eta gaur egun ere asko jartzen dira. Isolatzaile onak izateaz gain, estetikoki ederrak dira. Hori bai, mantentze-lana eskatzen dute.

Aluminiozkoak temperatura aldaketekiko iraunkorrak dira eta hainbat koloretan pinta daitezke.

PVCko leihoak isolatzaile termiko eta akustiko bikaina direnez, toki hotzetan erabiltzen dira.

Arrazoi estetiko eta funtzionalak tarteko, **leiho mistoak** gero eta gehiago erabiltzen dira. Teilatuetakoa leihotzat, esaterako, barnetik egurrezkoak eta kanpotik aluminiozkoak diren leiho mistoak dira nagusi.



TRANSTXAKAIN

TRANSTXAKAIN, s.l.
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY

Aurreztu!



ERAIKUNTZA-HONDAKINEN KUDEATZAILEA (Nafarroako Gobernuaren baimena)

KONTENEDOREEN ALOKAIKUA 20m³ arte

PUTZU SEPTIKOEN GARBITZE ETA LIBRATZE LANAK

MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK

- Kamioia 15mko garabiarekin
- Kamioia 32mko garabiarekin
- Kaja baskulatzailarekin

• Zisternarekin:

- Putzu septikoak
- Tuberietako ataskoak kentzea
- Ura lekuz aldatzea

Otsango Ind. 14 • LESAKA • info@transtxakain.com

T. 669 840 198 | 948 638 052 • F. 948 627 578

betiko
PVC ETA ALUMINIO AROZTEGIA

PROFESIONALEN
ESKUTIK



deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA ERAGINKORRAK



AURREZTE ENERGETIKOA



SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA



ISOLAMENDU MAXIMOA

www.betikopvc.com • T. 948 45 32 59 • betikopvc@betikopvc.com



Aire girotua

Tximiniak

Gas, gasolio eta biomasa
galdara eta berogailuakSantiago, 93 ELIZONDO - T. 948 452 126
info@honestolopez.com
www.honestolopez.com

Carlos Pacheco

ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK

Legia, 19 - BERA Tel: 637 151 170

ITURGINTZA | BEROKUNTZA
GASA-GASOLIOA
MOBLEAK | MANPARAK
KOMUNERAKO OSAGARRIAK

Bide-ondo etxea • ARESO • Tel.: 647 525 516

ITURGINAK

Etxeko iturgintza instalazioak zaintzeko aholkuak

Etxeko hoditeria ongi zaintzea ezinbertzekoa da funtzionamendu ona izateko eta trabak, hausturak, aberiak eta ur ihesak ekiditeko. Mantentze egokia izateko aholkuak ezagutu nahi?

Arazoak aurreikusi

Problema saihesteko modurik azkarrena prebentzioa da. Hortaz, gomen-dagarria da aldizka komuneko, dutxa-ko eta harraskako txorrotak berrikus-tea. Adi egon behar dugu soinuaren bat entzuten dugun, usain txarra sumatzen dugun edota urak denbora aunitz behar duen hustubidetik joateko. Instalazioa berritzeko seinale izan daitezke.

Etebizitza berrietan aski da hilabetean bitan berrikusten bada, baina instala-zio zaharrak astero aztertzea komeni da. Azkenik, adi egon behar dugu ur ihesei eta ahal den azkarren konpon-du, arazo haundiagoak sor ez ditzaten. Hondatze txikiak garaiz antzeman eta konpontzen baditugu, etorkizunean arazo larriagoak ekidinen ditugu.

Garbiketaren garrantzia

Behatzea inportantea da, baina hortik haratago, garbiketa ezinbertzekoa da mantentzerako. Noizbehinka txorrotak eta txorrota buruak, hustubideak, dutxako heldulekuak eta bertzelako ele-mentuak desmuntatu behar dira eta pilatutako zikinkeria garbitu behar da. Horretarako ozpina eta bikarbonato nahasketa erabil daiteke, edo erosita-

ko bertzelako produktu garbitzaileak. Horrez gain, garbigailuko filtroa erre-gulartasunez garbitu behar da eta arropako sakelatatik ateratako objek-turik gelditu ez dela ziurtatu; txanpo-nak, mukizapiak, boligrafoak, jostailu ttikiak... instalazioetan aberiak sor ditzaketelako. Plater garbigailuan ber-din, hustubideak berrikusi elikagai hondakinen pilaketak saihesteko.

Ez bota ez ohiko objekturik komun eta hustubidetik

Umeentzako toallatxoak, makillajea kentzeko kotoiak, sukaldeko papera... ez daude prestatuak komunetik behei-ti botatzeko, eta aberia larriak sor di-tzakete etxeko hoditerian. Aldi berean, sukaldeko harraskan janari hondakinak, plastiko puskak eta olio maiz botatzen dira hustubidera, buxadurak sortuz. Eta aunitzetan, arazoa konpondu beha-rean, txartu egiten dugu etxeko erre-medioekin eta erositako produktuekin. Horregatik, hobe da buxaketak profes-ionalen esku uztea.

Hala ere, problema hauek ekiditeko modurik azkarrena gure eguneroko ohiturak aldatzea da, hondakinak zakarrantzi egokira botata.

JAVI PETRIRENA

Iturgintza eta elektrizitatea

Tel. 679 354 947
jpinstalazioak@gmail.com

EGUR ETA PELLETEZKO GALDARAK

• AEROTERMIA

• GASA

• KLIMATIZAZIOA

• EGUZKI PLAKA FOTOVOLTAIKOAK

INSTALAZIOEN
FINANTZAKETA % 0
(24 hilabete)• Instalatzaile
baimendua

BAINUGELAK

Eguneroko arazoak ahazteko lekua

Higienerako tokia izateaz harago, eguneko estresa gainerik kentzeko eta erlaxatzeko lekua bihurtu da bainugela etxe aunitzetan. Hortaz, epe luzera, merezi du gela honen itxuran eta funtzionalitatean inbertitzea

Barne dekorazioaren munduan urtetik urtera aldatzen dira joerak, baita bainugeletan ere. Hortaz, etxebizitza berria egiten ari bagara edo bainugela berritzeko asmoa badugu, interesgarria izan daiteke aurtengoo tendentziak ezagutzea.

Kolore biziak azken urteetako joera nagusiak dira ausartenen artean; urre koloreko txorrotak, artelanak paretetan, estaldura nabarmenak... Bizitasun hau lortzeko modurik onena komunerako paper pintatuaren bitartez da. Paper honek ongi jasaten du hezetasuna eta sarri garbitu daiteke, beraz, ezin hobea da bainugelarentzako.



Aldi berean, **material naturalak** dira nagusi: harria, marmola, egurra... Ukitu freskoa, dotorea eta naturala ematen diote gelari eta, batez ere, ongizate sententzian laguntzen gaituzte.

Bainugela baino, batzuk **spa gela** nahi dute etxean, eta ongizateari ematen diote garrantzia gehien. Horregatik, gela garbi edukitzen laguntzen duten diskinuak eta produktuak nagusitzen ari dira: *rimless* komunontziak, junturarik gabeko dutxa itxiturak, zintzilikatutako komunontziak...

Norberak etxean daukanari egokitu lan egin dezake, bainugela itxuraldatuz, funtzionalitate berriak gehituz edota egunerokoa erraztuko dituzten aldaketak eginez.



HOTZ KOMERTZIALA ETA INDUSTRIALA
KLIMATIZAZIOA

T. 639 103 305 • Ziobi, 15 LESAKA
indharri@gmail.com

EZPELURA ITURGINTZA

Berokuntza • Gasa • Eguzki-plakak
Elektrizitatea • Zoru bero emailea
Biomasa • Aerotermita

T. 606 337 427 | OIZ
info@ezpelura.com
www.ezpelura.com

ELEKBERRI INSTALAZIO ELEKTRIKOAK EGUZKI PANELEN INSTALAZIOA

- Proiektu pertsonalizatu, baimen eta diru laguntzen gestioa
- Amortizazio planen azterketa
- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen instalazioa
- Finantziazio aukera



646854825 / 616898065 • elekberri@gmail.com • Elizondo (Baztan)



matxako

KALEFAKDOA · CASA · ITURGINTZA

609 808 756 · BERA

**Iturgintza lanak
Berokuntza mota guztiak
Galdaren instalazioak**

Baxi markan
eskaintza berezia.
Eskatu
aurrekontua

BAXI

LA NUEVA CLIMATIZACIÓN

MARITX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK



- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

**T. (0034) 636 617 450
LEGIA, 23 - BERA**

ELEKTRIZITATEA

Instalazio elektrikoa barnetik eta kanpotik ezagutzen

Inoiz galdetu al diozu zeure buruari nola aliegatzen den argindarra zure etxera? Entxufe bakoitzaren gibelean instalazio elektriko oso bat dugu, energia modu seguruan eta eraginkorrean zabaltzeko diseinatua

Zirkuitu elektrikoak dira instalazio guztien oinarria, gailu elektrikoak konektatzen dituztenak. Konexio honen arabera, hiru motatakoak izan daitezke:

Serie zirkuituetan erresistentziak ildo beretik lotuak daude, eta gailu baten irteerako terminala hurrengo gailuaren sarrerako terminalera lotzen da. Korronte norabide bakarrera mugitzen da, beraz, zirkuitu batek huts egiten badu, gainerakoak ennergirik gabe gelditzen dira.

Zirkuitu paraleloetan gailu guztien sarrera terminalak eta irteera terminalak elkar konektatuak daude. Konexio mota erabiliena da egonkorrena delako, eta batek huts eginez gero ondokoak funtzionatzen segitzen dute.

Zirkuitu mistoek serie konexioak eta paraleloak nahasten dituzte.

Instalazio elektrikoak zirkuitu eta sistemaz osatuak daude, eta korronte elektrikoa etxebizitza, bulego eta bertzelako eraikinetatik zirkulatzea ahalbidetzen dute.

Instalazio motak

Tentsioaren arabera, eraikin bateko instalazioa mota batekoa edo bertzekoa izan da:

Tentsio altukoak eta erdi maila-koak: Potentzia haundiko instalazioak dira, baina energia galera haundiak izaten dituzte eroaleen beroketagatik. Eraikin industrial haundietan erabiltzen dira.

Tentsio baxukoak: Ohikoenak dira, denda eta etxebizitzetan erabiltzen direnak. Eroaleen arteko gehienezko potentziala 1.000 voltio baino guttiagokoa eta 24 voltio baino haundiagokoa da.

Tentsio arras baxukoak: Guttien erabiltzen diren instalazioak dira, ezin dutelako potentzia haundiko gailurik jasan.

Tentsioaz gain, funtzioaren arabera ere sailkatu daitezke instalazioak: sorgailuak, garraiokoak, transformatzaileak eta hargailuak. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta horrek funtzio bat edo bertzea betetzeko proposak egiten ditu.

ZIGA
ELEKTRIZITATEA

647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean





ISOLATU ZURE ETXEA ETA AURREZTU

Isolamendu termikoa eta akustikoa

% 50 aurreztu

Egun batean

Obrarik gabe



BEGIRATU ZEIN
ERRAZA DEN
JARTZEA



AislaNat, **Nafarroan ekoiztutako**
zelulosazko isolamendu bakarra.

Isolatu zure etxea zelulosarekin,
egun batean,
obrarik gabe,
gutxi gastatuta
eta **produktu ekologiko** batekin.

www.aislantesaislanat.es
948 33 00 15 - 627 41 22 69

LEM LEIMEN S.L.

Era guztietako elektrizitate lanak



LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 david

tinkaenergiak

www.tinkaenergiak.com | tinka@tinkaenergiak.com



Pol. Ind. Zozala Errota | ZOZAIA
948 452 772 | 607 631 881 | 637 895 032

elicetxe
suministros electricos

material elektrikoak

Tel: 948 581 261 · Faxe: 948 452 397
Santiago, 83 (Industrialdea) · ELIZONDO
elicetxe@elicetxe.es

DANI
INSTALACIONES
- TRINTETA -
LESAKA



ELEKTRIZATEA
ALARMAS
SEGURTASUN KAMARAK
INTERFONOAK
SUTE DETEKZIOAK

T. 666 545 069
daniinstalaciones@gmail.com



Ohiko arazoak

Edozein irregulartasun detektatzean, instalazioak argindarra mozteko konfiguratuak daude. Normalean, hauek neurri prebentiboak dira, baina garrantzitsua da ohikoen diren aberiak ezagutzea, arreta haundiagoa behar duten jakiteko.

Zirkuitulaburra: Arazo arrunta izaten da, zirkuitu batean korranteak okerreko bidea hartzean gertatzen dena. Normalean, hiru arrazoiengatik gertatzen dira: eroaleen arteko konexioa txarra baldin bada, eroaleen arteko konexioa polaritate desberdinekoa baldin bada edo kableen isolamenduan akatsen bat badago.

Gainkarga: Instalazioko zirkuituak intentsitate zehatz bat jasateko diseinatuak daude. Korranteak muga hau gainditzen badu, tentsio igoera emanen da. Gainkarga baten ondorioak entxufatutako tresna eta gailu guztiei eragiten ahal die, baita zirkuitu berari ere.

Etengailu diferentzialaren akatsa:

Etengailu diferentziala pieza klabea da instalazio elektrikoetan, izan ere, gertatu daitekeen edozein deskarga elektrikotatik babesteko diseinatuak daude. Honen egiteko nagusia korrantean edozein irregulartasun, arazo edo desbideratze detektatzea da, eta aurkitzekotan, hornikuntza automatikoki moztea. Etengailu honek huts egiten badu, deskargen aurkako babesa arriskuan egonen da.

Edozein arazo dugula ere, inportantea da profesionalekin harremanetan jartzea eta haien esku uztea konponketa.

Instalazio elektrikoak ezinbertzeak dira gure egunerokoan, aunitzetan oihartzen ez bagara ere. Gure etxebizitzan eta lantegian beharrezkoa dugun argindarrak hornitzen gaituzte, eta garrantzitsua da nola funtzionatzen duten ulertzea eta nola mantendu behar ditugun jakitea.

BERRI S.L.

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Proiektu elektrikoak | Argindar instalazioak
Domotika | Eguzki panelak

Zalain Ind., 42 | BERA
T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

BIDASOA ALTZARIAK

ALTZARIAK · DEKORAZIOA

*Altzariak, oihalak,
alfonbrak,
eta dekorazio
eskaintza berriak.*

Nafarroa Ibilbidea, 9 IRUN
T. 943 63 29 32
info@mueblesbidasoa.es
www.mueblesbidasoa.es



BRIKO BAZTAN, SL

Obrak, eraberritzeak eta pintura

Bainuontziaren lekuan
dutxaontzia jartzea
Pinturak
Fatxadak
Pladurra

Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

Egurarentzako tratamenduak:
Egur lakadura eta bernizadura

Egurra konpontzeko injekzio-sistema
Sitsaren eta pipiaren kontrako tratamenduak



T. 608 016 052 | San Andres, 66 · NARBARTE (Sarrera Legasatik) | briko-baztan@hotmail.com


PINTURA

Barnealdeari nortasuna ematen dioten koloreak

Gure etxebizitzari ibura berria eman nahi badiogu, kolorea da egin dezakegun aldaketarik errazena eta azkarrena. Joerak urtero aldatzen dira, eta aurten ere gehien nabarmenduko diren koloreak ezagutu ditugu



Tonu epelak gainjartzen: Kolore biziek nekatzen bazaituzte aproposagoak dira kolore naturalak eta tonu beroak: lur eta harea koloreak, beixa, marroia... tonu neutro hauek, egurrarekin konbinatuta, goxotasuna emanen diote etxeko edozein gelari. Barnealde lasaia eta luxuzko itxurakoa nahi dutenentzako kolore ezin hobekak.



Kolore biziak eta indartsuak: Etxeari bizitasuna, nortasuna eta alaitasuna eman nahi diotenentzako dira kolore distiratsuak eta deigarriak: horia, urdin edo berde bizia, more intentsoa, tonu laranja... kolore hauek paretetan eta altzarietan erabil ditzakegu, eta ezin hobe konbinitzen dute patroi geometrikoekin eta tela distiratsuekin.

Inzakardi
Pinturak

- PINTURA LANAK OROKORREAN -

Eduardo Oyarzabal
m. 630 511 488

Inzakardi, 10
DOMEZTEBE/SANTESTEBAN

Melo Pinturak

T. 609 873 178

LEITZA



melopinturas@hotmail.com
www.pinturasmelo.com



P i n t u r a s
Iñaki Alzuyet
margoak

- Fatxaden zaharberitzea
- Barne-dekorazioa
- Pintura industrialia
- Egurra eta altzarien lakatze eta bernizatzea kabinan

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)

pinturasalzuyet@gmail.com
www.pinturasalzuyet.com

SERRERIA ALEMAN S.L

Teilaturako estrukturalak • Tarima • Laminatuak
• Haritza • Tratamenduak • ...



Frantziako errep. 2-A ERRATZU
Tel. 948 453173 - Fax: 948 453082
serreriaaleman@gmail.com

Urdin lasaigarriak: Tonu urdinen konbinazioak freskotasuna ematen diote gelari: kobaltoa, pastel eta zeru urdina, izotz kolorea, ziana, turkesa, zafiroa... hamaika motatako urdinak ditugu eskuragarri. Zientifikoki frogatuta dago kolore honek lasaitasuna transmititzen duela, eta zuriarekin erraz konbinatu daiteke paretetan, altzarietan, alfonbretan, kuxinetan, dekorazio elementuetan... hutsik egiten ez duen kolorea da urdina.



Berdea eta morea, bikote perfektua: Kontraste haundiko koloreak dira berdea eta morea, hortaz, ongi gelditzen dira elkarrekin. Adibidez, paretak berde biziz edo ilunez margotu ditzakegu, eta besaulki, kuxin eta manta moreekin konbinatu... edo alderantziz! Hainbat tonu dituzte bi koloreek, eta mila aukera ematen dizkigute gelak argitzeko, iluntzeko, bizitasuna emateko edo epe-lagoak egiteko.



GROUP **GAMMA**

ALMACO Eraikuntzako materialak

Errepide nagusia, ELIZONDO | 948 580 104 | www.almacobaztan.com

sukalDeco
estudio cocina y baño



Tel. 948 590 666 • IRIURITA
www.sukaldeco.com

zeramikaren
Benta
venta du carrelage

asteartetik ostiralera arte:
09:00-12:30 / 14:00-18:30

larunbata:
09:00-12:30 / 13:30-18:00

Lori venta
31710 | Zugarramurdi
Tel.: 00 34 948 59 90 24
Mug.: 0033 615 11 52 23
info@ventaducarrelage.com
www.ventaducarrelage.com

SUKALDEAK

Sukaldea planifikatzean kontuan hartu beharrekoa

Egunerokoan denbora aunitz pasatzen dugu sukaldean, hortaz, inportantea da gela hau eroso, estetikoa eta funtzionala izatea. Horretarako, hainbat elementu hartu behar ditugu kontuan:



Espazioaren banaketa

Sukaldea hiru gunetan banatzen da: kozinatze leku, biltegitratzeko toki eta harraska. Hiru hauek egituratzeko hainbat eredu ditugu:

L itxurako sukaldea ezin hobea da gela ttikientzako, espazioa guztiz optimizatzen dutelako.

U itxurako sukaldea aproposa da espazio karratuentzako eta erosoagoa da ongi lotzen dituelako sukaldeko hiru gunek.

Sukalde modernoa nahi dutenek **erdiguneko irla** paratu dezakete. Funtzionalitatea ematen dio gelari, biltegitratzeko tokiaren eta kozinatze gunearen arteko oreka lortuz.

Gela zabal eta luzeak dituztentzako **ilara bikoitzeko sukaldeak** perfektuak dira. Antolaketa paraleloan eginda, ezin hobe aprobetxatuko dugu espazioa. Mugikortasun ona izateko, gomendagarria da 1,20 metroko espazioa uztea ilaren artean.

Altzariak eta etxetresna elektrikoak sukaldearen espazio eta beharretara egokitu behar dira. Sukalde efizientea diseinatu behar da, txoko libre guztiei probetxua ateratzeko. Horretarako, ezinbertzekoa da paretak, ateak eta leihoak neurtzea, baita hauen arteko distantziak ere. Gainera, kontuan eduki behar dira entxufeak, ateak irekitzean hartzen duen lekua, hustubideak, hodiak eta erradiadoreak, bertzeen artean.

Jaurenabera

Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

- Elektrizitatea
- Sukaldeak
- Etxetresnak
- Eguzki panelak
- Autoentzat kargadore elektrikoak



SUKALDEAK

Etxetresnak

Pareta-armairuak

Sukalde eta
bainugelako altzariak

T. 948 450 925 | M. 624 47 57 25
Amezitia zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE
www.electrodomesticosmiguelena.es



BigMat
Menditxuri



ERAIKUNTZA MATERIALAK

GARRAIO ZERBITZUAK

MAKINEN ALOKAIRUAK • ZERAMIKA

KOMUNAK • MARGOAK • LOREZAJINTZA

MAKINAK • LANERAKO ARROPA

ITURGINTZA • PLADURRA • ITXIERAK • ESTUFAK



DONEZTEBE

T: 948 450 305

menditxuri@bigmat.es



**muebles
ORDOKI
altzariak**

Bitirio, 18 | LESAKA
T. 948 638 076
info@mueblesordoki.com

www.mueblesordoki.com



BORTZIPIAK

BIDASOA KARRIKA 45, BERA
TEL: 948 630 377



ANELAN
LAN BERTIKALAK

948 031 174
info@anelan.pro

Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.
Egiten ditugun lanak:
Faxaden konponketak,
segurtasun-sistemen
instalazioak, teilatuen eta
azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.



**PLATAFORMAS
BIDASOA**

**PLATAFORMEN
ALOKAIRUA**

T. 639 103 305 • Ziobi, 15 LESAKA
indharri@gmail.com

Eraikuntza materialak

Altzari, ate eta estalkien akaberak eragina dute sukaldearen kalitatean, estetikan eta prezioan. Akaberetako materialik ohikoena laminatuak, PVC, laka eta zura dira. Inportantea da material hauen ezaugarriak ezaizte, gure sukaldera hobe egokitzen dena aukeratu ahal izateko.

Laminatuak iraunkorrak dira, garbitzeko errazak eta nahiko ekonomikoak. Ongi jasaten dute beroa, higadura, orbanak eta hezetasuna, eta ez dute kolorea aldatzen temperatura edo argiztapenarengatik.

PVCa arras moldakorra da; beroaren bidez atxikitzen da eta ertz eta bazter guztiak estaltzen ditu. Akabera lakatuaren antzekoa da, baina merkeagoa. Ongi jasaten du ura, baina beroa ez hainbertze.

Laka arras material estetikoak da, kolore aukera zabalarekin eta leuna ukitzean. Ez ditu hain ongi jasaten kolpeak eta urradurak, baina konpondu daitezke. Hala ere, material garestia da, eta delikatua garbitzerakoan.

Egurrak epeltasuna eta edertasuna ematen dio sukaldeari, eta aniztasun handiko materiala da, beraz, prezioa ere aunitz aldatzen da. Iraunkorra da, baina kolpeak ekidin behar dira eta produktu zehatzekin garbitu.

Estetika

Estiloari dagokionez, mila aukera ditugu sukaldea dekoratzeko. Dotoretasuna nahi dutenentzako akabera metalikoak, urre edo zilar kolorekoak, aukera ezin hobea dira. Beltzarekin edo grisarekin konbinatu daitezke eleganzia emateko gelari eta, ausartzen bagara, bertzelako elementuekin ere nahasi ditzakegu; egurra, diseinuzko altzariak, kolore biziak...

Batzuentzako sukaldea jendea biltzeko gela da, hortaz, inportantea da eroso eta argitsua izatea. Gero eta zabalduagoak daude sukalde irekiak, bai egongelara eta baita kanpoaldera ere; terrazara, balkoira, portxera... argitasuna eta irisgarritasuna lortzeko, kanpora ematen dute kristalezko ateak eta beirate handiak erabil ditzakegu.




LUR-LAN
ESKABAZIOAK

Kaxerna, 3 - BERA Tel. 948 630 449 M. 653 017 967

DESINBERA



Bistan da klima aldaketak eta bizitza estiloaren aldaketek izurrite berriak dakartzatela, eta aurten tigre eltxoa dugu horren adibide. Hauek, ziztatzean sortzen dituzten enbarazuek gain, hainbat gaixotasun transmititzeko gai dira; hortik izurriteak kontrolatzeko beharra.

Horren aitzinean ditugun tresnak urriak badira ere, ugaritzearen aurka, ziztadak ekiditeko eta etxean ez sartzeko hartu ditzakegun hainbat neurri aipatuko ditugu:

**NEURRI GUZTIAK
BEHARREZKOAK DIRA
ELTXOEN ZIZTADAK ETA
HAUEN UGARITZEA
EKIDITEKO. DENON
ARTEKO ELKARLANA
ETA KONTZIENTZIAZIOA
EZINBERTZEKO DA.**

NOLA EKIDIN ELTXO TIGREAREN UGARITZEA ETA ZIZTADAK:

1- Ur putzuak saihestu: Loreontzietan, baratzea ureztatzeko erabiltzen ditugun bidoietan eta deposituetan, edota plastikoz tapaturik ditugun gauzetan sortzen diren putzuetan jartzen dituzte eltxoek arroltzeak. Beraz, ur putzurik ez izatea da eltxoen ugaritzea ekiditeko dugun tresnarik eraginkorrena.

2- Leiho eta ateetan eltxo-sareak jarri: Sareen bidez etxe barrera ez sartzeko lortuko dugu. Modu berean, depositu edota ur geldiak ditugun bidoietan jar daitezke, eltxoek bertan arroltzeak jartzea ekiditeko.

3- Uxagarriak erabili: Intsentsuek, krema uxagarriek... ziztaden aurka babestuko gaituzte.

4- Gizartea arazoaz kontzientziatu: Argi izan behar dugu arazo larri eta global baten aitzinean gaudela.

5- Profesionalek egindako tratamendu kimikoak: Beti ere azken neurria izanen litzateke eta muturreko kasuetan bakarrik justifikatuko litzateke bioziden erabilera. Gainera, kontuan hartu eltxoekin akabatze metodoa dela, baina larba eta arroltzeak ez direla akabatzen.

**DESINSEKTAZIOAK
DESINFEKZIOAK
HEGAZTIEN KONTROLA
ARRATOI-HILTZEAK
EGUR TRATAMENDUAK**

T. 667 680 238
www.desinbera.com
info@desinbera.com



MALERREKA

I. Enplegu Topaketa azaroaren 21ean Donezteben prest

Asteartean 09:00etatik 13:00etara ariko dira zineman eta Baztan, Malerreka, Bortziriak Enplegu Taldea aurkeztuko dute

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Baztan, Malerreka eta Bortziriako Enpleguari buruzko lehen topaketa egingen dute azaroaren 21ean, asteartean, 09:00etatik 13:00etara Doneztebeko zineman. Jardunaldi horretan, enpleguarekin zerikusia duten hainbat gairi buruz ariko dira.

Honela, Nafar Lansare Enplegu Zerbitzuak toki entitateei eta enpresei eskaintzen dizkien zerbitzuak aurkeztuko dituzte. Horieta bazueta berritasun garrantzitsuak dituzte. Baztan,

Mallerreka, Bortziriak Enplegu Taldearen aurkezpena ere egingen dute. Gizarteratze enpresek enpleguan duten lan garrantzitsua agertuko dute eta Elizondoko Lanbide Eskolak eskainitako zerbitzuen berri ere emanen dute, interesgarriak diren berrikuntza batzuekin. Jardunaldian parte hartzeko, izena eman behar da formularioa betez: <https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSeNdIHGkUyku8Cd6EjDIO4ZWGpBbrlsnClFOC.xlt3FJC-YMSA/viewform>

Mallerrekako VII. Rallya azaroaren 24an eta 25ean egingen dute

TTIPI-TTAPA

Mallerrekako Rallya prestatzen hasiak dira Malerreka Motorsport kirol elkarteko kideak. Azaroaren 24an eta 25ean egingen dute lasterketa, zazpi-garrenez eta, iaz bezala, zortzi tarte egingen dituzte Malerrekaren barna, denera 90 km kro-

nometratuz. Gainera, lehen aldiz, Julen Bilbao Koparako puntuagarria izanen da. Komisario bila ere badabilta antolatzaileak. Horretarako, mallerrekamotorsport@hotmail.com helbide elektronikora idatzi edo 608 83 07 14 zenbakira Whatsappa bidali.



UTZITAKOA

Makroproiektu eolikoek kontra Ezkurran

Mallerreka Bizirik taldeak antolatuta, *Mallerrekan eolikoak?!* Ez lelopean mendi martxa egin zuten azaroaren 5ean Ezkurran. Ezkurratik abiatu eta Erakurri eta Iruñarrin barna ibili ziren mendizaleak eta jende dezente bildu zen. Handik bueltan talo jana egin zuten frontoian, giro ederrean.



ARGAZKIA ETA TESTUA: JAIONE ARIZTEGI

Arimen gaua lehen aldiz Urrozen

Gau Beltzaren edo Arimen Gauaren ohitura zabaltzen ari da eta Urrozen, lehen aldiz egin dute. Arratsaldean aurpegiak margotzen ibili ziren haurrak, musikaz alaiturik. Bakoitzak bere beldurrak orri batean idatzi eta sutan erre zituzten gero. Eguna akitzeko, merienda-afaria egin zuten ostatuan.

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK
Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Iruen 943 63 45 36

BORDAKO
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

BAZTAN BIDASOKO EHIZARI BURUZKO XXXI. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK
URRIAREN 16tik AZAROAREN 30era

EHIZA MENJAK ARGAZKI LEHIAKETA

www.baztanbidasoko.com

Zinezaleentzako bi hitzordu aukeran asteburuan

El rey de los cowboys eta *La contadora de películas* filmak proiektutako dituzte Herri Aretoa azaroaren 18an eta 19an

TTIPI-TTAPA

Hilabeteko bigarren asteburua izanik, zinema klasikoak eta komertzialak, biek izanzen dute tokia Herri Aretoko programazioan. Zaharrak berri zine zikloari segida emanez, Buster Keaton zuzendariaren *El rey de los cowboys* filma proiektatuko dute. Larunbatean, azaroaren 18an, jatorrizko bertsioan eskainiko dute eta igandean, azaroaren 19an, gaztelaniaz. Bi emanaldiak 17:00etan hasiko dira. Horren ondotik, 19:30ean, urri bukaeran estreinatuko duten *La*

contadora de películas filma ikusteko aukera izanen da gaztelaniaz. Lone Scherfig zuzendariaren komedia dramatikoa da.

Saioetarako sarrerak alde aurretik erosteko aukera izanen da kulturalleitza.eus webgunean: 17:00etako saiorako sarrerak lau eurotan eta 19:30eko saioa bost eurotan eskura daiteke. Egunean bertan leihatila saioa hasi baino ordu erdi lehenago irekiko dute eta sarrerak bost eta sei euro ordaindu beharko dituzte, hurrenez hurren.

Independentzia Eguna atzeratzea erabaki du Sortuk

TTIPI TTAPA

Azaroaren 11n egitekoa zuten Independentzia Eguna, baina hitzordua atzeratzea erabaki du Sortuk. Ohar bidez eman dute erabakiaren berri eta independentziaz urratsak egiten jarraitzeko deia luzatu nahi izan dute: «horretarako,

Leitzan nahiz Euskal Herri osoan azaroan ditugun hamaika ekimenetan parte hartzerantz animatu nahi ditugu herritarra». Hitzordua ez dutela bertan behera utzi argitu nahi izan dute eta aurrerago jakinaraziko dute data berria.



DENOK BAT GURASO ELKARTEA

Udazkeneko festa ospatu dute

Gaztaina erreen usaina zabaldu zen urriaren 28an herriko plazan. Denok Bat Guraso Elkarteak Udazkeneko Festa antolatu zuen. Karrapea udazkenarekin lotutako marrazki eta eskulanekin apaindu zuten eta danbolinean erretako gaztainak jan ondotik, jira eta buelta, dantzari ibili ziren.

Eskuz Banakako Txapelketan ari da Zabaleta

Eskuz Banakako Lau eta Erdiko Txapelketan parte hartzen ari da Goiuri Zabaleta herritarra. Faboritoen artean aipatu dute bere izena eta gogor ariko da lehiari abenduaren 17an txapel beltza janzteko.



MASTER LABORAL KUTXA

MUSUNZAR
OSTATU-JATETXEA

Azaroaren 17an, ostirala, 19:00etatik 21:00etara

IREKIERA FESTA

Goizeko 08:00etatik aurrera irekiko dugu

Eguneko menua • Karta
Ogitarfeteoak • Errazioak
Ostiraletan Pintxo pote

Nº. 65087-001

Elbarren 14, Leitza · 747 406 968

Atalen Eguna aurrena eta Feria Eguna hurrena

Umore Ona Elkarteko Atalen Eguna izanen dute azaroaren 18an eta Feria Eguna azaroaren 25ean

TTIPI TTAPA

Aurreko aldizkarian okerreko data aipatu genuen, baina oraingoan bai: azaroaren 18an izanen da Umore Ona Elkarteko Atalen Eguna. Urtero bezalaxe, elkarteko kide diren atal guztiek egiten duten lana erakusteko baliatuko dute hitzordua. Arainburu Mendi Taldeak antolatu duen mendirteera izanen da eguneko aurreneko ekitaldia. 08:00etan abiatuko dira plazatik eta autoz joanen dira Arriurdiñetara. Handik Elamara igoko dira eta Beltzuntza eta Loitzateko gaineratik igarota, Arriurdiñetara itzuliko dira. Denera hamahiru kilometro pasatzeko ibilbidea egingen dute eta 13:00ak aldera bueltatuko dira herrira. Arratsalderako hainbat proposamen bildu dituzte. 16:00etan pilota partiduak izanen dituzte goiko frontoian. Ondoren, 17:30 aldera, Umore Onako abesbatzako kideak eta dantzariak kantuan eta dantzan ariko dira herritik barrena. Bukatzeko, 19:00etan luntxa izanen dute.

Feriak azaroaren 25ean

XIX. edizioa beteko du aurten Goizuetako azeria, artisau eta nekazaritza feriak. Azaroaren 25ean izanen da eta 10:00etan hasiko da azoka. 11:00etan herriko dantzariak ariko dira Txino auzoan eta 11:30ean trikitilariak aterako dira kaleak alaitzera. 12:30ean artzain txakurren erakustaldia egingen dute Barrenetxeko belasoan. Erakustaldia antolatzen duten hirugarren aldia da aurtengoa eta punta puntako artzainak eta zakurrak ariko dira. Etxarri Aranazko Jexux Razkin Mendi euskal txakurrarekin, Javier Olaziregi Goizuetako Maisuborda baserrikoa, Border Collie arrazako Abi zakurrarekin eta Jose Antonio Ormazabal gipuzkoarra Kanel izeneko Border Collie arrazako zakurrarekin. 14:30ean bazkaria izanen dute eta 18:00etan Matraka elektrotxaranga ariko da. Bazkarirako txartelak Amaia kafetegian eta Goizuetako Estanko eta Arropa dendan egonen dira salgai azaroaren 20ra arte.

'Pirata garrapata' emanaldia ikusgai azaroaren 19an

Herriko Etxeko ganbaran 17:30ean hasiko da emanaldia. Magia, antzerkia eta txotxongiloak tartekatzen dituen ikuskizuna da, kutsadurak naturan duen eraginaz hitz egin nahi duena.



GOIENA



FELIX LOIARTE

Gau Beltza festarako aitzakia bihurtu da

Gau Beltzak hamaika kolore izan zituen Goizuetako haur eta gaztetxoentzat. LH 5eko hainbat ikaslek gordetako altxorraren bila ibili ziren eta kandelen argitan eta ezkila hotsak adituz ibilbidea ere osatu zuten. Gaztainak jan zituzten gero eta beldurrak erre.



FELIX LOIARTE

Ederki pasa dute Jubilatuen Egunean

Umore Onak antolatuta, jubilatuen bazkaria egin zuten elkartean urriaren 29an eta giro bikaina izan zuten. Bezperan, mus eta truk txapelketak egin zituzten. Pakita Goizueta eta Juana Mari Bergara izan ziren txapeldunak trukean eta Esteban eta Jose Luis Arozena musean.

Udalak enkantera atera du medikuaren etxe zaharra

TTIPI TTAPA

Goizuetako Udalak garai batean medikuaren etxea zena enkantera atera du. Urriaren 31n udalak egindako osoko bilkuran onartu zuen prozedura berriari hasiera ematea eta horretarako, hura arautzen duten baldintza administra-

tibo berriak onartu zituzten. Eraikina 75.996,46 eurotan lizitatu dute eta eskaintzak azaroaren 24ra arte aurkez litezke, Herriko Etxeko erregistroa 09:00etatik 12:30era. Plegu administratiboa irakurri nahi dutenek idazkaritzan eskura dezakete.

Kudeaketa batzorde bat sortzeko biltzen hasi dira herritarrak

Hauteskundeetara aurkeztu den zerrenda bakarrak kargua hartzeko asmorik ez duela aurreratu du

ENERITZ IRAOLA

Aulki Zuriak alderdia izan da herriari hauteskundeetara aurkeztu den zerrenda bakarra. Ez da ohiko alderdia, boto zuriari balioa eman eta kargua ez hartzea baita beraien hauteskunde programako puntu bakarra. Argi adierazi dute: «udalean ordezkariak lortzeko botoak jasota ere ez dugu kargua hartuko». Beraz, praktikan hautagairik aurkeztu izan ez balitz bezala da. Kasu hauetan kudeaketa batzorde baten eskuetan geldituko litzateke udala.

Kudeaketa batzordea

Maiatzaz geroztik funtzioetan ari diren udal ordezkariak Toki Administrazioarekin hitz egin dute eta haiek azaldu dizkiete zeintzuk diren kasu hauetan eman ohi diren pausoak. Hau-

teskundeak egin egingo dituzte azaroaren 26an. Bertan aterako den emaitzak, ordea, badirudi praktikan ez duela eraginik izango. Aulki zuriak alderdiak ordezkariak lortzeko beharko lituzkeen hamar botoak aterako balitu ere, esandakoa beteko balu, ez luke alkate eta zinegotzi kargurik hartuko. Horrek, prozesua luzatu baino ez luke egingo; lehenago edo beranduago kudeaketa batzorde baten eskuetan geldituko delako udala.

Argitu behar da kudeaketa batzordea nork osatuko duen ez dutela kanpotik erabakitzen. Herritarrek osatu behar dute batzordea eta beraiek erabaki nortzuk izango diren taldeko kideak. Hori horrela dela jakinda, herritarrak biltzen hasiak dira dagoeneko.



Kalejira egin ondoren plazan dantzan aritu ziren. ENERITZ IRAOLA

Aurpegiak estalita eta beldurrak airean ibili dira Gau Beltzean

ENERITZ IRAOLA

Guraso elkarteak Gau Beltzaren bueltan ekitaldiak antolatu ditu aurten. Urriaren 30ean, kalabazak apaintzeko tailerra egin zuten Pake-Toki elkartearen. Biharamunean, urriaren 31n, ospatu zuten Gau Beltza. Arratsaldean, mo-zorro tailerra egin zuten eta etxeko trapu zaharrak soinean jarri eta aurpegiak estali edo margotu zituzten. Hala, iluntzean pertsonaia xeble bezain beldurgarriak ibili ziren herriko plazan eta kaleetan. Iluntzean ibilbidea ere egin zuten; kandekek eta bezperan apain-

dutako kalabazek argitzen zuten bidea. Garbilekuan, eliza atarian eta plaza zaharreen egin zituzten geldialdiak eta *Xanduli manduli kikirriki, eman goxokiak guri!* esatearen truke jatekoa lortu zuten. Plazan bukatu zuten ibilbidea eta denek batera Txulalai dantza zuten. Ibilbidea egin aurretik bakoitzak bere beldurrak idatzi zituen paper batean eta sutan erreta beldurrak betirako uxatzeko saiakera egin zuten. Ospakizuna bukatzeko danbolinean erretako gozainak, patata tortillak, goxokiak eta bizkotxoak jan zituzten.

Azaroaren 25ean elkarretaratzea plaza zaharrean

Azaroaren 25a Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da eta Areson ere hainbat ekitaldi izanen dira. Udalak elkarretaratzea deitu du plaza zaharrean 12:00etan. Gazte-txoen artean indarkeria kasuak gorantz doazela ikusita gaia landu nahi izan dute eta gizarte zerbitzuekin elkarlanean tailer bat antolatu dute. Hau idazterakoan oraindik xehetasunak lotzekoak zituzten, baina sare sozialen eta whatsappen bidez emango dute informazio guztiaren berri.



JAIONE OLAZABAL

Udazkeno bezala gaztaina biltzea egin dute

Urriaren 27an gaztainak biltzera joan ziren mendira haur eta gurasoak. Arratsalde pasa polita egin zuten eta bukaeran arratsaldekoa ere egin zuten. Hori bai, bezperako euri jasan ondorioz gaztaina adina lokatz eramane zuten etxera.

«Antzerkiak memoria lantzen eta sozializatzen laguntzen gaitu»

AMAIA IRIONDO SALABERRIA HARREMANA JUBILATUEN ELKARTEA

Amaia Iriondok antolatua eta Josema Langarrak zuzendua, antzerki tailerra antolatu du aurten ere Harremana jubilotekak Iruritan. Herritar guzietan luzatu diete parte hartzeko gonbita

R. OSKARIZ IRURITA

Jubilatuena eta pentsiodunen elkarte da Harremana, eta pertsona adinduen topegune den jubiloteka zerbitzua eskaintzen du Baztanen. 2014an abiatu zen ekimena Iruritan, eta bederatzi urtez aritu dira lanean «proiektu ilusionagarri honetan». Joan den urtean antzerki tailerra abiatu zuten, eta antolaketa lanetan aritzen da Zugarramurdi bizi den Amaia Iriondo Salaberria.

Non aritzen da Harremana jubiloteka?

Baztanen lau herritan dago irekia jubiloteka: Amaiurren, Iruritan, Elizondon eta Erratzun. Aste tartzetik biltzen gara; Amaiurko tabernan astelehen arratsaldetan, Irurita Erreboteko plazan astearte goizean, Elizondoko Arizkunenean astearte eta ortzirale arratsaldetan eta Erratzuko Lixutegian ortzegun arratsaldetan. Elizondoko eta Irurita saioak Ether Carrizok gidatzen ditu. Gainera, Urdazubin eta Zugarramurdi ere aritzen gara. **Hainbat urteren ondoren, ia antzerki tailerra berratu zuten. Zergatik?**

Iruritan jubiloteka ireki genuenetik, antzerkia berreskuratzeko beharra ikusi genuen taldean. Ezinbertzeko aktibitatea da eskualdean, tradizio luzeak Iruritan. Antzerkigintzak sozializatzen laguntzen gaitu, eta memoria, arreta eta kontzentrazioa bezalako fun-



Joan den kurtsoan antzerki tailerrak Urdazubin egindako emanaldia. UTZITAKOIA

tzio zerebralak aktibatzen ditu; parte hartzea, ahozko eta gorputzeko komunikazioa... laburbilduz, Harremana elkartearen helburuak betetzen laguntzen du. Josema Langarra gidoigileak prestatzen ditu antzezlanak eta zuzendari lanetan biak aritzen gara.

Nolako esperientzia izan zen?

Arras ona, sei laguneko taldea elkartu ginen, eta adinak nahasteko, hiru jubilatuta eta hiru gazte aritu ginen. Elkar

ezagutzeko eta lagunak egiteko aukera eman zigun honek. **Ikasturtea akitzeko jendearen aitzinean aurkeztu zuten lana...** Bai, hiru emanaldi egin genituen: Urdazubin, Elizondoko zahar etxean eta Iruritan. Zahar etxeko emanaldia arras polita izan zen, jendeari ilusioa transmititu geniolako, baina hoberena Irurita izan zen; jende aunitz etorri zen ikustera eta sorpresa polita izan zen.

«ANTZERKI HANDIA EGIN BEHARREAN MIKROANTZERKIAK EGINEN DITUGU»

«TALDEAN ETA DENON ARTEAN GAUZAK ERRAZAGO EGITEN DITUGU»

Aurten ere tailerra abiatzeko asmoa duzue, ezta?

Bai, baina konturatu gara konpromiso handia dela astero elkartzea. Horregatik, antzerki handi bat egin beharrean mikroantzerkiak egin nahi ditugu; gai batekin hainbat antzezlan tiki eginen ditugu, talde tikiagotan lan eginez. Horrela ez dute beti denak etorri beharrik, eta malgutasun handiagoa dugu. Gainera, ez da hainbertze memorizatu beharrik.

Noiz biltzen zarete?

Azaroaren 7tik goiti asteartero biltzen gara Irurita Gizearte Bilgunean. Ekainera arte egingen dugu tailerra eta arratsalde elkartzen gara, 17:00etatik 19:00etara bertako aretoan.

Nork parte har dezake?

Belaunaldiarteko jarduerak da, eta adin guzietako pertsonak dira ongi etorriak. Horrek parte hartzea aberasten du. Interesa dutenek 659 84 95 70 telefonora deitzen ahal dituzte izena emateko.

Zerbait gehitu nahi duzu?

Elkartean zabalik gaude bertze gauzak egitera, eta jendea parte hartzea animatu nahi dugu. Momentuz, jubilotekarekin segituko dugu, jarduerak antolatzen. Adibidez, azaroaren 20an txokolate hartzea egingen dugu Irurita Kaiola elkartearen 16:00etan. Jubiloteka guzietakoak elkartuko gara; Urdazubikoak, Zugarramurdiakoak eta Baztangoak, egun polita pasatzeko. Gehienek elkar ezagutzen dute Arkupean ibiliak direlako, 'Arkupearen seme-alabak' dira, errateko moduan. Baina taldekoekin adin handia dute normalean, ez denek baina batzuk bai, eta ezin dute Benidormera joan edo bertzelako bidaiarik egin. Horregatik probetxatzen dugu tailer hauek egiteko, bakardadeari aurre egiteko; denon artean gauzak errazago egiten baitira. Batzuetan kostatzen da etxetik ateratzea, baina probatu eta gero, astea pasatzeko ilusio bat izaten da.

Iruritako errebestak ospatuko dituzte asteburuan

Musika eta giro ona izanen dira nagusi herrian azaroaren 17an eta 18an

TTIPI-TTAPA

Iruritarrek hainbat ekitaldi antolatatu dituzte ortzirale eta larunbaterako.

Azaroaren 17an 18:00etan mus txapelketa egingen dute Gizarte Bilgunean. 21:00etan, berriz, bokata jatea izanen da Gizarte Bilgunean eta 21:30ean musika izanen da Andoni Mitxelena akordeoilariaren eskutik.

Azaroaren 18an 11:00etan Meakako II. igoera abiatuko da, eta 11:30ean erraldoiak aterako dira. 14:30ean bazkaria egingen dute Gizarte Bilgunean eta ondotik Matraka elektrotzaranga arituko da. Besta ttikiei akabaila emateko, 23:00etan musika izanen da J&J DJaren eskutik.



Iruritako gazteak. ARTXIBOTIK



'Urteak eman duena' izenpean argitaratu dute. BAZTANGO GAZTE ASANBLADA

Gazte Asanbladak kurtsoko ekimen eta hausnarketak bildu ditu fanzine batean

TTIPI-TTAPA

2022-23 ikasturteko ekimen, ekitaldi eta hausnarketak bildu ditu Baztango Gazte Asanbladak *Urteak eman duena* fanzinean.

24 orrialdeko liburuxkak hainbat atal ditu, hausnarketak eta entretenimenduari leku emanez: argazkiak, moz-

ketak, testuak, jokoak, txisteak...

Nahi duten herritar guzietan ez balde eskura dezakete fanzinea, Gazte Asanbladako sareetatik edo kidegoari eskatuz. Horrez gain, herritar herri banatuko dute, ostatu eta bertzelakoetan irakurgai egon dadin.

Beatriz

ongizate zentroa
centro de bienestar

ZURE AMETSA EGIA BIHURTUKO DUGU MERKATUAN DAGOEN LASER BIDEZKO DEPILAZIO METODORIK ERAGINKORRENA

Laser depilazioan **30 urte baino gehiagoko esperientzia**, azterketak eginak eta ziurtagiri dermatologikoarekin, zientifikoki frogatua.

ZERK BEREIZTEN GAITU? Merkatuan dagoen sistematik eta metodorik **AZKARRENA**, merkea, **SEGURUA**, eta saio gutirekin eraginkorra, **ILERIK ZAILENENDAKO APROPOSA**. Patentatua. **KOLOREA DUTENEK URTE OSOAN DEPILATZEKO AUKERA**.

Gizonezkoendako eta emakumeendako sistematik eraginkorrena. Azaleko arazoak, kisteak, foronkuluak...

Laser depilazioan gutenez **bi** minutu, gehienez **30** minutu.

10 eurotik goiti.

Bonuak aukeran

Azterketa pertsonalizatua debalde

Tel. 948 580 283 · Santiago, 53 - 31700 Elizondo · info@beatrizbienestar.com
www.beatrizbienestar.com



Behiak, ardiak, behorak eta bertzelako aziendak izan ziren ikusgai. ONDIKOL



Elizondoko karrikak postuz eta jendez bete ziren asteburuan. ONDIKOL

Udazkeneko feriak giro ezin hobean Elizondon

Jendetza ibili zen ferietako ortzirale eta larunbatean Elizondon, eta adin guzietakoendako ekitaldiak izan ziren

TTIPI-TTAPA

Udazkeneko eguraldi ederra lagun, giro ezin hobea izan zen urriko ferietan Elizondon. Urtero bezala, herriko karrikak postuz bete ziren, mota guzietako produktuak eskainiz: jatekoak, arropak, mantak eta maindireak, jostailuak, artisau lanak...

Aziendak eta makineria ere ez ziren faltatu ortzirale goizean Merkatuko plazan eta Laxoko frontoian. Arratsaldean, berriz, Aspeko pilota partidak izan zituzten pilotalekuan, Eugiko Aingeru de la Fuenteren debut paregabearekin.

Gauetz ere jendetza izan zen herrian, eta kontzertuak, DJ emanaldiak eta besta izan ziren nonahi.

Elizondoko Ferietako II. Ardi Gasna Lehiaketa

Inguruko 11 gasnagilek parte hartu zuten ardi gasnaren txapelketan eta Kortariko gasnak lortu zuen berriz ere txapela, baita Baztango gasna onenaren saria ere. 220 eurotan saldu zuten gasna irabazlea enkantean. Bigarren postua Egozkueko Marta Loperenarendako izan zen eta hirugarrena Iragiko Atekoarendako.



Ardi gasna lehiaketa egin zuten ortzirale goizean Iriarte frontoian. ONDIKOL



Arratsaldean Aspeko pilotarien partidak izan ziren Baztan pilotalekuan. ONDIKOL

Kortariko gasna Tolosako Esneki Txapelketan ere saritua

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko gazta eta esnekien azokaren bigarren edizioa egin zuten azaroaren 3an eta 4an Tolosan, eta 85 gasna eta jogurt aurkeztu zituzten Esneki Txapelketan.

Zortzi kategoriatan saritu zituzten esnekiak, eta horie-

tatik bi mailatan txapela lortu zuen Kortariak: gazta urdinarena Erreka gasnarekin eta behi gazta onduarena Lixardia gasnarekin.

Sari nagusia, Euskal Herriko Gazta Onenarena, Markina Xemeingo Larruz Ahuntz Gaztak eskuratu zuen.



Kortariko Julen eta Irati, alabarekin sari banaketan. KORTARIKO BORDA



Arizkunenean egin zuen adierazpena Plazara Dantzara taldeak. TTIPI-TTAPA

Mutil dantza baztertzailek gabe lehenbiziko aldiz

Plazara Dantzara taldeak adierazi du «mugarri garrantzitsua» gainditu dela aurreko herrietako bestetan

TTIPI-TTAPA

Plazara Dantzara taldeak jakinarazi duenez, «Baztanen mutil dantza parekideak izateko borroka hasi zenetik, lehenbiziko aldiz erraten ahal dugu aurtengo herrietako bestetan mutil dantza baztertzailek ez dantzatzeko lortu dugula».

Garaipean hau «hamarkada luzeetan eman den borroka feministaren ondorioz» lortu da eta «Baztan feminista bat eraikitzeak aitzinamendu nabarmena izan da. Baina bazterkeriarekin akitu bada ere, baztertzaileak ez dira desagertu». Hortaz, «gure herrietako plazetan pasatu denak

gure oroimen historikoaren parte izan behar du. Memoria ezinbertzekoa da gertatutakoa errepikatu ez dadin».

«Ez dugu atzentzen ahal Baztandarren Biltzarra egunean emakumeak dantza-tokitik aterarazi gintuztela eta txistulariak isildu zirela; Lekarozen herriko argiak itzali, iraindu eta mehatxatu gintuztela; Elbeteko plazan dantzara sartu ginelarik gizonak dantzatzeari uzteaz gain, han zeudenek iraindu eta bulkatu gintuztela; Ikastolako plazan ere, dantzara sartzean dantzatzeari utzi ziotela; Elizondoko elizatea bazterketa eremu bihurtu, eta dantzara sartu ginelarik iraindu gintuztela; Gartzainen bertze hainbertze; eta zenbait herritan emakumeek dantzatzeko baino, nahiago izan dutela bestetako programatik mutil dantzak kentzea; eta lerro hauetan kabitzen ez diren bertze hainbat eraso gertatu dira herritar aunitzen begirada eta isiltasun konplizearekin».

Bidelagunak gogoan

Hala ere, «gogora ekarri nahi dugu bidean gurekin izan diren hainbat akitu eta konplize. Mehatxu eta erasoen aitzin

nean gure ondoan dantzaten, txalotzen, eta animatzen aritu diren herritarrak; bazterketaren aitzinean isildu ez diren txistulari eta atabaliarik; herriz herri mutil dantzak erakusten eta dantzatzeko ibili direnak; mutil dantza baztertzaileak Baztandik kanpo geldiarazteko hain eraginkorra izan den Euskal Herriko sare feminista; mutil dantza baztertzailea geldiarazteko publikoki eskatu duten hautetsi, alkate eta instituzioak; etxeko gizon baztertzaileekin mahai-inguruan etsitu gabe eztabaidatzen aritu direnak. Ez dugu atzenduko aliatuen sare horri esker ailegatu garelako momentu honetara. Gure eskerrak beroenak».

Lortutakoa «mugarri garrantzitsua bada ere, ez da aski baztertzearekin akitzea. Egin den mina eta kaltea aitortu eta erreparatzeko bidea abiatu behar dugu. Mutil dantza baztandar guzien ondare kulturala den neurrian, gure plazetan eta dantza eskoletan merezi duen tokia ematea denon ardura da, dantzaren ospea eta balioa berreskuratuz. Hortaz, baztandar guziak animatzen ditugu sendatze prozesu hau elkarrekin abiatzera».

ferreteria

Quevedo

TXERRI HILTZEAN ERABILTZEKO TRESNAK

Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com

Azaroaren 25eko egitaraua prest dute eragile feministek

Mobilizazioa egingen dute larunbat horretan Elizondon, eta antzerkia izanen da hurrengo egunean Iruritan

TTIPI-TTAPA

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a. Hori dela eta, mugimendu feministaren mobilizazioa antolatu dute Iñarrosi Neska* Gazteen Taldeak eta Baztango Talde Feministak. Elizondoko plaza abiatuko da manifestazioa azaroaren 25ean, larunbata, 19:00etan.

Berdintasun batzordeak azaldu duenez, «ozen errepikatu nahi dugu emakumeen kontrako indarkeria estrukturala dela, eta jokaera aunitze-

tan normalizazioaren bidez betikotzen dela. Beharrezkoa da denok konpromiso aktiboa hartzea, matxismoa betikotzen duten jokaerak normalizatuak identifikatuz eta desagerraraziz».

'Trapu zikinak' antzezlan

Honekin lotuta, Lore More antzerki taldeak helduendako *Trapu zikinak* antzezlan aurkeztuko du azaroaren 26an, igandean, 19:00etan Iruritako Gizarte Bilgunean. Baztango Kultura Zerbitzuak antolatu du hitzordua.



NEREA MORTALENA

Gau Beltza Arraiozen giro bikainean

Urriaren 31ko gauean, bertze hainbat herritan gertatu zen bezalaxe, Arraiozko haurrak mozorrotu egin ziren eta eskean ibili ziren herriko karrketan barna, musika lagun zutelarik. Erran behar da mozorro ikusgarriak ikusteko aukera izan genuela.

Gazako sarraskia solasgai izanen dute azaroaren 16an Amezti elkarteak

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Amezti elkarteak *Gazako sarraskia: Nakba berri baten aurrean gaude?* solasaldia antolatu du ortzegun honetan, hilaren 16an, 19:00etan. Nafarroako BDZko partaide den Helena Bengoetxea Gelbentzuket emanen du solasaldia.

BDZ mugimendua

Euskal Herriko BDZ (Israelen aurkako Boikot, Desinbertsio eta Zigorak) mugimendua 2005ean sortu zen eta 173 taldek osatua da (sindikatuak, errefuxiatuen eskubideen aldeko erakundeak, kultur elkarteak, etab).

'Hausnarrean, ardiek egin naute artzain' liburuaren aurkezpena 24an Anizen

TTIPI-TTAPA

Literatura zaleek ere hitzordua izanen dute heldu den astean, azaroaren 24an, Anizen. Josebe Blancok *Hausnarrean, ardiek egin naute artzain* bere azkeneko liburuaren nondik norakoak azalduko ditu ortzi-ralean, 19:00etan elkarteak.

Liburuaz

Prosaz eta poesiaz baliatuz, artzain batek zer bizi duen eta horrek nola zeharkatzen duen azaltzen du idazleak. Artzain protagonistaren egunerokoaren bitartez biltzen du artaldearen urtebetea; bizipenak, hausnarketak, borrorak...



JUAN MARI ONDIKOL

Elizondon ere gau beldurgarria izan dute

Arratsalde eta ilunabar osorako egitaraua antolatu zuten urriaren 31n Elizondon. Haur eta gaztetxoek aukera izan zuten kantatzeko eta dantzatzeko, aurpegia pintatzeko eta kalabazak apaintzeko, merienda hartu eta eskean ibiltzeko eta istorio beldurgarriak aditzeko.

Menopausia eta klimaterioa solasgai Arizkunenean

Baztango Udalak bakarrizketa eta bertso saioa antolatu du azaroaren 19an eta autoezagutzako lantegia 24an eta 25ean

TTIPI-TTAPA

Baztango Bertintasun Zerbitzuak *Menopausia eta klimaterioa* ekintza zikloa antolatu du azaroan. Azaldu dutenez, «emakumeok*, bizitzan, gure garapen pertsonalerako garrantzizkoak diren garaiak pasatzen ditugu. Pubertatea, amatasuna eta klimaterioa dira honen adibide batzuk. Garai bakoitzean sentsazio desberdinak sentitu ahal ditugu... baita zalantzak, beldurrak, kezkak etab. Ziklo menstruala, hasi bezala, akitu egiten da, lehenago edo geroago».

Gaia lantzeko jarduerak

Hilaren 19an, igandea, honi buruzko bertso saioa eta bakarrizketa izanen dira Arizkuneko sabaian 18:30ean.

Azaroaren 24an eta 25ean, berriz, autoezagutzarako tailerra izanen da, *Nire gorputza, nire arauak* izenpean. Arizkuneko hitzaldi aretoan izanen da lantegia, ortziraletan 17:30etik 19:30era eta larunbatean 10:00etatik 12:00etara. Parte hartzeko izena eman beharko da, bertintasuna@baztan.eus helbidera idatziz edo 613 003 634 telefonoan.



MAITANE MARITORENA

Beldurrezko istorioak Anizko hilerrian

Urtero bezala, Gau Beltza egin dute Anizen urriaren 31n. Batzuk aurpegia tapatua zutela, bertzeak pintatua, kalabazaren bat bidean... iluntasunean denak abiatu ziren hilerrirat. Bertan, Asierrek istorio beltz bat kontatu zuen, sustoren bat tarteko. Ondotik, elkarterat joan ziren denak tragoxka bat hartzera.



AKELARRE KULTURGUNEA

'Nieva ceniza' liburua eta erakusketa

Jendez bete zen Akelarre kulturunea azaroaren 3an Ivan Benítezen *Nieva ceniza* liburuaren aurkezpenerako. 1998tik 2022ra erreportari gisa hainbat herrialdetan bizitakoa kontatzen du egileak. Gainera, Benítezen argazki erakusketa paratu dute kulturgunean ikusgai azaroaren 19ra arte.



MAIALEN IANTZI

Herritarrak izutzen aritu dira Berroetan

Aurten ere Arimen Gaua ospatu dute Berroetako ttikienek. Urriaren 31ko arratsaldean kalabazak husten ibili ziren eta ondotik, herriko txoko ilunetan altxatu eta herritarrak izutzen aritu ziren. Gauaz kalabazak herrian zehar paratuta utzi zituzten, gau iluna pixka bat argitzeko!

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE

abokatu

Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

ARKUPEAK

Elkarteak bazkideen telefono zenbakiak eguneratu nahi ditu

Datuak eguneratzeaz gain, elkarteak delegatuak behar ditu Donezteberako eta Baztango Basaburuko kuarterlerako

TTIPI-TTAPA

Azken aldian, bazkide aunitzekin harremanetan jartzeko arazoak ditu elkarteak; batzuek etxeko zenbakia kendu dute, bertzeek mugikorra... Arkupeakentzat ezinbertzekoa da bazkideen mugikor edo etxeko zenbakia izatea, horregatik, elkarteko mugikorrera (618 56 78 37) mezu bat bidaltzeko eskatu dute bazkideen zenbakiak erregistratuta izateko.

Bertzetik, jakinarazi dute epezkantop bidaletara apuntatzen direnak itxaron zerrendan sartuko dituztela, eta

azken orduan bajaren bat edo bada joaten ahalko direla.

Delegatuak behar dira

Orain arte Donezteben delegatu izan den Patxiku Anduezarren heriotzaren ondotik delegatua behar du elkarteak. Doneztebez gain, Almandoz, Berroeta, Aniz eta Ziga herrietarako ere delegatu bat edo bi behar dituzte orain arteko Isaac Alzugaraiak kargua utziko duelako. Bi herrietarako hautagaitzak abenduaren 20a baino lehen aurkeztu behar dira elkarteko telefonora deituz.



UTZITAKOIA

Iraileko eta urriko sariak Leitzara

Lehiaketarekin aitzinera segitzen du elkarteak. Iraileko eta urriko sariak Leitzara joan dira, Julian Iparragirrentzat izanen da irailkoa eta urrikoa, Lourdes Mariezkurrenarentzat. Azaroko galdera ere prest dut elkarteak: **Nola zehazten da Doneztebeko ferietako data?** Erantzunak 618 56 78 37 zenbakira Whatsappez.



LEHEN MAILAKO HORTZ-INPLANTEAK.

BERRESKURATU IRRIBARREA ETA BIZI-KALITATEA.

Inplantologia soluzio bikaina da galdutako edo kendutako hortz bat, batzuk edo guztiak konpontzeko.

Zehazki, inplante bat torioju formako titaniozko pieza teki bat da, maxilarean edo masaliezurrean jartzen dena, falta den hortzaren erroa ordezkatzeko. Horren gainean, neurri egindako protesi linfo bat jartzen da.

Hartara, pazienteak berriro murtikatu, irribarre egin eta normaltasun osoz hitz egin ahal izanen du, bere hortzekin sentitzen zuen segurtasun bera sentituz, eta, beraz, bere bizi-kalitatea itzuliko zala.

FINANTZATU ZURE TRATAMENDUA INTERESIK GABE

WWW.CLINICADENTALIRURITARUBIO.ES

GURE TRATAMENDUAREN ONURAK:

- Irribarrearen funtzionaltasun estetiko, fonetiko eta murtikatzekoa berreskuratzen ditu.
- Edozein elikagai mota jateko aukera ematen du.
- Inplanteak hortz naturalak bezala sentitzen dira.
- Bizi-kalitatea hobetzen du.
- Ez da hezurrik gaitzen.
- Zahartze-ixura gutxitzen du.
- Konfiantza osoz murtikatu eta irribarre egiten ahal da.
- Aho-errehabilitazioko tratamendurik estetiko eta erosoa da.
- Inplanteen materiala organismoarekin biobateragarria da.
- 30 urtetik gorako esperientzia duten espezialistak.
- Neurri egindako finantzaketa, interesik gabe.

30 urte lanean zuretzat

☎ (+34) 618 480 553 ☎ (+34) 948 450 267

✉ recepcion@clinicadentalirubarubio.es

📍 Rosa Seminario 19, 1º. 31740 Doneztebe



Ameriketako ibilitako Pablo Olaizola, eskolako ikasleekin. ARANTXA ETA IRAIA

Eskolan ere ibili dira Xaretatik Ameriketara

Itsasoaren bertze aldera joan ziren herritarren bizipenak ikertu dituzte eta Pablo Olaizolaren bisita izan dute

ARANTXA ETA IRAIA

Irailaren hasieran euskal artzainen eguna izan zen herrian, Ameriketarat emigratu behar izan zuten pertsonen aitortza eginez. Urdazubi-Zugarra-murdiko eskolan ere, *Xaretatik Ameriketara* proiektuaren bitartez, itsasoaren bertze aldera lanera joan ziren herritarren bizipenak ikertzen eta lantzen aritu dira. Bertan bizitutakoa lehenbiziko eskutik aditzeko, Ameriketara joan zen Pablo Olaizola herritarren bisita izan zuten eskolan. Pablo, 18 urterekin joan zen artzain eta 7 urte pasatu zituen.



Murala ere prestatu dute eskolan.

Pablaren istorioak adituz goiz polita pasatu zuten ikasleek. Hala ere, Pablok aitortu moduan, lan gogorra zen hura eta «han bizitzeko baino hobea da orain hemen kontatzeko».

Azaroaren 25eko egun berezia ekitaldiz betea dator aurten ere

Azaroaren 25a emakumearen aurkako biolentziaren aurkako eguna izaki, herrian hainbat ekitalditako programazioa aurkeztu du Ugarana elkarteak. Larunbatean, 09:00etan, mendi itzulia egingen dute Urdazubitik Zugarramurdirat eta pultserak emanen dituzte

ibilbidearen hasieran. 12:00etan emakumeen bote luze partida izanen da Urdazubiko frontoian, musikaz alaiturik. Azkenik, Koxka jatetxean bazkaria izanen da. Izena emateko zenbaki hauetara deitu daitezke: 607 92 43 79 (Ainhoa) eta 690 12 34 93 (Anastasi).

Hilerriko ateko gurutze handia berritu dute

Urteroko gisan Omiatasindua egunerako hilerria ederki apaindu zuten herritarrek. Halere, berrikuntza berri bat ere izan da: hilerriko ateko gurutze handia berritu dute. Aspalditik xahartua zen gurutzea eta aurten udalak gurutze berria paratu du.

Turismo bulegoa azaroaren 6tik 27rat hetsia dago

Neguan bisitarien kopurua jausten denez, turismo bulegoa zenbait egunez hetsia egonen da. Azaroaren 6tik 27rat egingen du lehen pausa eta gero, berriz irekiko dute. Halere, abenduaren 11tik heldu den urteko martxoaren erdialderat berriz ere hetsiko dute.



Joan den urtean Paco Bentako pintxoak irabazi zuen epaimahaiaren saria.

Dantxarinako X. Pintxo lehiaketa egiten ari dira larunbatera bitarte

ARANTXA ETA IRAIA

Urteroko hitzordu berezia abian da aurten ere. Hamargarren edizioa bete duen Dantxarinako pintxoaren hamabortzaldia azaroaren 4an hasi zen eta azaroaren 18an akituko da. Axularreko Drunken Duck, Bioken Lapitxuriko jatetxeak eta Snack ostatuak, Landiba-

rrek, Venta Pacok, Venta Pantxok eta Venta Peiok bakailaoa eta patata nahitaez izan behar duten pintxo bereziak aurkeztu dituzte eta horien artean onena bozkatzeko aukera izanen da Facebook bitartez. Horien artean Mutrikuko Haitzalde agroturismoan egonaldia bat zozketatuko dute.



Santa Katalina besta eginen dute hazilaren 26an

Baratxarte auzoko kaperan meza izanen dute eta ondotik aperitifa, tripotxak eta guzi

GANEX

Hilabeteko azken igandean, azaroaren 26an, Santa Katalina bestak ospatuko dituzte Baratxarte auzoan. Igandean, 10:30ean, egin dute hitzordua; ordu horretan meza izanen dute kaperan eta ondotik, eguerdian, aperitifa eskainiko dute hurbiltzen diren guztientzako Baratxarteko ostatuaren aitzinean, estofazko lehor aspian.

Aspaldian ez zituzten eginak, baina aurten tripotxak eginen dituzte. Beraz, menuan, tripotxak, garbantzuak, aratxea



Santa Katalina kapera.

saltsan eta pantxineta izanen dute. Prezioa 32 auro. Horretarako izena eman behar da lehenbailehen 05 59 54 20 48 telefonora deituz.



Pontx pailazoaren ikusgarri berria larunbatean Lur Berri gelan. ARTXIBOKOA

Pontx pailazoaren Gelara! ikuskizun berria estreinatuko dute larunbatean

TTIPI-TTAPA

Gelara! ikusgarri berriaren prentsaren aitzineko aurkezpena egin zuen herriko Pontx pailazoak azaroaren 4an herriko etxean. Pontx ikusteko aukeraz gain, ikusgarri honen gibelean lan egin duten partaide batzuen bizipenak entzuteko aukera izan zen. Izan

ere, ikusgarri hau osatzeko jende anitz ibili da lanean eta berrikuntza anitz ekarri dizkiote aurtengo denboraldihoni. Bideokliparen aurkezpena ere egin zuten. Ikusgarriaren estreinaldia, berriz, azaroaren 18n, larunbatean, 17:00etan egingen du Pontx pailazoak Lur Berri gelan.



GANEX

Ehun urte bete ditu Frantxa Zubelzuk

Andoitzeko bordako Frantxa Zubelzuk urriaren 30ean egin ditu 100 urte. Herriko Etxeko Kontseiluko Anniek eta Marie Pierrek loreak eman dizkiote. Frantxa bortz haurrideetatik hirugarrena izan zen eta denak galduak ditu. Orai, duela urte bat inguru, Sarako zahar etxean da.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu



www.ibargoyen.net ☎ 943 616 587
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

Hiruka'ntuz bazkaria Inharrian eginen dute azaroaren 25ean

Zaldubi Ikastolak antolatutako ekitaldirako erreserbak hilaren 19ra bitarte egin daitezke

JL BESSONART

Hiruka'ntuz. Izenburu bitxi honek, Xilabaren gisa, gonbidapena zabaltdu die Xibero, Baxenabarre eta Lapurdiko kantuzale guzieri, Nafarrak ere gomit dira. Kantu bazkariak giro aparta sortzen du, ez da inolaz ere lehiaketa, haatik lurralde bakoitzak bere kantu bereziak aurkezten ditu. Kide bakoitzak parte har dezake kantu liburuxkaren laguntzarekin, baina ez da hortan mugatua. Zaldubi Ikastolak antolatu du Ibarrun Inharrian, azaroaren 25ean, larunbat eguerdian. Gaitzeko menuan aurki daiteke amuarraina, zerrikia, ardi gasna, deserta, arnoa eta ondokoa, liburuxka barne, eskainia da 30 eurotan. Erreserbak beharrezkoak dira mezu bidez 06 09 80 90 39 zenbakira, hilaren 19a aitzin.

Omiasaindua

Beti bezala, euri erauntsiei eskapatuz, kartsutasunean eta ongi kantatuzko zeremoniak bildu ditu herritarrak elizan eta arratsaldean bezpetatik lekura hilerrian. Iduri luke Senpere kristau urratsei baita familien elkartzeari azkar lotua dela, hala nola Gau-Beltza, Arimen Gaua edo Halloweeneko ekitaldirik ez dago momentuan.

'Loreak belaunetan' dokumentala

Euskal Herriko zazpi artista gazteri ematen die hitza *Loreak belaunetan* dokumentalak. Larreko kulturgunean dohainik ikusgai izanen da azaroaren 23an, ortzegunean 19:00etan. Eusko Ikaskuntza Iparralde egiturak antolatu du ekitaldia.



JL BESSONART

Errugbiko finala pantaila handian

Ororen buru, egin behar ziren ekitaldietatik, munduko txapelketako finala baizik ez da erakutsia izan pantaila handi baten bitartez, herriko etxearen eta Spuc Kirola elkartearen ekimenez. Nola Frantziako ekipoa ez baitzen barne, jende gutixego hurbildu da *Fan Zone* edo zaleen gunera.



Xan Ithourriari egin zioten omenaldia, 2015ean. FRANCK DOLOSOR

Xan Ithourria euskalzale eta pilotazalea pausatu da Omiasaindu bezperan

JL BESSONART

Omiasaindu bezperan, pausatu da bere familiaz inguratutik, datorren otsailean 100 urte beteko zituen Xan Ithourria. 1924an Ibarrungo Kataloxenean sortua, aspaldian Hiruak Bat etxe guneko kasakoan, Bista Eder etxean bizi zen. Euskaldun fededun, nortasun eta bihotz handiko gizonak bere aztarnak utziko ditut gure herrian, borondate onez hainbertze alorretan lan egin baitu. Ofizialez ekipamenduko langile izanik, parte hartu du, bertzeak bertze, giristino laborari gazteen era-

kundean (JAC), Emak-Hor batasunean, parropian, Spuc pilota elkartearen, suhiltzaileetan, herriko etxeko kontseilari, beranta arte bere aholkuak eman dizkie pilotari gazteei eta beti euskaraz. 30 urte goiti, *Herria* astekarian Senpereko berriak zabaltu ditu, erakutsiz herriari eta euskarari zion atxikimendua. 2015ean omendu zuen herriak eta bere izena eman herriko plaza bati. Jean Pierre Soudre *Larreko* bere lagunaren bidea hartu du, bertze mundu horretan bertsoa eta pilota ongi uztartuko dituzte.



UTZITAKOIA

Ravel akademia elizan larunbatean

Azaroaren 18an, larunbatean, 20:00etan elizan, herriko etxearen eta Maurice Ravel Akademiaren ekimenez, kontzertua emanen dute, dohainik. Noémi Gasparini biolinan eta Albéric Boullenois biolontxeloan entzunen ditugu. Paganini, Berio, Bach eta Ravelen obrak aurkeztuko dituzte.



Beti Gazte, Amaiur eta Berriozar, emakumeen podiumean. AITOR AROTZENA

Nafarroako sokatira txapel guziak irabazi ditu Beti Gaztek

Lesakako taldeak gizonen eta emakumeen txapelak jantzi zituen azaroaren 5ean Beran

A. AROTZENA BERA

Beti Gazteko sokatira taldeek ez zuten hutsik egin eta, pronostikoak betez, Nafarroako gizonen eta emakumeen sokatira txapelak jantzi zituzten azaroaren 5ean Berako Eztegar pilotalekuan. Amaiur ere bi kategoriatan podiumean izan zen, bigarren emakumezkoetan eta hirugarren gizonzkoetan.

Gizonzkoak zortzinaka aritu dira, 620 kiloko kategorian eta Elizondoko lehen jardunaldian bezalaxe, Beran ere Beti Gazte nagusitu zen tiraldi guzietan. Bigarren postu-

rako, aldiz, Berriozar nagusitu zitzaion Amaiurri. Txantrea laugarren izan zen, Antsoainen aitzinetik. Beti Gazteko zortzikote txapeldunear Ander Mitxelena, Oskar Telletxea (Igantzi), Iker Pikabea, Beñat Ordoki, Unai Gurrutxaga, Iñigo Altzugarai eta Gerardo Telletxea aritu

AZAROAREN 24AN HASIKO DA EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA


ziren tiran, Joxe Angel Mitxelena entrenatzaile zutela.

Emakumeak, berriz, seinaka aritu dira, 385 kiloko kategorian. Honetan ere, Elizondoko lehen jardunaldian bezala, Beti Gazte irabazi zituen tiraldi guztiak Beran, Amaiur izan zen bigarren, Berriozar hirugarren, Txantrea laugarren, Araxes bosgarren eta Antsoain seigarren. Beti Gazteko seikote txapeldunear Irantzu Goienetxe, Karmele Pikabea, Irati Andueza (Doneztebe), Ainhoa Etxegarai (Bera), Ainhoa Ubiria eta Maria Iantzi (Igantzi) aritu dira tiran, Joxe Angel Mitxelena entrenatzaile eta Maialen Lopez laguntzaile zutela.

Sariak eta txapelak banatzen izan ziren Jon Telletxea Nafarroako Herri Kirol Federazioko presidentea, Aitor Elexpuru Berako alkatea, Angel Pombar kirol zinegotzia eta Nerea Sorondo Berako aizkolaria.

Euskal Herriko txapelketa

Nafarroakoa bukatuta, Euskal Herriko 4x4 txapelketa jokatuko zen joan den asteburuan Ibarren eta Antsoainen. Ondotik, zortzinakako Euskal Herriko txapelketa hasiko da azaroaren 24an. Heldu den urteko otsailaren 8tik 11ra munduko txapelketa Suedian jokatuko dela kontuan hartuz, txapelketa garrantzitsua izan da, bertan erabakitzen baita zein taldek ordezkatu duen Euskal Herria nazioarteko lehian.



Errandonea, Elzaurdia eta Albisu.

Ane Elzaurdia eta Beñat Albisu bikain Asturiasko Redes Trailen

TTIPI-TTAPA

Urriko azken asteburuan Asturiasen egindako Redes Trail lasterketan parte hartu zuten Berako Ane Elzaurdiak eta Beintza-Labaiengo Beñat Albisuk, eta teknikari gisa aritu zen Julen Errandonea beratarra. Elzaurdiak emakumezkoetan 6. postua lortu zuen eta Albisuk 19. absolutua eta 1. jubeniletan. Larunbatean izan zen Sobrescobio Redes Traileko Speed Trail lasterketa, Asturiasko Redes parkean, eta 405 lasterkarik parte hartu zuten. 14,6 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten, 875 metroko desnibelarekin. Albisuk 01:23:21 denboran egin zuen (19. postua absolutuan) eta Elzaurdiak 01:38:18 (89. postua absolutuan).

Iker Vicentek irabazi du Euskal Herriko aizkolaritza txapelketa nagusia Iruñean

TTIPI-TTAPA

Iker Vicentek irabazi zuen Euskal Herriko Aizkolaritza Txapelketa azaroaren 1ean Nafarroa Arenako finalean nagusituta. Vicentek 41 minutu eta 11 segundo behar izan zituen lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko enborrak

mozteko. Hodei Ezpeleta bigarren izan zen (45.58) eta Oier Kañamares hirugarren (50.33). Julen Gabirondo izan zen laugarren (55.25), Zigako Joxean Etxeberria bosgarren (57.18), eta seigarren, azken orduan *Basozabal* ordezkatu zuen Xuban Kañamares (68.57).



Iker Vicente txapelduna, Hodei Ezpeleta eta Oier Kañamares podiumean.



Finalistak, epaileak, laguntzaileak eta joaldunak Zubirin. UTZITAKOA

Uterga eta Mitxeo Nafarroako txapeldun izan dira

35-30 irabazi zieten bi doneztebarrek urriaren 28an Zubiriko finalean Otxandorena herritarrari eta Ion azpeitiarrari

TTIPI-TTAPA

Nafarroako XVIII. erremonte txapelketaren finala jokatu zuten urriaren 28an Zubirin. Xanti Uterga eta David Mitxeo doneztebarrak suertatu ziren txapeldun, Eloy Otxandorena herritarrari eta Ioni 35-30 irabazita. Otxandorenak eta Ionek elkarrekin jokatuako partida

guztiak irabaziak zituzten txapelketa honetan eta favorito ziren, baina galdu egin zuten finalean. Partida osoa berdindua izan zen, baina erabakigarria izan zen 11-12 zirela Ionek sumatu zuen ziztada. Halere, partida borrokatua izan zen eta urdinak aitzinetik ere izan ziren (12-14, 13-16).

Hamaseinako berdinketaren ondotik, ordea, beti aitzinetik izan ziren gorriak, baina alde handirik gabe (18-16, 18-17, 19-17, 19-18, 20-18, 20-19). Gorriek borts tanto segidan egin zituzten (25-19) eta bazirudien partida hautsi zutela, baina urdinek lau tanto eginez erantzun zuten (25-24). 29-28koan ere tanto bakarrera jarri ziren urdinak, baina azken txanpan hobe moldatu ziren Uterga eta Mitxeo (35-30).

Utergak hamahiru tanto egin zituen, Mitxeok eta Otxandorenak hamarna eta Ionek zortzi. Gisa honetara, Mitxeo gazteak bere lehen txapel handia jantzi zuen eta Utergak, berriz, hirugarren aldiz segidan irabazi du Nafarroako txapelketa, hiru atzelarirekin: 2021ean Otanorekin, 2022an Agirrezabalarekin eta 2023an Mitxeorekin.

Zubiriko kiroldagian jokatutako jaialdia animatzen Iturengo joaldunak izan ziren eta giro ederra izan zen harmailetan. Jaialdiko lehen partidari, Zeberio II.ak eta Barricartek 30-21 irabazi zieten Matxin III.ari eta Otanori. Txapelketa osoan bezala, sarrean bildutako guztia ADANO elkartera bideratu da.

Sei hirukote hasi dira Nafarroako 24. paxaka txapelketan

TTIPI-TTAPA IRURITA

Baztan eta Malerrekako sei hirukotek eman dute izena Laxoa Elkarteak antolatutako Nafarroako paxaka txapelketaren 24. edizioan. Lehen jardunaldia azaroko lehen egandean jokatu dute Iruritako Aranabia pilotalekuan. Ligaxkako lau lehenbizikoak abenduaren 10ean jokatuko diren finalerdietarako sailkatuko dira eta finala eta hirugarren posturako partida abenduaren 17an jokatuko dituzte. Taldeak: Oskar Urrutia (Irurita), Xabier Barberena (Elizondo) eta Joxe Itoiz (Erratzu); Manu Irigoien (Erratzu), Egoitz Prim (Irurita) eta Kaiet Itoiz (Erratzu); Gorka Urtasun (Irurita), Mikel Sagaseta (Irurita) eta Juan Mari Maia (Elizondo); Jon Apeztegia (Doneztebe), Mikel Telletxea (Doneztebe) eta Ugutz Zelaia (Oiz); Ioritz Zelaia, Iker Bereau eta Laurendi Zelaia (Oiz); eta Jabi Apeztegia, Iban Juanena eta Daniel Pio Garcia (Doneztebe).

Ezkurra II.a eta Martirena garaile Azpeitian

Azpeitiko erremonte txapelketaren finala jokatu zuten urriaren 27an. Josetxo Ezkurra II.a doneztebarrak eta Martirenak bi jokoak irabazi zizkieten Aldaberi eta Saldiasko Aritz Juaneneari (15-11 eta 15-4). Bertzalde, hasi berria da binakako 53. erremonte txapelketa. Ezkurra II.a eta Juanenea ari dira maila nagusian eta Urrutia II.a saldiastarra eta Apeztegia eta Zubiri goizuetarrak bigarren mailan.



MAIALEN ANDRES

Eskuz binakako I. Arkupe pilota txapelketa prest

Lesakako Arkupe pilotazale elkarteak lehen aldiz antolatu du eskuz binakako Arkupeko pilota txapelketa. Zazpi kategoriatan banatuak ariko dira pilotariak: umeak, kimuak (neskak eta mutilak), haurrek, gaztetxoak, gazteak eta senior. Kategoriatan guztietan lehiaketa irekia da. Izena emateko epea azaroaren 19ra arte dago irekia, joseluistainta@gmail.com edo salaa@gmail.com helbide elektronikoetan. Txapelketa 2024ko urtarrilaren 14an hasiko da eta martxoaren 2an jokatuko dituzte finalak.

AGENDA

AZAROAK 16 - 30

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



DONEZTEBE Mendiaren Eguna

Erreka Kirol Elkarteak antolatua. Mendi irteera, poteoa, bazkaria eta Alex Txikonen dokumentalaren emanaldia. Azaroaren 26an.

AZAROAK 25

IGANTZI

'Nagore' dokumentala

Azaroaren 21ean, 17:00etan. Izen ematea berdintasuna@bortziriakberd.eus helbidean edo 722 69 30 78 telefonoan.

ARESO

Elkarretaratzea

Plaza zaharrea, azaroaren 25ean, 12:00etan.

URDAZUBI

Mendi itzulia, emakumeen bote luze partida eta bazkaria

Azaroaren 25ean. Izen ematea 607 92 43 79 edo 690 12 34 93.

ELIZONDO

Mobilizazioa

Plazatik, azaroaren 25ean, 19:00etan.

IRURITA

'Trapu zikinak' antzerkia

Lore More taldearen eskutik. Gizarte Bilgunean, azaroaren 26an, 19:00etan.

IKUSKIZUNAK

AMAIUR

'Liburu sendalaria' ipuina

Otsondo gelan, azaroaren 16an, 17:30etan.

SARA

'Gelara!' Pontx pailazoarekin

Lur Berrin, azaroaren 18an, 17:00etan.

LEITZA

Zinema

Herri Aretoan, azaroaren 18an eta 19an. 17:00etan 'El rey de los cowboys' eta 19:30etan 'La contadora de películas'.

BERA

'Entre tinieblas' antzezlan

Kili Kolo taldearen eskutik. Kultur etxean, azaroaren 18an, 19:00etan.

Zahar etxearen aldeko freestyle ikuskizuna

Funbox Factoryren eskutik. Toki Onako patioan, azaroaren 26an, 17:00etan.

GOIZUETA

'Pirata garrapata'

Herriko Etxeko ganbaran, azaroaren 19an, 17:30etan.

ELIZONDO

Menopausiari buruzko bertsoak eta bakarrizketa

Arizkunenean, azaroaren 19an, 18:30etan.

SENPERE

'Loreak belaunetan' dokumentala

Larrekon, azaroaren 23an, 19:00etan.

LESAKA

'Identitateak' antzezlan

Gilkitxaro taldearen eskutik. Harriondoan, azaroaren 26an, 18:00etan.

MUSIKA

LESAKA

Santa Zezilia eguneko kalejirak

Azaroaren 18an, 24an eta 25ean.

AZPILKUETA

Baztan Kantuz

Plazan, azaroaren 19an, 12:00etan.

BERA

Santa Zezilia eguneko kontzertua

Musika eskolan, azaroaren 20an, 18:00etan.

ELIZONDO

Baztango Musika Eskolaren Santa Zeziliako kalejira

Azaroaren 21ean, 17:00etan.

SENPERE

Hiruka'ntuz kantu bazkaria

Inharrian, azaroaren 25ean.

SOLASALDIAK

ELIZONDO

'Gazako sarraskia: Nakba berri baten aurrean gaude?'

Helena Bengoetxearekin. Amezti elkartean, azaroaren 16an, 19:00etan.

'Nire gorputza, nire arauak' lantegia

Arizkunenean, azaroaren 24an eta 25ean. Izen ematea berdintasuna@baztan.eus helbidean eta 613 00 36 34.

ANIZ

'Hausnarrean, ardiek egin naute artzain' liburuaren aurkezpena

Josebe Blancorekin. Elkartean, azaroaren 24an, 19:00etan.

LESAKA

'Sortze berri bat indarkeria obstetrikorik gabe' liburuaren aurkezpena

Estitxu Fernandezekin. Udal Pleno Aretoan, azaroaren 25ean, 11:00etan.

«Teknikarik gabe, fisiko ona izatea alferrik da sokatiran»

SARAI MARITORENA ETXENIKE BERROETAKO TIRALARIA



MAIALEN MUTUBERRIA

Amaiurko Sokatira Taldean aritzen den Berroetako neska da Sarai Maritorea Etxenike. Azaldu duenez, «bakoitzak bere burua definitzea ez da erraza, baina gazte mugitua naizela erranen nuke, helburu batekin buruan: zapalkuntzarik gabeko gizarte baten bidean!». Lagunekin planak egitea eta mendira joatea ditu zaletasun, eta noski, kirola.

Ttikitatik plazan

«Gaztetatik» ibili izan da herri kirolen munduan; «ttikitan Basaburuko herri kirol taldean aritzen nintzen, eta hor izan nuen lehendabiziko aukera sokatiran hasteko».

Gerora, «talde honek ez zuen segidarik izan, eta Amaiurko Sokatira Taldea berriz ere martxan paratu behar zutela aditu nuenean,

ez nuen bi aldiz pentsatu!». Hala ere, ez da egiten duen herri kirol bakarra: «gaur egun, herriz herrikoan Basaburua taldearekin arpanan parte hartzen dut».

«Kirol gogorra»

Nafarroako Sokatira Txapelketa berriki akituta, lan ederra egin du talde amaiurtarrak: «bigarren postuarekin ailegatu gara etxera». Horren gibelean, noski, «entrenamendu ordu aunitz» daude; «astean bi aldiz entrenatzen gara, polearekin eta elkarren kontra eginez, eta bakoitzak

«LEHENAGO LEHERTZEN DA BURUA GORPUTZA BAINO»

etxean ariketak egiten ditu fisikoa mantentzeko».

«Kirol gogorra» dela dio Maritorenak, «alde batetik, taldekide guztien artean egitura finko bat lortu beharra dugu, hau da, bloke soil bat izatea. Bertetik, nahiz eta tiradak motzak izan, goma gainean pasatzen ditugun minutuak arras bortitzak dira, gorputza muturrera eraman arte. Hor dago nahi eta ezin izatearen lehia».

Hala ere, «teknika da sokatirako gauzarik garrantzitsuenetakoa. Fisiko ona izanda ere, teknikarik ez baduzu, alferrik da». Hau «entrenamendutik entrenamendura ikasten da, eta hor paper garrantzitsua dute gure entrenatzaileek. Teknikoki landu behareko gauzak aunitz dira: aipatutako bloke hori egitea, soka gorputzean ongi sartzea hankekin lan egin ahal izateko... lan haundiko kirola da».

Burua hotz

Gorputzaz eta teknikaz gain, buruaren lanketa ere ezinbertzekoa da; «gehienetan honi kontra egin behar diozu, gorputza baino lehenago lehertzen baita. Aunitzetan gainean sumatzen dugun presioa haundia izaten da».

Horrek «niri txapelketa bateko bigarren jardunaldian eragin izan dit gehienbat. Hau da, lehenengo jardunaldian uste baino maila hobea goa ematen baduzu, bigarreneko presioa sumatzen duzu emandako maila hori berdintzeko edo hobetzeko».

Goman sartu aitzinetik «urduri sentitzea» normala dela dio; «baina niri horrek

«TALDEKO KIROLETAN LEHIATZEA GUSTUKO DUT»

eta inguruko oihuek indarra ematen didate tiratzeko». Izan ere, «taldeko kiroltan lehiatzea gustuko dut. Taldean aritzeak, bakarka aritzearen aldean, bertze konpromisoak ditu: entrenamenduetara egokitzea, erabakiak denon artean hartzea, gure arteko komunikazioa...».

Eman eta kendu

Sokatirak «jendea ezagutzeko aukera eman dit, eta plazara da haiekin plazara ateratzea. Gainera, giro arras ona dago herri kirolen munduan oro har».

Baina dena ez da ona; «sokatiraren alde txarrena asteburu aunitz hortara bideratuak daudela da. Horrek plan aunitzi ezetz erran behar izatea exijitzen du».

Eskualdean sokatirako eta herriz herrikoarako zaletasuna «indarra hartzen ari dela» dio Maritorenak, «eta tira, beharbada, azkeneko honetan sorpresatxo bat izanen dugu heldu den urterako».

Emakumeen kategorian ere «sokatira nahiko egoera onean dago, ikusi bertzerik ez da zenbat taldek parte hartzen dugun txapelketetan. Gainera, modalitate hau da herri kiroltan federatu gehien duena». Bertetik, «geroz eta gehiago gara bertze probetan parte hartzen dugunak ere».

Etorkizunera begira, taldearen asmoak argi dituzte: «ikasten segitzea eta ahal bada txapelen bat etxera ekartzea!». Maritorenari dago-kionez, «taldekideekin batera entrenatzen segitu nahi dut eta ongi prestatuz gero, noizbait munduko txapelketa batean parte hartzea gustatuko litzaidake».

Azkenik, «txirrinta duen edozein gonbidatu nahiko nuke sokatira probatzera. Kirol honek badu zerbait harrapatzen zaituena».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN HARTZEKO

BERA. Pisu bat errentan hartu nahi nuke. Pertsona arduratsua eta garbia. ☎600 64 34 60.

SALGAI

ELIZONDO. Giltxaordi karrikan pisua salgai: 3 logela, egongela, balkoia, hall, bainugela (berritua) eta sukaldea (berritua). Oso eguzkitsua. Bizitzera sartzeko prest. 105.000 euro. ☎676 88 83 35.

LANA

ESKARIAK

Zugarramurdi bizi den 50 urteko emakumea, adinekoen zaintzailea eta bere kobxearekin, Saran, Zugarramurdi, Ainhoan edo Urdazubin interna ariko litzateke. ☎643 51 37 80.

ESKAINTZAK

SUNBILLA. Adineko pertsona bat zaintzeko norbaiten bila ari dira, externa aritzeko. ☎699 14 66 85.

BERA. Ibardingo Beola Etxean kutxazaina behar dute astebururo, egun bakarrean lanean aritzeko. Frantseza jakitea beharrezkoa. Bidali curriculumak: beolaetxea@gmail.com.

BERA. Ibardingo Beola Etxean lanaldi osoan aritzeko zerbitzaria behar dute. Astean bi egun libre. Bidali curriculumak: beolaetxea@gmail.com.

BERA. Ibardingo Beola Etxean lanaldi erdian aritzeko zerbitzaria behar dute. Astean bi egun libre. Bidali curriculumak: beolaetxea@gmail.com.

SUNBILLA. Espelosin Eraikuntzak igeltsero aritzeko langile bila. ☎619 41 69 59.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



BAZTAN. Collie eta euskal zakur nahasketaren txakurkumea oparitzeko, hiru hilabetekoa. Pertsona arduratsu batentzat. Telefono finkorra deitu edota zalantzak Whatsapppe. ☎948 58 11 36 / 636 18 15 46.

Pirinioetako mastin arrazako zakur emea oparitzeko. Urte batekoa. ☎674 49 28 21.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik



Katakumeak opari. Katakume bixi eta jostalariak etxe bila. ☎652 75 08 17 / 948 61 50 05.

SALGAI



LEITZA. Txerriak salgai, kanpoan ibiliz hazi eta bizi direnak, garaian

garaikoa janez: gaztainak, sagarrak, ezkurak.... ☎636 02 23 11.

2 urteko txerria salgai. ☎639 85 89 05.

DENETARIK

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

Umeentzako Bugaboo silleta salgai, egoera onean (maxi cosi, kapazoa eta silleta), grisa eta gordin kolore-

koa, bi zakurekin. Sehaska txuri bat ere bai. Negoziatu beharreko prezioa. ☎659 86 74 14.

EROSI

Helduentzako egokia eta egoera onean dagoen trikitixa erosiko nuke. ☎628 82 84 80 / 948 63 80 44.

MOTORRAK

SALGAI



Volkswagen Multivan 2.5 TDI furgoneta salgai. 2000koa, guztiz ekipatuta. Beheko ohea eta goiko ohearekin. Berogailua, eguzki panela, arroparentzat armairua eta ur arraska altzariarekin. Urteak ditu, baina zainduta dago. IAT-ITV urtero eta homologaturik. 11.000 euro. ☎680 94 61 49

ZERBITZUAK

DENETARIK

ARANTZA ZURGINDEGIA
Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Jose Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

Lortu zure saskia CLUB AVIA txartela erabilita!

Etorri guregana eta ez galdu aukera!

Litzako Bidea, 49
DONEZTEBE

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,33 €
- 1.koa 5,21 €
- 2.koa 5,09 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,44 €
- 1.koa 5,30 €
- 2.koa 5,19 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 210,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,40/5,50 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 11,40/11,50 €
- 8-10 kilokoak: 9,30/10,00 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 74 €

Zerri gizona 1,658 €

Zerramak 0,840€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua urriaren 27tik azaroaren 3ra bitarteko prezioak)

KONTATU KONTUAK



Berako zahar etxeoko bazkaria. Joan den urriaren 18an Berako San Jose Zahar Etxekoak mahaiaren bueltan bildu ziren. Zenbait herritarren laguntzari esker, urteak daramatzate bazkari hau egiten, eta aurten ere ez dute hutsik egin. Bere garaian, zahar etxeko bizilagunentzat eta langileentzako hasi ziren bazkaria antolatzen, eta aurten 63 lagun bildu dira, patronatuko kideekin, medikuarekin eta boluntarioekin batera. Zahar etxeokoa kontatu dutenez, «giro ezin hobean eta elkarrekin primeran» pasatu zuten eguna, eta eskerrak eman nahi izan dizkiete otordu hori egitea ahalbidetu zuten guztiei, «zuek gabe ezinezkoa litzateke».



Palestinari elkartasuna adierazteko elkarretaratzeak. Israel Palestinan egiten ari den sarraskia salatzeke eta palestinari elkartasuna adierazteko Euskal Herriko hainbat bazterretan elkarretaratzeak egin zituzten azaroaren 7an. Baita gure eskualdean ere. Bertzeak bertze, Lesakan, Beran, Areson, Leitzan, Elizondon eta Goizuetan karrikara atera ziren eta konponbide politikoa eskatu zuten.


URTEBETETZEAK



Nahia Gomez Ribeiok 11 urte beteko ditu azaroaren 18an. Zorionak eta aunitz urtez familia eta bereziki Sararen partetik. Muxu haundi bat!



Izei Etxeberria Urriza lesakarrak 2 urte bete ditu azaroaren 4an. Zorionak gure etxeko txikienari, familia guztiaren partez. Muxu bat, pottolo!



Igantzioko **Haizea Aranguren Irigoienek** 7 urte beteko ditu azaroaren 17an. Zorionak eta muxu pila bat guraso, Jon eta amatxien partetik. Hagitz ongi pasatu zure egunean!



Intza Iribarren Elizalde azaroaren 28an 9 urte beteko ditu. Zorionak politta etxeoko eta bereziki Pagoaren partez. Muxu aunitz!




Aresoko **Irati Barandain Iraolak** 3 urte beteko ditu azaroaren 29an. Zorionak etxeko sorginari, txolokatezko bizkotxoak janez ospatuko dugu.



Doneztebeko **June Tellexea Juane** 9 urte beteko ditu azaroaren 25ean. Zorionak etxeoko eta bereziki Elaiaren partetik! Oso gustura ospatuko dugu!!



Urrozko **Ugaitz Matxiñenak** urtea beteko du azaroaren 24an. Muxu potolo bat denen partez, lbai eta Areneren partez bereziki!!!



Zorionak **Noa** eta **Julen**, azaroaren 9an eta 15ean 4 eta 7 urte beteko dituzuelako. Muxu potolo bana familia guziaren partez.



Donamariako **Oinatz Ariztegi** 7 urte egingen ditu azaroaren 25ean. Aunitz urtez familia guztiaren partez eta bereziki Egoiren partez. Prestatu merienda goxoa, eee!

SORTZEAK

- **Eneko Fossaries**, Saran, urriaren 14an.
- **Lutxo Arizkorreta Champetier**, Saran, urriaren 17an.

EZKONTZAK

- **Francisco Henandez** eta **Hofer Cardoso**, urriaren 21ean Saran.

OROIGARRIA

**Joaquina
ALDUNTZIN ARRIZURIETA**

Leitzan, 2023ko azaroaren 4an, 81 urte zituela

*Zorionekoak izan gara
zu gure ama eta amona izateagatik
eta bizitza guztia gurekin egoteagatik.*



ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Pablo
IRASTORZA UGALDEBERE**

Irunen, 2022ko azaroaren 15ean, 70 urte zituela

I. URTEURRENA

*Urtea luze joan den arren,
zure distira izan dugu bidelagun.
Zure argia ez da bizi garen artean itzaliko.
Asko matte zattugu.*



ETXEKOAK

HILBERRIAK

- **Cecile Iturria**, Sara, urriaren 21 ean, 99 urte.
- **Marcelle Remonte**, Sara, urriaren 25ean, 90 urte.
- **Tomas Mindegia Garro**, Oieregi, urriaren 26an, 88 urte.
- **Eduardo Etxebeste Behobide**, Bera, urriaren 26an, 68 urte.
- **Jesus M^a Iñigo Ariztegi**, Ituren, urriaren 28an, 85 urte.
- **Marie Jeanne Hirt**, Bera, urriaren 29an.
- **Joaquina Alduntzin Arrizurieta**, Leitzan, azaroaren 4an, 81 urte.
- **Maria Nieves Dufurrena Etxenike**, Erratzu, azaroaren 4an, 90 urte.
- **Emiliana Nemours Ezponda**, Elizondo, azaroaren 6an.
- **Jose Luis Baztarrika Telletxea**, Leitzan, azaroaren 7an, 59 urte.




IZARRA
HERRA, ZURE ONDOKO
ARTEA, ZURE






Gure harria,
gure jendea,
gure sustraiak

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

Oroigarriak

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira





KULTURKARI
Divisio grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58



BAZTAN BIDASOA
Onaketa Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEAn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**
www.tanatoriosirache.es

HERRITARREN ARRETARAKO BULEGOAK

HITZORDURIK GABE
8:00* - 9:30

HITZORDUAREKIN
9:30 - 14:30



ZUK AUKERATU

Orain Nafarroako Gobernuaren herritarren arretarako eta erregistroko bulegoetara joan zaitezke HITZORDUAREKIN edo GABE.

* Ogasuneko bulegoak 8:30ean irekitzen dira

Informazioa
eta hitzordua



948 012 012

herritarrenarreta.nafarroa.eus

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



ZORIONAK!
ENARA UGARTEMENDIA
ARANTZETA
 841. aleko irabazlea zara!



MEZU GORDEA

Eman marrazkitxo bakoitzari bere hizkia eta esaera zahar bat agertuko zaizu. Erabili alboko hizki-marrazki alfabetoa.



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



Marrazkiak: Garbale Ubeda (Alumni)



Loguntzailea
ibaizabal

Plazan bazan egiteak **BADU SARIA!**

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin azaroaren 20a baino lehenago, Ttipi-Ttapako Whatsappera:
 (0034) 744 48 43 61 zure izen abizenak jarrita.
 Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!



INTERNETEN ERE BAI!

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

MARGOTU

Azaroa urteko hamaikagarren hilabetea da, kuien eta onddoen garaia. Behean idatzita dago, baina kolore apur bat merezi du, ezta? Bada, eman iezaiozuz!



GAUZA BERA DA

Zer diote gure lagunek? Hitza bana falta zaie, ezta? Begiratu bakoitzak duen taulari eta zoaz leutiz lauki, hizkiak batuz geziek agintzen dituzten moduan. Bi kasuetan nabarmenduta dagoen koardotxoa duzu abiapuntua. Jakin ezazu azaroari deitzeko moduz ari direla biak.

AIZU, BA
NIRETZAT AZAROA
Z [] [] [] [] [] []
DA



Z	I	A	F	O	R
O	E	M	E	K	U
R	O	S	E	N	I
I	P	U	R	U	D
O	R	E	O	I	K
N	O	A	U	H	A

GURE HITZA
MOTZAGOA DA,
SEI HIZKI DITU:
H [] [] [] [] [] []



H	U	N	Z	I	
I	A	G	E	T	
T	Z	I	Z	U	
Z	P	I	K	A	
A	N	T	L	A	

Ttípi Txartelaarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Kontaktatu bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus
www.ttipi.eus/ttípi-txartela

841 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Lourdes Telletxea Perugorria | BERA
Buatxabal - Poltsa bat
Juli Latasa Elizagoien | LESAKA
Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat
Karlos Santiago Etxeberria | HONDARRIBIA
Irrisarri Land - Sarrera bat
Ane Otxandorena Juanena | ELGORRIAGA
Kimetz - Saski bat
Itziar Arregi Kortea | ALMANDOZ
Salting Iruñea - Bi sarrera
M^a Asun Urtxegi Ado | DONEZTEBE
Martiko - Lote bat
Jaione Bengotxea Agerrebere | ERRATZU
Anikote - Saunarako bi sarrera
Amparo Mariezkurrena Zabalo | LEITZA
Airaka - Hiru CD
Mikel Mitxelena | ZUGARRAMURDI

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumos.com



Bi sarrera

ONDOO TA PUNTO
www.ondootapunto.com



Kamiseta bat

EZKEXA
www.ezkexa.com



Kamiseta bat

BKZ ABENTURA
www.navantaventura.com



Sarrera bat

BAGA BIGA
www.baga-biga.eus



CD sorta

ARKUPE
www.arkupegacalegia.com



Lote bat

OKILLE TAILERRA
okilletailerra.blogspot.com



Eguzkilore bat

IZAR PARK
www.galaxypark.eus



Sarrera bat

Sartu

ttipi.eus/ttípi-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGITALETAK



Aprobetxa itzazu Ttípi Txartelak
eskaintzen dizkizun
abantailak, Ttípi Txartela
onartzen duten denda eta
zerbitzuetan erosiz.



Deskontuak eta zozketa: Ttípi-Ttapa aldizkari
guztietan Ttípi Txartelaren informazioa argitaratzen
da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun
deskontuak oroitaraziz!

LIBURUAK

Bi liburu



ibaizabal
www.ibaizabal.com